

Zu hemen zaude.
goiena

DANBAKA FINALA GAUR DEL VAL REBEL NOISE MALKO



Ordu gutxi batzuk besterik ez da falta Danbaka Musika Lehiaketako irabazleen berri izateko. Bergarako Seminarixoan jokatu da finala, 21:30ean. Del Val (Arrasate), Rebel Noise (Arrasate) eta Malko (Oñati) taldeen emandien ostean hartuko du erabakia epaimahaiak, eta jarraian banatuko dituzte hiru sariak: sari nagusia, publikoaren saria eta Danbaka-Ekinez saria. / 34

Danbakako sari nagusiaren trofeoa; aurtan estreinatuko da diseinu hori.

SINADURAK

	JOANES PLAZAOLA / 21
	XABIER MUGARZA AIASTUI / 6
	IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ / 25
	ISABEL MEDINA / 9
	IZAR ODRIZOLA / 40



Haur eta gazte abesbatzen oraina eta geroa

Elkarrizketa Vene Herrero aktore arrasatearrari

MERKEALDIA

2MÓ 189€

lehen 229€

erreflexuen aurkako betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan karpelaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

S.R.L. 91/20

943 79 29 95
Otalora Lizentziaduna, 18
ARRASATE



eskate hitzordua

943 76 15 75
Ibargarai, 16
BERGARA



www.multiópticas.com




DATUETATIK TIRAKA: KOMERTZIOEN EGOERA AZTERGAI


Herritar batzuk, Bergaran, erosketak egiten. GOIENA

Merkataritza txikia: beherakada nabarmena

2008az geroztik, Debagoiengan %28 egin dute behera merkataritza, ostalaritza eta garraiora bideratutako komertzioek. Ez da egoera isolatua; EAE osoan ere joera hori da nagusi. Hirigintzari zein tokiko ekonomiari eragiten die jaitsierak

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA Merkealdi betean daude dendak, eta herritarrek ere badakite hori. Askok itxaroten dute Gabon ostera arte arropa edo bestelako gauzak erosteko. Geroz eta denda gutxiago dago beherapenak aprobetxatzeko, ordea, Debagoiengan. 2008ko datuekin alderatuz, %28,1 egin dute behera merkataritza, ostalaritza eta garraiora bideratutako komertzio txikiek eskualdean. 2016. urterako, jada, %16,8 egin zuten behera. EAE mailan ere joera bertsua da: %26,9 egin du behera merkataritza txikiak.

Herriz herriko datuei begiratu badiugu, Antzuolan %8,7koa izan da komertzio txikien jai-

tsiera; Elgetan %12,2; Leintz Gatzagan %33; Aramaion ere %33; Oñatin %28,6; Arrasaten %27,3; Bergaran %33,1; Eskoriatzan %26,3; eta Aretxabaletan %20,6.

Etorkizunean joera horrek jarraituko duela uste du Aitziber Lasargurennek, Debagoieneko Merkataritza Bulego Teknikoko kideak: "Azken urteetan establezimendu asko itxi dira, eta hurrengo urteetan gehiago ixtea espero da, establezimenduen jabeen adina altua delako eta laster erretiroa hartuko dutelako askok". Belaunaldi berriek erreleboa ez hartzeko hainbat arrazoi eman ditu; besteak beste, azaldu du oinordekoek inte-

res eta bokazio ezberdinak izan ohi dituztela batzuetan, eta gazte asko, gainera, herritik kanpora joan ohi direla. "Behin herritik aterata, ez dira hona lanera bueltatzen, normalean, eta negozio horietako lan-baldintzak ere ez dira oso erakaragarriak izaten. Negozioen errentagarritasuna oso handia ez izateak ere ez du laguntzen, eta jende askok ez dauka enpresen

ERRELEBO FALTA ETA INFLAZIOA DIRA JAITSIERAREN ARRAZOIETAKO BATZUK

kudeaketan prestakuntza edo interesik", esan du.

Egoera zaila

Jabeen adin altuaz gain, beste hainbat arrazoi eman ditu Lasargurennek dendek itxierarako. Azaldu duenez, prezioen inflazioa dela eta, negozioak, askotan, jada ez dira errentagarriak, eta kontsumitzaileen eros ahalena ere gutxitu egin da. "Erosketetarako online plataformen sorrerak ere eragin die teknologia berrietara moldatu ez diren dendei. Horrekin batera, hirigintza erregulazioak zein zergen igoerak ere oztopo dira komertzioentzako; ingurumenari begirako legeak, esaterako, geroz eta zorrotzagoak dira", gehitu du.

Era berean, denda gutxiago egoteak herrietan eragin handiagoak dauzkala adierazi du, merkatariak eurek jasaten dituzten kalteez gain. Batetik, hirigintzari begira dakartzan ondorioak nabarmendu ditu: "Kaleetan lokal hutsak edukitzeak kale horri itxura eskasa ematen dio. Gainera, lokalak denbora askoan hutsik badaude, etxeen aurrealdeak eta lokalak hondatu egiten dira. Halaber, kaleak bizitasuna galtzen du, eta jende gutxiago igarotzen da bertatik, eta horrek eremu horretako segurtasunaren pertzepzioa okertzen du". Badaude arlo ekonomikoan sortzen diren bestelako kalteak ere: merkatarien enplegu galera ekartzen du, eta, horrez gain, zenbat eta denda gutxiago egon, orduan eta gutxiago izango dira komertzioen aldetik Udalak eratortzen dituen zergak ere, Lasargurennek hitzetan. Horrek udalaren finantzaketa gutxitzen du, eta, oro har, tokiko ekonomia

kaltetu. "Gertuko hornitzaileek ere kalteak jasaten dituzte, eta ondoko negozioei ere eragiten die; zenbat eta bizitasun gutxiago egon kalean, orduan eta bezero gutxiago izango dituzte eurek ere", adierazi du.

Zer egin?

Negozio bat irekitzeko oztopo ugari gainditu behar diren arren, badaude egoera aldatzeko asmoa duten ekimenak ere. Esaterako, Lasargurennek azaldu du dirulaguntzak jarri direla martxan udaletan, negozio berriak sustatzeko. Arrasaten eta Bergaran eskualdeak ematen dituzte, baita langabeak kontratatzeagatik ematen diren laguntzak zein errotuluak eta kartelak euskaraz jartzea bultzatzekoak ere.

Horrez gain, Arrasaten, esaterako, komertzioen lokalak berritzeko laguntzak jarri dituzte martxan, baita komertzioentzako zerga eta tasetan hobariak ere, Lasargurennek esan duenaren arabera.

Komertzioak

Herria	2008	2024
Antzuola	46	42
Aramaio	30	20
Aretxabaleta	136	108
Arrasate	612	445
Bergara	507	339
Elgeta	41	32
Eskoriatza	99	73
Leintz Gatzaga	9	6
Oñati	301	215
GUZTIRA	1.781	1.280

ITURRIA: EUSTAT

Eskualdeko ordezkariak egongo da Fitur azokan, Madrilen

Debagoiena, Urola Garaia eta Urola Erdia batzen dituen Hiruma proiektu berria aurkeztuko dute eguenean

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA Fitur Nazioarteko Turismo Azokan Gipuzkoako bost erakargarri turistiko aurkeztuko ditu aurten Gipuzkoako Foru Aldundiak; horien artean, Debagoieneko, Urola Garaiko eta

Urola Erdiko turismoa batera proiektatuko dituen Hiruma marka turistikoa. Helburua da "Euskadiko barnealdeko helmuga erreferente" bihurtzea.

Azoka eguaztenean hasiko da eta hilaren 26ra arte luza-

tuko da. Leintz Gatzagako alkate eta Debagoieneko Mankomunitateko lehendakari Doretta Elkorobarrutia eguaztenean joango da Madrilerira Hirumaren aurkezpenean parte hartzera.

Irungo Oiassoko termak eta Iruguruzetako meategiak, Euskal kostaldeko Geoparkeko Bira, Urola Kostako marka turistiko berria eta Zumarragako *Hauspoa eta tunela* dokumentala dira Gipuzkoatik azokara eramango dituzten gainontzeko erakargarri turistikoak.



Fiturrera eramango dituzten erakargarri turistikoen aurkezpena. FORU ALDUNDIA

"Familiakoek zainduta egon behar dute"

IDOIA MADARIETA EDIREN KOOPERATIBAKO PSIKOLOGOIA

Osasun mentaleko arazoak zein adikzioak dituen pertsona baten zaintzaile izateko, nork bere burua zaintzearen garrantzia azpimarratu du Madarietak

Jone Arruabarrena ARRASATE

Osasun mentalari buruzko hitzaldi zikloa antolatu dute, elkarlanean, Arrasateko Udalak, Katearen Loturak Elkartek eta Ediren Osasun Kooperatibak, urtariletik ekainera. Horietako batzuk egingo ditu Idoia Madarietak, kooperatibako psikologoak. Lehena aste honetan eman du, *Familiaren lekua. Nork zaintzen du zaintzailea* izenburupean. Kooperatibak berak bi asterik behin antolatzen ditu adikzioak dituztenen familientzako laguntza-taldeak.

Zergatik da garrantzitsua Ediren kooperatibak Arrasaten dinamizaten dituen moduko taldeak egotea?



Idoia Madarieta. IDOIA MADARIETA

Familian gaixorik dagoena zaindu ahal izateko, familiakoek ere zainduta egon behar dute. Gu txarto bagaude, gainezka, albo-koak ezin ditugu zaindu. Eta horrelako taldeak egotea garrantzitsua da, gainezka egin aurretik husteko aukera ematen baitute; egunerokotasuna nola eramaten duten partekatze, gaixotasunari buruzko informazioa eta formakuntza jasotzeko, familiaren zeregina zein den argitzeko eta tresna batzuk eskuratzeko.

Lehenengo hitzaldia zaintzaileen zaintzari buruzkoa izan zen; nola eragiten du familian adikzioak dituen pertsona bat edukitzeak?

Lehenengo erronka diagnostiko bat lortzea izaten da. Askotan, patologia duala izaten dute adikzioak dituzten pazienteek. Behin zer daukan jakinda ere, familia osoan edukitzen du eragina bai diagnostikoak, bai tratamenduak, bai ondoren etortzen den errehabilitazioak ere. Prozesu gorabeheratsua izaten da, eta, askotan, gaixorik dagoen pertsona txarto egoteak gainontzeko ki-deak txarto egotea ekartzen du. Horrek sorgin-gurpil bat dakar,

eta hortik ateratzea oso zaila da. Familiari erruduntasun sentimendua kentzea izaten da erronka, eta familiaren zereginari daukan garrantzia ematea. Edirenen familia-terapia egiten dugu askotan, baina ez familia gaixorik dagoelako, baizik eta familiako terapiaren baliatzen dugulako ardurak banatzeko, bakoitzak zer leku daukan ikusteko, elkar nola zaindu eta elkarri nola lagundu ikasteko...

Zer da patologia duala?

Adikzioak edukitzeaz gain, nahasmendu mentaleko arazo bat edukitzea da. Batak bestea elikatzen du askotan: baliteke substantziak kontsumitzen hastea izatea nahasmendu mentala sortzeko arrazoietakoa bat, eta, alderantziz, baliteke nahasmendu mental batek eragindako etsipenaren ondorioz adikzio batean erortzea.

Zein babes-neurri ezarri ditzakete familiakoek?

Gaixotasunaren inguruko informazio zehatza edukitzea ere beharrezkoa da; batez ere, profesionalengandik. Garrantzitsua da euren burua zaintzeko denbora edukitzea ere.



ZATOK IKASTOLA EZAGUTZERA!

INFORMAZIO SAIOAK URTARRILEAN
*hitzordurik gabe

ARRASATE
Urbarri
27 astelehena, 17:30
Olarte
28 asteartea, 17:30
Umezaintza
29 asteazkena, 17:30
Santa Teresa
30 osteguna, 17:30

ARETXABALETA
Basabeazpi
24 ostirala, 17:30
27 astelehena, 10:30 eta 15:00

ESKORIATZA
Jose Arana
28 asteartea, 10:30 eta 17:30

AURREMATRIKULA
otsailak **3-14**

BISITA PERTSONALIZATUAK

ERDU



0-5 urte

GURA



6-10 urte

BATU



10-14 urte

ESKATU ZURE HITZORDUA

943 77 20 25



www.arizmendi.eus






Bi pertsona Eskoriatzan. GOIENA

Ibarreko populazioaren %8,7 atzerritarra da

Arrasaten eta Eskoriatzan bizi dira atzerritik etorritako herritar gehienak —bi herrietan portzentajea %10era heltzen da—; horietatik gehienak hegoamerikarrak dira; adin tarteari dagokionez, erdia baino gehiago 20 eta 64 urte bitartekoak dira

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) emandako 2024. urteko datuen arabera, Debagoieneko populazioaren %8,7 da atzerritarra; hau da, 63.000 lagun bizi dira eskualdean eta horietatik 5.500ek dute atzerriko nazionalitatea. Gipuzkoako gainerako eskualdeekin alderatuta, portzentajerik baxuena duena da Debagoiena, Urola Kostaren atzetik: portzentajea %8 da kasu horretan. Eta, alderantziz, Goierri du atzerritar kopuru handiena: %12,4. Bidasoa Beheak, Debabarrenak, Tolosaldeak eta Donostialdeak daude ondoren zerrendan.

Debagoieneko herriei erreparaturaz, Arrasaten eta Eskoriatzan bizi dira atzerritar gehien. Ehunekoak hamarrera heltzen da; hau da, bi herri horietan, hamar biztanleko bat atzerritarra da. Bergararen kasuan, portzentajea %9,2koa da; Leintz Gatzagan, %7,1; Oñatin eta Aretxabaletan, %6,9; Antzuolan, %5,8; Elgetan,

%5,7; eta Aramaio da zerrendan azkena, %2,3 baita atzerritarra.

la erdia, amerikarrak

Azterritarren nazionalitate-kontinentei dagokienez, eskualdekoen ia erdia amerikarrak dira; batez ere, hegoamerikarrak. Hegoamerikar adina afrikar daude ia; gehienak, Magrebeko herrialdeetatik etorritakoak.

Nazionalitate-kontinenteen artetik hirugarrena da Europa, eta Asia eta Ozeania dira azkenak. Adin tarteari dagokionez, erdia baino gehiago 20 eta 64 urte bitartekoak dira.

EAEko batezbestekotik behera

Debagoieneko atzerritarren kopuruaren batezbestekoa Euskal

IBARREKO ATZERRITAR KOPURUAREN BATEZBESTEKOA EAE-KOAREN AZPITIK DAGO, %9,9 BAITA

Autonomia Erkidegokoaren azpitik dago: atzerriko herritartasuna duten 217.500 pertsona daude EAEn, biztanleria osoaren %9,9. Eta datuek goranzko joera erakusten dute; izan ere, zifra hori 2023koa baino bederatz hamarren handiagoa da.

Lurraldeei erreparaturaz, Araban dago Erkidegoko atzerritar gehien, %11,2; ondoren, Gipuzkoan, %9,9; eta, azkenik, Bizkaian, 9,5. Nazionalitate amerikarra duten pertsonak gehienago dira hiru lurraldeetan.

EAEn atzerritarren nazionalitate-kontinentea kontuan hartuta ere, Amerikako herrialdeetakoak dira atzerriko nazionalitate duten gehienak —Kolonia, Nikaragua, Venezuela, Honduras eta Paraguaiakoak, batik bat—; ondoren, Afrikakoak —Maroko, Aljeria, Senegal eta Nigeria—; Europako herrialdeak daude hirugarren —Errumania, Portugal eta Ukraina—; eta Asiako eta Ozeaniako herritartasuna dutenak laugarren —Pakistan eta Txina—.



Pentsiodunek astelehenean Bergaran egin zuten ekitaldia. MIREIA BIKUÑA

Sinadurak biltzen hasi da EHko Pentsiodunen Mugimendua

Herri Ekimen Legegilea (HEL) babesteko bilketa da eta astelehenetako elkarretaratzeetan bilduko dituzte

I.A.A. DEBAGOIENA

Pentsioen Sistema Publikoaren alde egindako borrokaren zarpigarren urteurrenarekin batera, "pentsioak osatzeko euskal sistema bat sortzea" aldarrikatu dute Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendutik.

EAEn bizi diren eta erroldatuta dauden 60 urtetik gorako pentsiodun guztiei, ofizioz, gutxieneko diru-sarrerara duinak bermatzeko, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren %100en baliokidea, eta gutxieneko pentsioetan dagoen genero-arrakala murrizteko ekimena da.

Bergarako Pentsiodunen Taldeko Itziar Usandizagak esan du, batik bat, emakumeek lortuko dituztela onurak: "Asko daude oso pentsio baxuarekin. 180.000 pentsiodun daude 500-800 euro kobratzen". Apirilaren 24ra arte egingo dute bilketa Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta Antzuolan. 10.000 sinadura behar dituzte legea Legebiltzarrean eztabaidatu eta bozka dadin.

Martitzenean, bestetik, *Zer gertatzen da pentsioekin?* hitzaldia egingo du Jesus Mari Soubies adituak, Bergarako Seminariarixoa, 18:30ean.

JOAN ZAIGU

Ziortza Martin Muñoz, Goienako komertzial taldeko langilea hil da

Goiena ARRASATE

Ziortza Martin Muñoz (Bilbo, 1973) Goiena Komunikazio Taldeko langilea hil da. Komertzialen taldeko kide 2001etik. Lehenik, Aretxabaletako egoitzan, eta, ondoren, egoitza nagusian, Arrasaten. Txagorritzuko ospitalean zendu da bart, hilak 16. Debagoienean bizi izan da azken hamar kadetan: Elgetan eta Bergaran.

Senideek Bergarako Oroilore beilatokian jasoko dituzte lagunak, bezeroak eta herritarrak, zapatuan, hilak 18, 11:00etatik aurrera. Agurra zapatu arrasaldean egingo zaio, Oroiloren. Goienako lankideok samina



Ziortza Martin Muñoz. GOIENA

adierazi nahi diogu familiari; bereziki, Jon Irizar Martin semeari. Beti gogoan izango dugu Ziortza lan-bazkidearen profesionaltasuna, ekina eta tratu atsegina.

Txakolin berria, freskoa eta aroma onekoa

2024ko txakolin-uzta Debagoieneko upeltegientzat ona izan da. Eguraldi baldintzak lagunduta, txakolin freskoa ekoiztu dute, eta kalitatezkoa; hori dela eta, sektoreko profesionalak harrera eta salmenta onak espero dituzte aurtengoan

Sara Lanz Azpiazu DEBAGOIENA

San Anton Egunaren bueltan, Getariako Txakolina izendapenak uzta berria aurkeztu du. Debagoieneko hiru upeltegi daude Getariako Txakolina jatorri izenaren barruan: Murgialdai, Belaskua eta azken hiru urteetan Hondarrribiko Hiruzta txakolindegia kudeatzen duen Upaingo. Getariako Txakolina izendapenaren barruan egoteak merkatuan eskaintza berezia izatea ahalbidetzen die.

Murgialdai txakolindegiko Aritz Galdos oso pozik dago 2024ko uztarekin. Dio ziklo begetatiboa luzea izan dela. "Martxoan inoiz baino lehenago ernatu zen, eta uda gorabeheratsua izan zen, eguzki gutxiarekin. Horrek zikloa luzatu du, baina emaitza ona izan da".

Galdosen arabera, graduazioa iazkoa baino zertxobait baxuagoa izango da -%11,5 eta %12 inguruan-, baina kalitatea ez dago zalantzan, txakolin fresko eta aroma onekoa dator: "Txakolin orekatua da, gorputz onekoa eta aroma erakargarriarekin". Prozesuaren azken urratsak ere martxan dituzte: "Lehen sortak aste bukaeran botilatu ditugu, eta orain, etiketatu eta merkaturatzeko prest dauzkagu", adierazi du.



Aritz Galdos Murgialdai txakolindegian. OIHANA ELORTZA

Oñatitik urrutira

Debagoieneko upeltegiak nazioarteko merkatuetan ere pauso sendoak ematen ari dira. Ardoaren kalitateari eta jatorri bereziari esker, gero eta gehiago ari dira kanpoan bilatzen aukera. "Gehiengoa, noski, gure bailaran kontsumitzen da, baina azken urteetan gure produktuak Japoniara eta Ameriketako Estatu Batuetara ere esportatzen ari gara. Hori izan daiteke gure ardoaren zabalkundeaz arduratzen den merkatu berri-tzaile eta erakargarria", adie-

razi du Murgialdaiko ardura-dunak. Hori dela eta, garai honetan, hilabeteetako negoziazioak eta prestaketa-lanak egiten ari dira, bidalketa horiek behar bezala kudeatzeko.

Etiketen arautegi berriak

Etiketen arautegi berriak 2024ko uztarekin bat etorriko dira, eta aldaketa nagusi bat ekarriko dute txakolin-botilek. Europako araudi berriak kontuan hartuta, etiketen diseinuak berriro egingo dira, eta aldaketa horrek eragina izango du

baita kontsumitzaileen esperientzian ere. Aritz Galdosek azaldu du, hemendik aurrera, botila guztiek QR kode bat izango dutela etiketan. Kode horren bidez, kontsumitzaileek produktuen nutrizio-informazioa eta ezaugarriak kontsultatu ahal izango dituzte, erraz eta azkar, hala nola ardoaren jatorria, elaborazio-prozesua eta beste informazio garrantzitsu batzuk.

Etiketa berriek, gainera, birziklapenerako sinboloak ere izango dituzte, kontsumitzaileei jasagarritasunaren inguruko informazioa emateko. "Aldaketa horiek garrantzitsuak dira ardoaren industriaren etorkizunerako eta kontsumitzaileen beharrei erantzuteko".

Oñatin saltzeko ekoizpena

Jon Urzelai, Belaskua txakolindegikoa, 2008an hasi zen mahastiak lantzen eta txakolina ekoizten. Aurtengo ere tokiko merkatura bideratu du ekoizpena: "Gure produktotik %20 botilaratzen dugu, eta dena Oñatin saltzen dugu". Urzelai ekoizpen lokalaren aldeko apustua berretsi du: "Gure asmoa beti izan da etxe inguruan nekazaritza-jarduera mantentzea".

Oñatitik Hondarribira

Hondarrribiko Hiruzta upategia arduratzen da Upaingo mahastien uztaren prozesuaz. Aurretik Eltziegoko (Araba) Marques de Riscal upategia arduratzen zen, baina badira hiru urte Hondarrribiko upategia arduratzen dela. Hala, Hiruzta izenarekin merkaturatzen dute Oñatiko mahastekin egindako txakolina. Oñatiko mahastia zaintzen jarraitzeko asmoa dutela ziurtatu du Rekaldek.

Zelakoa izan da uzta aurtengo?



JON URZELAI
BELASKUA TXAKOLINDEGIA

"Uzta 2003koa baino zailagoa izan da. Eguraldi aldetik urte gogorra izan da, eta mahats txikia atera da. Halere, ez dugu gaitz inportanterik izan, eta kalitatea mantendu egin dugu. Gure asmoa da jarduera etxe inguruan mantentzea".



TXARLI REKALDE
HIRUZTA UPATEGIA

"Aurreko urtean baino kantitate txikiagoa jaso dugu uzta honetan. Udaberriko lore garaia eta uda eskasak izan dira. Txikiagoa izan da jaso dugun mahats alea, eta pisu txikiagokoa. Hala ere, pozik gaude lortutakoarekin".

Itsaraz proiektuak Espainiako Gobernuaren ezezkoa jaso du

Statkraft enpresak "atsekabez" hartu du erabakia eta Aramaioko alkateak balorazio "oso positiboa" egin du

L.Z.L. DEBAGOIENA

Statkraft enpresaren Itsaraz parke eolikoaren proiektuak ez du Trantsizio Energetikorako eta Erronka Demografikorako Espainiako Ministerioaren aldeko ingurumen-inpaktu adie-

razpena lortu. Espainiako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoaren arabera, Ministerioak baloratu du haize-errotek "neurritz kanpoko kalteak eragin" ditzaketela horiek eraikitzeko proposatutako lekuan.

Erabakiari ezin zaio helegite-rik aurkeztu. Aramaioko alkate Asier Agirrek balorazio "oso positiboa" egin du: "Ez zen herrirako proiektu bat eta kontra egon gara hasieratik. Proiektu oso handia zen, eta lurralderako planifikaziorik gabe egindakoa".

Statkraftek, ohar bidez, azaldu du "atsekabez" hartu duela erabakia. Uste du proiektuak jasagarritasun ekonomikoaren, sozialaren eta ingurumen jasagarritasunaren printzipioak betetzen zituela.

Avanzako langileek lau eguneko greba deitu dute

Avanza konpainiako langileek greba deialdia egin dute urtarilaren 18ko 02:00etatik hilaren 21eko 02:00etara. Aurreko greba egunetan moduan, atzerapenak eta ibilbide batzuk bertan behera geratzea eragingo ditu honek ere. Besteak beste, soldataren igoera, lanaldiaren murrizketa eta autobus-flota berritzea eskatzen dituzte.

Bezereen Arreta Zerbitzutik jakinarazi dute Avanzak beranduenez gaur emango duela greba deialdiaren eraginaren inguruko informazioa eta ezarriko diren zerbitzu minimoen berri. Greba deialdiak eragina izango duen zerbitzuren baterako bigaia-txartela erositako eta bigaia bertan behera utzi nahi duten erabiltzaileei jakinarazi diete ohiko bideetatik egin dezaketela gestioa. Informazio gehiagorako deitu Bezereen Arreta Zerbitzura: 900 12 14 00.



ZABALIK

XABIER MUGARZA AIASTUI

Serioegia isilik egoteko

Gordin idatziko dut, gaia horrelakoa delako. Beste behin, jendetza bilduko zen joan den zapatuan Bilbon. Aurreko asteetan izan dugun komunikazio bonbardaketa ez da makala izan, diru bilketa deia barne.

Komunikazio horien artean, iritzi artikulua bat aurki dezakegu, honelakoak esaten dituen, adibidez: *Bi aldeetako jarraitzaile sutsuenak ohituago baitzeuden beren argudioak elikatzeko arrazoiak bilatzen adostasunerako bideetan konpromisoak hartzen baino, jakinik bide horietan beti zerbait galtzen dela.*

Bide hori egin dutenek zer galdu duten ez dakidan bezala, oso argi daukat haiek beste hainbati bidea hartzeko aukera kendu zirela, bake bide hori hartzea tokatzen ez zela uste zuten garaian.

Artikulu berean, euskal gizartearena nahikoa ez, eta biktimen bozeramaile papera hartzen dute; bai batak zein besteek zer nahi eta exijitzen duten irmoki baieztatuz. Ez da txikia balentria!

HORRELAOKOAK EGIN, AGINDU ETA HAUSPOTU ZITUZTENEK EZ DUTE BARKAMENIK ESKATU

Hori gutxi ez, eta beraiekin bat ez gatozenak seinatzeko garaia dela diote –iraganeko *tic-a ote?*–; oztopatzaile bezala

definitzen gaituzte, eta beraienganako desadostasun horretan dagoen pluraltasun zabalak zaku bakar baten pilatzen dute –ultraeskuinaren marko dialektikoa–.

Hau ere badiote: *Duela hamabost urte hasitako bidearen bukaerara iritsi behar da lehenbailehen.* Amnistiaren eufemismo bat da? Edo zer da *bidearen bukaerara iritea lehenbailehen?*

Ez du sinesgarritasunik esaldi berean biktimekiko enpatia berbalizatu eta ETakoak preso politikoak direla dioenak.

Ziur aski, detaileak laguntzen dute bizi izan dugunaren dimentsioak kontzientzia hartzen.

Adibide bezala, *27 minutos* film laburra ikustera gonbidatzen zaituztet: <https://www.youtube.com/watch?v=GDXzkJhzg8Y>.

Horrelakoak egin, agindu eta hauspotu zituztenek ez dute oraindik barkamenik eskatu, ezta astakeria izan zela aitortu ere. Are gehiago, barkamena eta damua erakutsi duten horiek beraien eremuetatik baztertu dituzte. Haietaz ari gara hemen, batzuk konturatzen ez direla ematen duen arren.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Zazpiak zazpi

MIKEL ELORZA

'BERRIA'-N ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/NXI6J](https://labur.eus/nxi6j)

Ez ditut probintziak maite.

Sindrome anti-probintzianoa daukat, *nunquam curata*. Eta, beraz, txokokeriarekin oro har baina bereziki probintzien gorespenekin kontaktua daukadanean pikorrak ateratzen zaizkit gorputz osoan. Eta halaxe, duela 1.000 urteko *Ipuscoa* dela eta autoridadeak *katxondo* jartzen hasi direnean niri hormona jakobinoenak esnatu zaizkit eta gorriuneak agertu ganglio guztietan.

Izan ere, duela hamar mende bere burua

gipuzkoartzat jotzen zuen komunitate bat bazela iradokitze hutsa fantasia gisa ongi dago, baina... Duela 1.000 urte zeuden komunitate bakarrak abadeek eta jauntxoek osatzen zituzten, eta lurraldeak (biztanleak barne) saldu, erosi, trukatu eta konkistatzen jarduten zuten. Lurraldeen ezaugarri bateratzailea zen jabe bat zeukatela, errege, konde, duke edo jaun. Jaun baten *jabetzako* lurra, horiek ziren orain identitatearen lupatik irakurri nahi ditugunak. Herritarrek eremu geografiko batekin lotzen zituen elementua zen nori ordaintzen zizkieten zerga eta hamarrenak, zein gaztelu eta

monasteriori. Egungo probintzien mugekin zertan bat etorri ez duena. Nik ere badakit hurbileko erakunde eta bilgunetan antolatze joera dugula. Eta asanbleetatik udaletara jauzia jario errazekoa da. Baina egun ditugun probintziak... 1.000 urte geroago ere, delako komunitate gipuzkoar hori perbertsioa baino ez da. Napoleonen oinordetzan jaso genuen probintzien araberako zatiketa, baina pozoiak bidea egin du, batez ere azken hamarkadetan. Elastiko bat jantzarazi digute probintzia bakoitzeko, geure *koloreekin* bat egin dugu, eta hor gabilta galtzarbetik elkarri helduta... [...]

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube,
Larrazit Zeberio.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Euskal Herria gerraren alde?**JUAN MARTIN ELEXPURU**
BERGARA

Dantzaldia bere onenean zegoen *Titanic*-en sala nagusian; dotore jantzitako bikoteak jira eta bira zebiltzan orkestraren musikak sorginduta. Handik gutxira, Artikoko ur izoztueta murgildu ziren denak. Ez ote berdintsua oraingo egoera? Diferentzia batekin, haiek ezin zuten jakin izebergarekin tupust egingo zutela, eta guk suma dezakegu zer etor dakigukeen gainera: gerra; nuklearra, behar bada.

Gerra hotsak Europan eta munduan. EBtik zein NATOtik ez dator beste mezurik: gastu militarra hirukoiztu, Osasungintza, Hezkuntza eta abarren kontura, jakina; soldadutza berrezarri; Errusia probokatu.

Eta, bitartean, zein da gure politikarien erreakzioa? Norbaitek gerraren aurkako eta NATOtik irtetearen aldeko mozioren bat aurkezten badu, abstenitu edo kontra bozkatu, ordezko moziarik eskaini gabe. Inor gutxi gogoratzen da gure herriak ezezko borobila eman ziola erakundeari. Manifestaziorik ez konbokatuta, eta hurbilekoek deitzen badute, militantzia ez animatu bertaratzera –100 lagun Bilboko manifestazioan, abenduaren 21ean–. Gobernu zentralaren aurrekontu militarrak onartu, armak bidaltzen direnean isilik geratu, norberak kontrolatzen dituen hedabideetan belizismoa eta errusofobia elikatu. Palestinako genozidioa salatu, baina Israelekiko harremanak eta trukeak ez apurtu.

Gure lagun *konspiranoiko* batek esan ohi du gure seme-alabak gerrara joaten ikusiko ditugula NATOren uniformeaz, nora eta zertara doazen ideiarik izan gabe. Hobe paranoia hutsa balitz.

Zerbait egin beharra daukagu.

Petardoak**MADDI ETXABE HERIZ**
ARRASATE

Urtarrilaren leko gaua ez zen salbuespeneko izan; bai, ordea, gehiegikeria bat. Zenbat petardo bota zituzten Monterron azpian? Arratsaldeko zortzietan entzун nituen lehenak, eta 02:00etan entzун jarraitzen nuen.

Ulertzen dut ospatzeko beharra izan dezaketela batzuek, jada hemen ez daudenen oroigarri gisa bota daitezkeela petardoak, eta milaka eta milaka arrazoi.

Baina ez al dago ospatzerik, herri osoa molestatu gabe? Zerura halako produkturik bota gabe?

Zer esanik ez, horrelako zaratekin nola beldurtzen diren animaliak; hots, txakurrak. Baina, nola ez, gizakia, bere handikeria guztiekin, nahi duena egiteko jaun eta jabe dela sinistuz.

Harremantzeko, ospatzeko, zoriontzeko, barkatzeko... modu eta joera berriak ikasi eta barneratu behar ditugu, urgentziaz.

Ezin dugu jarraitu parrandan arma zuriak erabiltzen, erasotzen, gureak ez diren espazioetan sartzen eta suntsitzen, nahi dugunean eta nahi dugulako pila bat petardo botatzen. Guk, gizakiok, geroz eta limite gutxiago ditugu, baina naturak badu bere zikloa, eta errespetatu ezean desagertu egingo gara; ea konturatzerik badugun horretaz, berandu izan baino lehen...

"Salam alaykum!"**FELIPE URIARTE**
PASAI DONIBANE

"*Salam alaykum!*" alai batez agurtzen dut amaginarrebaren etxera lan egitera egunero etortzen den Jabila aljeriar emakume gaztea. Aurpegia argitzen zaio, eta esker oneko irribarre zabal batez erantzuten dit: "Alaykum salam!". Seme-alabak

dagoeneko ongi moldatzen dira euskaraz; Jabila, beti lanean, gogorik bai, baina ez du oraindik hizkuntzari indarrez hartzeko astirik izan.

Tipulak, porruak eta kuiatxoak erostera joaten naizenean, atetik sartu eta "salam!" ozen batez agurtzen dut Naiknam Karim, Islamabadeko dendari pakistandarra. Ismaeldarra izanik, musulman xiita, hain zuzen, "salam!" erantzuten dit, ismaeldarrek ez baitute *salam alaykum* hori erabiltzen. Ordaintzerakoan, "hogeita zazpi eta berrogeita bost" adierazi dit, euskara garbian. Pozik ordaindu diot, eta nire agurrari "hurrengo arte!" batez erantzun dit. Alai eta itzaropenez lepo ateratzen naiz beti Naiknamen dendatik.

Boli Kostakoa da *Musa*. Duela bost bat urtetik hona, Oñati aldera saltzaile etortzen da. Poltsak, guardasolak eta mota askotako galtzerdiak saltzen ditu. Elkar ezagutu genuenean, euskal ikurrina duten galtzerdiak luzatu zizkidan. Galtzerdietako ikurrinak ikusi, eta barre txiki bat ezpainetan, begirada galtzerditik *Musa*-rengana itzuli nuen. Nire begiradaren zain nituen haren begiak.

"Egun on", agurtu ninduen.

Ez dizkiot beti ikurrina duten galtzerdiak erosten, baita ikurrinik gabekoak ere. Nire gogoko tabernan eserita baldin banago, esertzera gonbidatzen dut. Txakolina nik; kafesnea eta palmera bat hark.

"Zer moduz, Musa?"

"Oso ondo; eta zu?", Musak. Mandinga da haren mintzaira, baina frantsesez ere hitz egiten du.

Duela gutxi, adeitasun handiz irakurri dut Oñatiko *Kontzejupetik* aldizkariari buruzko proposamena: online eskuragarri jartzea gaztelarazko idatzaldia. Di-da bateko hausnarketa baten ondoren, ez da zaila ikustea aldizkariak, herriko berriak plazaratzeaz gain,

beste hainbat onura ere eskaintzen dituela.

Euskaraz izateagatik, euskaraz irakurtzen ez duten oñatiar euskaldunei aukera ematen die euren hizkuntza propioan irakurtzeko. Euren bizitza osoan Atxaga edo Sarrionandia euskaraz irakurriko ez duten oñatiar petoei herriko gertakariak euskaraz irakurri dezaten eskaintzen zaie. Garrantzitsua da euskararen normalizaziorako, oinarritzko eskaintza izanagatik.

Eta nolako onura eskaintzen die oñatiar erdaldunei *Kontzejupetik* euskara hutsean izateak?

Ñimiñoa dirudien arren, euskara komunikaziorako baliagarria dela ikusiko dute erdaldunek, eta aldizkariak komunikazio-gune bat sortzen duela, non herriko gaiak jasotzen diren.

Oker ez banaiz, gaur egun, %12,2 emigranteak dira Oñatin; kopuru indartsua, kontuan hartu beharrekoa. Eta, zerbaki horri begira, aldizkaria tresna barneratzaile eraginkorra izan liteke.

Zerbaki horrek ematen digun lehenengo berria da Oñatin erdara bat baino gehiago hitz egiten dela. Eta horra hor aipatutako proposamenaren lehenengo akatsa, inklusioaren arazoari helden baldin badiogu. Gaztelaraz eskainiz gero, kanpoan uzten ditugu beste erdal hiztunak, pakistandarrek, marokorrek, aljeriarrek, bolikostarrak; eta okerragoa dena, gaztelarara zuzentzen ditugu horiek guztiak, eta ez euskarara.

Euskararen normalizazioaren aurkako norabidean, hain zuzen. Era horretan, *Kontzejupetik*-en bitartez, erdaldun guztiak gaztelarara bideratuko genituzke. Euskara izan beharrean, gaztelera ardatz bihurtuko litzateke emigratzaileen inklusiorako.

Badaude aukera ederrak *Kontzejupetik* tresna barneratzaile egoki

bihurtzeko. Oñatin hitz egiten diren erdara guztiak kontuan hartzea. Txandaka, paperezko zein online zenbakietan, erdara guztiak agertzea. Poesia, beraien ipuinak, beren herriko ohituraren bat, erdaldun horiek idatzirik, beren hizkuntzan eta grafian, eta ondoan euskarara ekarrita. Horra hor lan zoragarria.

Euskararen gaia nazio gaia denez, norberaren alderdiaren ikuspegitik at aztertu behar dugu, eta bi estatuengandik burujabe den hizkuntza-politika boteretsua beharko dugu. Gaur egun, Euskal Herriko hiru zatietan burutzen ez dena.

Hizkuntza-politika burujabea, utopiaz, poesiaz eta ausardiaz bustiz gero, horra hor bide eraginkorra.

Ospitalean ezin egon**JOSU GARITAONANDIA**"OPARITU ZUHAITZ BAT" EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Madrilgo ospitale batean gaixo batek bakarrik pasa zuen ospitaleratzea, hari lagundu behar zion etxekoa ezin zelako gelan egon; lagundu behar ziona gaixotu egiten zen, gelan zeuden uhinengatik. Tarteka, araudiak esaten duena baino 50 aldiz gehiagoko pikoak zeuden ospitalean; arduradunek ez zeukaten beste gela bat baldintza osasungarriagoan eskaintzeko, eta ez zituzten gelako eta inguruko wifiak kendu nahi.

Gero eta kasu gehiago daude; kutsadura elektromagnetikoa sortzen duten aparailuak gero eta gehiago dira: irratiak, telebistak, mugikorrek, wifiak, 5G teknologia, transformadoreak... Gero eta pertsona gehiago egongo dira elektrosentsibilitate gaixotasunak jota. Gipuzkoan Bizi Bide elkarteak dago laguntzeko; bitartean, osasuna babesteko, elektrizitatea behar duen edozein tresna entxufetik kendu ezazue logelan.

Ekinaren ekinez, 30 (edo 40) urte

Ekin Emakumeak taldea 1985. urtean sortu zuten, Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen baitan, eta, hamarkada bat geroago, 1995ean, elkarte gisa eratu zuten

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE 30. urtemuga du aurten Ekin Emakumeak Elkarteak. 40 urte dira, ordea, Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen baitan Ekin Emakumeak taldea sortu zutenetik, emakumeentzako gune euskaldunak sortzeko helburu nagusiarekin. Hasierako urteetan, Ana Unzaluk, Marilu Aju-riak, Lourdes Azkaratek, Lourdes Uraldek, Marije Salterainek, Arantxa Sanchezek eta Bittori Etxeberrriak osatu zuten talde eragilea. "Intentsitate handiko lana egin genuen urte haietan, ordu asko dedikatu genizkion emakume taldeari, astean hiruzpalau egunetan. Esfortzu handia zen hura, etxea eta umeak aurrera eraman behar genituelako, baina gustura genbiltzan denok", dio Ana Unzaluk.

Lehen lauzpabost urteetan, sekulako arrakasta izaten zuten taldeak antolatutako ekintzek. "Jende asko etortzen zen gure aktibitate guztietara. Ez ginen ausartzen ezet esatera etortzen zirenei, eta estu-estu egoten ginen, elkarren ondoan, lekurik gabe; jende gehiegi, batzuetan. Edozelan ere, erabat sinistuta geunden egiten genuenak zuen garrantziaz, eta poz handia ematen zigun horrek".

Lehen urteetan, talde zabala

Talde eragileaz gain, ekarpen eta laguntza handia ematen zuten herritarrek zeudela aitortu du Unzaluk, eta askotariko ekintzak egiten zituzten, hala nola bidaiak European zehar, talo-postua santamasetan, mintzapraktika saioak, sukaldaritza ikastaroak eta emakumeek zituzten kezkei eta arduerik buruzko hitzaldiak. Azken horiei dagokienez, zera nabarmendu du Unzaluk: "Harrera itzela izan zuen menopausiari buruz Fernando Kristobalek

egindako hitzaldiak, baita jatorriz aretxabaletarra den Alberto Altube mediku naturistak egindakoak ere. Menopausiari buruz beste ikuspegi bat duen Mari Luz Esteban medikua ere ekarri genuen, eta harrera oso ona izan zuen beste bat Amaia Vazquez izan zen; sexologiari buruz hitz egin zigun hark".

Udal bileretan ere bai

Emakume taldean egiten zituzten aktibitateez gain, Udalak antolatutako emakume arloko bileretara ere joaten ziren, Unzaluk adierazi duenez: "Han ibiltzen ginen, hitzaldiak eta gainerako aktibitateak euskaraz ere egin behar zirela eskatzen".

Talde izatetik elkarte izatera

Lehenengo urteetako arrakasta hura moteltzen joan zen, eta geldiunea izan zuten 90eko hamarkada erdira iristear zirela. "Ideiak gastatu egin zitzaizkigun eta uztekotan egon ginen. Izan ere, hasierako urteetako ilusio hura jaitsi egin zen, arrazoi askorengatik: geroz eta konpromiso handiagoak hartu behar genituen; gutako batzuen gurasoak zahartu egin ziren eta haiei lagundu behar genien; diru asko behar genuen gauzak egiteko eta ezin izaten genuen lortu; eta abar. Hala ere, Marilu animatu egin zen, baita Bittori ere. AEDko eragile zen Xabier Ozaetak lagundu zigun egoera hartan".

Horren harira, AEDk proposatu zien elkarte propio bat osatzeko. "Guk barruan jarraitu

**EMAKUMEENTZAKO
GUNE EUSKALDUNAK
SORTZEKO
HELBURUAREKIN
SORTU ZUTEN EKIN**

nahi genuen, elkarte bat izanda baino babestuago sentitzen ginelako eta ez geniolako onurarik ikusten, lan gehiago baizik", dio Unzaluk. "Izugarritzko zulo ekonomikoa egiteko beldurra genuen eta aurre egiteko kapaz ez gine-la izango pentsatzen genuen. Izan ere, militantziagatik jarduten genuen guk, baita beste askok ere, baina orduko 2.000 pezeta edo gehiago eskatzen zuten beste batzuek, eta horri aurre egin beharra zegoen".

Azkenik, baina, Ekin Emakumeak Elkarteak sortu zuten 1995ean; AEDrekin koordinatuta eta elkarlanean, betiere. "Elkarte egiteak zituen eginkizunak gauzatzeko, Esther Apaolaza jarri zuen eragile gisa AEDk, eta orduan erlaxatu egin ginen; harengan utzi genituen ordura arte guk eramaten genituen ardura asko, nahiz eta beti lagundu. Estherrek ekarpen handia egin zion elkarteari. Ondoren etorri zen eragilea Onintza Lopez de Munain izan zen, eta Leire Unamuno gero", dio Unzaluk.

Elkarte izaera eskuratutakoan, lehendik zuen jardueraren jarraipenaz gain, hedapena eta finkotasuna lortzea izan zen helburu nagusia. Ahalegin horretan, azken hogeit urteetan askotariko proiektuak eraman izan dituzte aurrera; tartean, hitzaldiak, erakusketak, ikastaroak edota antzerkiak.

Osasuntsu eta lanerako gogoz

Hiru hamarkada geroago, osasuntsu eta lanerako gogoz jarraitzen du Ekin Emakumeak Elkarteak. Izan ere, emakume eta euskaldun izateak oraindik ere zapalkuntza eta eskubide urraketa dakarrela uste dute, eta, horregatik, emakumeengandik eta emakumeentzako, eus-



Marije Salterain, Marilu Aju-riak eta Lourdes Uralde, kartelari eusten, taldekideekin.



Ekin Emakumeak Elkarteak antolatutako joskintza tailerretako bat.



Elkarteko hainbat kide, baseritar jantzita.



Elkarteko hainbat kide, taloak egiten, santamasetan. ARGAZKIAK: EKIN

Prest dute urteurreneko egitaraua

Urte osoko egitaraua prestatu du Ekinek. "Ospatzeko baliatu gura dugu egitaraua, eta elkartari merezi duen aitortza egin nahi diogu modu horretan. 25. urteurrena ezin izan genuen ospatu, pandemia garaian geundelako; beraz, ospakizun handiagoa eta garrantzitsuagoa egin nahi dugu orain", adierazi du elkarteko kide Oihane Pildainek. "Gura duguna da gure elkartari ikusgarritasuna ematea", gaineratu du. Hala, askotariko gaiak lantzeko solasaldiak, dokumental emanaldia, antzezlanak, mural margotzea eta erakusketa egingo dituzte, datorren astean hasita, urria arte.

30 urte, berrekin, ekin, elkarrekin da urteurreneko leloa, eta erreferentzia egiten die elkarrekin urteurrenaren baitan dituen lau oinarriek, egitarauaren arduradun Ainara Alkortaren esanetan. "30 urte memoria historikoarekin lotuko genuke; berrekin, feminismoarekin; ekin,



Oihane Pildain, Laura Bueno eta Ainara Alkorta, egitarauarekin. E.A.B.

euskararekin; eta elkarrekin, aniztasunarekin. Urteurreneko ekintzetan landuko ditugun gaiak izango dira".

Materiala batzen ari dira

Ekimen ibilbidean egon izan direnei elkarriketak egiten eta informazioa eskatzen ari dira, urrian erakusketa bat egiteko. Hori dela eta, deialdia zabaldu gura diete herritarrei. "Norbaitek elkarrekin historiari lotutako informaziorik, argazkirik edo bestelako materialik edukiz gero,

gurekin harremanetan jar dadila, 651 70 79 36 telefono-zenbakira deituta".

Lehen saioa, martitzenean

Lehen saioa urtarrilaren 21ean izango da, martitzena, 18:30ean, Kulturaten. "Euskara harrera-hizkuntza den edo ez hausnartzeko saio ireki bat izango da, eta jana ere egongo da. Herritarrek animatu gura ditugu parte hartzera", dio elkarteko kide Laura Buenok. Egitarau osoa *Goiena.eus*-en dago ikusgai.

karazko espazio eta egitasmoak martxan jartzen dihardute.

Emakumearen auziaz gain, azken urteetan garrantzitsutzat jo dute "geroz eta antzagoa den gizartean sortzen joan diren behar berriei erantzuteko" lan egitea. "Neurri horretan, jatorri askotariko pertsonen zuzendutako harrera zerbitzua eta euskara inklusioaren erdigunean jartzen duten askotariko egitasmoak abiatu ditugu", diote Oihane Pildainek eta Laura Buenok, elkarteko egungo kideek.

Hiru ardatz nagusiren bueltan

Aniztasuna, euskara eta parekidetasuna uztartzeko lanean dihardu elkarrekin; betiere, euskara elkarte izatearen identitateari eutsiz. Hala, hiru ardatz jorratzen ditu: euskara, emakumeak eta aniztasuna. "Gure misioen artean daude euskaren normalizazioarako lan egitea, emakumeon aukera eta eskubide berdintasunaren alde jardutea eta kultura-aniztasunaren aitortza oinarritutako bizikidetzarantz urratsak egitea. Gure erronka nagusia hiru ardatz horiek modu eraginkor eta koherentean uztartzea litzateke".

Hainbat proiektu esku artean

Gaur egun martxan dituzten proiektu garrantzitsuenak honako hauek dira: Arrasateko Harrera Sarea, Auzoko, Jabetze Eskolak, *Mundutik Arrasatera eta Arrasatetik mundura* ipuin kontaketak, Bizikidetzak Eskolaren proiektua, 2024an gauzaturako *Arrasateko nerabe eta gazte trans* eta ez-bitarren errealitatearen analisia*, Emetruke, Euskaraldia, Geike, Aniztasun Mahaian parte hartzea, herrigintza eta saretzea, eta errolda sozialaren lanketa.

Jabetze Eskolak, ezinbestekoak

Elkarrekin oinarrietako bat Jabetze Eskolak dira, hiru hilabete iraun ohi duten saioekin. "Urtetik urtera, gai desberdinak lantzen dituzten ikastaroak eskaintzen saiatzen gara, eta parte-hartzaileek eskatuta edo guk identifikatutako beharren ara-

HIRU ARDATZ NAGUSI DITU ELKARTEAK: EUSKARA, EMAKUMEAK ETA ANIZTASUNA

bera antolatzen ditugu. Gainera, oso harrera ona izan ohi dute", azaldu dute.

Hiruhileko honetan kakorraz eta puntu ikastaroa, joskintza ikastaroa eta yin tao ikastaroa egingo dituzte eta otsailetik martxora bitartean beste ikastaro bat eskainiko dutela ere aurreratu dute. "Joskintza ikastaroan oraindik pare bat leku gelditzen dira, eta yin taon talde handia sortu da; halere, izena emateko aukera dago oraindik. Beraz, animatu zaitezte", diote.

Zortzi kide daude elkartearen

Horri guztiorri aurre egiteko, gaur-gaurkoz, bi langile eta sei pertsonaz osatutako zuzendaritza batzorde bat dira elkartearen. "Talde-lanari esker lortzen dugu elkarrekin urteko zein egunerokotasuneko eskakizunei aurre egitea", nabarmendu dute. Era berean, urteurreneko antolaketan lanetarako Ainara Alkorta batu da taldera, eta, horrez gain, antolaketan talde bat ere sortu dute. "Talde horretan, hainbat pertsona eta eragile daude, hala nola AED, Txatxilipurdi eta Ekimen zuzendaritza batzordeko hainbat kide".



NIRE USTEZ

ISABEL MEDINA

Inklusioa

Mundu aldakor eta dinamiko batean bizi gara, eta etengabeko egokitzea eskatzen du horrek. Dena azkar aldatzen ari den honetan, erresilientziarako gaitasuna dugun arren, badaude egokitze hori baldintzatzen duten faktoreak. Horregatik, gizarte modura, kontziente izan behar dugu gutako guztiok ez garela gai guztiz egokitzeko beharrezko laguntza barik. Hain zuzen, zeregin hori gure instituzioena da, gure gobernuena; edozelan ere, herritar gisa, enpatia garatu behar dugu, guztiondako baldintza justu eta berberak aldarrikatu ahal izateko. Hor hartzen dugu protagonismoa pertsona gisa, arduratsua izanez eta kolektiboan pentsatuz.

Egunerokotasunean, irisgarria ez den herri batean dabil aulki gurgildunean dagoena; pertsona gorra ez ditugu aintzat hartzen; herrira heldu berri direnak bakarrik daude, bizi izan zuten errealitatearekin zerikusirik ez duen errealitate batean. Eta errealitatea beste modu batera ulertzen dutenentzat, mundua ez dago prest. Guztiok ez dugu karta berberekin jokatzeko; are gehiago, jokatzeko kartarik ere ez dute batzuek.

Sei mintegi egongo dira biharko Zuhaitz Egunean Seber Altuben

Zuhaitz-landatze herrikoia otsailera atzeratu dute, eta, azken lau urteetan moduan, Etxezarretan egingo dute

E.A.B. ARRASATE

Bihar, zapatua, bertako produktuen azokarekin batera egingo dute Zuhaitz Eguna. Hala, mintegiek Seber Altube plazan jarriko dituzte postuak, 08:00etatik 14:00etara. Aurten go azokan sei mintegi hauek parte hartuko dute: Areitio (Zaldibar), Belar (Zaldibar), Natura Baso Mintegia (Arratzua-Ubarrundia), Lurberry (Zarautz), Ekoudalatz (Arrasate), Euskal Herriko Hazien Sarea (Gasteiz) eta Murueta Mintegia (Muruetan).

Denetarik egongo da: fruta-arbolak, koniferoak, basoko landare autoktonoak, lorategiko landareak, eta basoko fruitu txikiak, zigilu ekologikoarekin. Gainera, bi zuhaitz-sorta zozketatuko dituzte erosleek artean.

Bestalde, zuhaitzak landatzeko garaia negua denez, Zuhaitzaren Egunean bueltan egin ohi dute zuhaitz-landatze herrikoia. Aurten, hala ere, otsailean egingo dute, azken lau urteetan moduan, Etxezarretako lur eremu zabalean. Xehetasun guztiak aurrerago emango dituzte.

OHARRAK

Faxismoaren aurka

Gaur, egubakoitza, grafitia margotuko dute gaztetxean, 17:30ean. Bihar, 10:30ean, Aitor Zabaleta dokumental emanaldia eta tertulia izango da, eta 12:00etan, boxeo entrenamendua, *Gaztetxeak faxismoaren aurka* jaian.

San Baleixo jaiak

Hilaren 24an, 25ean eta 26an izango dira, Meatzerrekan.



Etxebizitza alokairuan jarrita, %99ko hobaria

Etxebizitza alokatzeko apustua egiten duten herritarrak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren %99 ordaintzeaz salbuetsita egongo dira Arrasaten 2025ean; hobaria jaso ahal izateko, Bizigune alokairu programaren bitartez alokatu beharko dute etxebizitza

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasateko Udalak 2025ean fiskalitate arloan egin dituen berrikuntzen artean dago etxebizitza hutsak alokairuan jartzea-gatik ezarriko duten hobaria. Hala, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Bizigune alokairu programaren bitartez etxebizitza alokatzeko apustua egiten duten herritarrak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren %99 ordaintzeaz salbuetsita egongo dira aurten Arrasaten. "Etxebizitza hutsak merkaturatzeko eta alokairu publikoa sustatzeko aukera guztiak baliatu nahi ditugu hobari horrekin; izan ere, orain arte, %50ekoa zen, eta, berriki egin den lege aldaketarekin, aldaketa egin dugu", adierazi du Joseba Ezpeletak, Ogasun zinegotziak.

Era berean, Bizigune programaren aldeko apustua egiten dutenek berme juridiko eta ekonomikoak izango dituztela ere adierazi du Ezpeletak, "askotariko abantailez baliatzeko aukerez gain".

EAJ-PNV pozik dago hobari berriarekin, eta argudiatu du merkaturatzearen eskaintza handitzeko eta "familia askok bizi duten presioa" arintzeko "funtsezko tresna" izango dela. "Gure proposamena izan zen, eta, hasiera batean ondo hartu ez zuten arren, positibotzat jotzen dugu negoziazioen ondorioz 2025eko ordenantza fiskalen esparruan sartzea eta indarrean egotea", nabarmendu du Ander Garay udal bozeramaileak. "Elkarrekin lan eginez eta askotariko proposamenak entzunez, arrasatearrei eragiten dieten arazoetarako benetako konponbideetan aurrera egin dezakegun seinale da hau", gaineratu du, baikor.

27 hobari daude jasota

Udalak egunotan etxez etxe banatu duen eskuorrian dago ho-



Arrasateko hainbat etxebizitza, Otorlora Lizentziaduna kaletik aterata. E.A.B.

UDALAK ETXEZ ETXE BANATU DU ASTEON HOBARIEI BURUZKO INFORMAZIOA DUEN ESKUORRIA

rren gaineko informazio guztia, baita bestelako hobari buruzkoa ere. Dokumentu horrek 27 hobari mota jasotzen ditu, iaz baino bi gehiago, lau aplikazio-eremutan banatuta: ondasun higiezinaren gaineko zergak ordaintzeko hobariak, ibilgailuen zergak ordaintzeko hobariak, obren gaineko zergak ordaintzeko hobariak eta komertzio berriak sustatzeko hobariak. Horien artean daude, besteak beste, jasagarritasuna sustatzeko hobariak, komertzio berriak sustatzeko zerga-arintzea, errenta txikia dutenei hobaria kiroldegian edota euskara ikasteko hobariak.

Progresibitatea helburu

Udal Gobernuaren helburua, Ezpeletaren esanetan, progresibitatea ezartzea da. "Gai konplexua denez, lanketa sakona

behar du, eta, bitartean, Udalaren eskumenak diren beste tresna batzuk erabiltzeko apustua egiten jarraituko dugu hobariarekin, horiek baitira progresibitate gerturatzeko tresna eraginkorrenak, gaur-gaurkoz", dio Ezpeletak.

Zerbitzu publikoaren berme

Egutegi fiskalaren berri ere eman du Udalak, eta zergak noiz eta nola ordaindu behar diren azaldu. Hala, "gardentasuna eta informazio osoa" eman nahi die herritarrei. Ezpeletak dioenez, Udalak eskaintzen dituen zerbitzu publikoak komunitarioak dira, eta herritar guztien ekarpenari esker funtzionatzen dute. "Kiroldegia, kirol elkarteei dirulaguntzak, liburutegia, kultur eskaintza, gizarte zerbitzuak, laguntzak, gazteria politikak eta gurasoen trebakuntzarako saiok, ludoteka eta gazte txokoak, haur parkeak, urbanizazioa, argiteria, segurtasuna, ondare historikoa... Herriak funtziona dezan, guztion ekarpena behar du; erakunde publikoena, enpresa pribatuena eta herritarrena. Kontrara, Udalaren paralisian eta kaudimen faltan egongo litzateke".



Aste honetan hasi dituzte lanak. JONE ARRUABARRENA

Uarkapeko boulderra berritzeko lanak asteon abiatu dituzte

Lanak otsailaren 28ra arte iraungo dutela aurreikusten du Udalak, eta instalazioa itxita egongo da ordura arte

E.A.B. ARRASATE

Abian dira Uarkapeko boulderra berritzeko lanak. Mikel San Miguel Kirol zinegotziaren esanetan, "urte askotako mantentze-faltaren ondorioz, egoera txarrean eta zaharkitua" zegoen boulderra; besteak beste, helduleku batzuk solte zeudela azpimarratu du, beste batzuk puskatuta, eta panelatua ere aldatu beharra da goela. "Horrek segurtasun arazoak sortu ditu azken urteetan, eta erabiltzaileen hainbat kexa ere izan dira".

Lanak otsailaren 28ra arte iraungo dute; rokodromoa bir-

moldatzeaz gain, hornitzea eta instalatzea izango da helburua, egungo egitura aprobetxatuz. "Gehiegizko estraplomoak murriztu egingo dira, gunea egokitzeko. Heldulekuei dagokienez, instalatutakoek egitura artifizialektarako UNE-EN 12572-3 Europako araua bete beharko dute, eta marka profesional batekoak izango dira". Esku-heldulekuak, oin-heldulekuak eta zurezko bolumen berriak jarriko dituzte. 47.929,31 euroko aurrekontua du -BEZa barne- eta Urkizu Agirretxe Ioseba eta Beste Bat CB enpresak egingo dituzte lanak.

GORA ETA BEHERA



"Kurtzetxikiko buzoia zaborrez beteta dago"

Herritar bat kexu azaldu da Kurtzetxikiko buzoia zigarrupuntaz beteta egon ohi delako: "Buzoia ez da horretarako, ez da zaborrontzi bat; izan ere, denbora luzea darama buzoiak horrela, eta, gainera, inork ez du garbitzen. Gure mendiak garbi mantendu dituzagun, mesedez".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.





Arrasate Eskubaloi klubeko jokalarien talde-argazkia. ARRASATE ESKUBALOI

Kantxa barruan eta kanpoan, bietan lehiakor

Arrasate Eskubaloi Klubak gogotik lan egin izan du adin txikiko gazteak erakarri, formatu, seniorretara iritsi eta taldeak mantentzeko. Herrian dagoen kirola egiteko askotariko aukerak, gizarteko joerei batuta, zaildu egiten du helburu horiek betetzea

Hasier Larrea Herrero ARRASATE
40 urte baino gehiagoko ibilbidean gazitik eta gozotik probatu du Iturripen egoitza duen klubak. Gaur egun, liga erregularretan jokatzen duten sei talde ditu, infantiletatik seniorretara, baita benjamin eta alebin mailetako eskubaloi eskola ere. "Behetik gorako eskailera" erakitzea da klubaren helburuetako bat, Josu Herrero kirol zuzendariak azaldu duenez: "Kategoria bakoitzean bloke jendetsuak baldin badituzu, taldeak mantentzea errazagoa da adinean aurrera joan ahala, seniorretara heldu arte. Gure kasua ez da hori, baditugu hainbat hutsune, esaterako mutilen gazte mailan, baina gure esku dagoena egiten jarraitzen dugu".

Ezaguna da aisialdi-uneak baliatzen dituztela eskubaloiarrekiko interesa pizteko. "Horrela ezagutarazten dugu gure proiektua, eta, bide batez, beldurrak uxatzera gonbidatu. Izan ere, neska-mutilek, orokorrean,

taldean hartzen dituzte erabakiak". Gabonetako lau txapelketa, udako eta udaberriko campusa, Musakolako jaietako lagunartekoak, Leintz Eskola Kirolarekin duten lankidetzak... Askok dira klubeko kideek euren borondatez sartzen dituzten orduak, eta uztak, "nahi bestekoa ez" izan arren, ematen du fruituren bat edo beste.

Oreka generoan

Hortxe dago, adibidez, nesken presentziak izan duen gorakada nabarmena: "Duela 6-7 urte egin genuen nesken taldeak berreskuratzeko apustua, eta denboraldi honetan mutilen eta nesken hiruna talde dauzkagu; hau da, fitxen erdia dira neskenak. Hor jarraitzen dugu".

ESKUBALOI TALDERIK EZ IZATETIK KLABEKO JOKALARIEN ERDIA IZATERA PASA DIRA, NESKEN KASUAN

ikusten da joera aldaketa bat gertatu dela", aipatu du Herrero. Gaineratu du senior kategorian emakumezkoen ordezkariak lortzea "helburu polita" izatera heldu dela.

Hauspoa, gorantz joateko

Momentuz, gizezkoetan dute talde bakarra maila absolutuan, Gipuzkoako Lehen Lurraldeko Mailan: "Horri bakarrik eskatzen dizkiogu emaitzak, azpiko kategorietan inportanteena balioetan formatzea da eta".

Izan ere, Mugarri Ingou Arrasate izenarekin jokatzen duen taldea lehiakorra da; joan den asteburuan Bergararen aurka nagusituta, arnasa apur bat hartu du, lehen itzuli makurra atzean uzteko lagungarri: "Neurketa asko galdu ditugu puntu bategatik edo bigatik, minutu batzuetan besoak jaistearen ondorioz. Ea bigarren itzuli txukunagoa egiteko gai garen". Lehen koska, bihar, 18:30ean, Iturripen, Egia Koskoren aurka.



Duela aste batzuk jokatutako Eibarko Bolunburu krosean. ARRASATE ATLETIKO

Lasterketetan nabarmentzen jarraitzeko eskaria urte berriari

Arrasate Atletikoko korrikalariak denboraldi distiratsua egiten dabilta, dominak bata bestearen atzetik pilatzen

H.L.H. ARRASATE

Krosetan eta pista barruko abiadura-probetan daude murgilduta Arrasate Atletikoko kideak asteburuotan, oso irudi ona ematen. Joan den asteburuan, Oihan Zuluetak Gipuzkoako 23 urtez azpiko kategorian urrezko bi domina lortu zituen Donostiako belodromoan, 200 metrokoan eta 60 metrokoan, eta asteburu honetan maila absolutukoen txanda izango da.

Bien bitartean, Zumarragako krosean lehiatuko dira infantilak eta alebinak, aurreko asteburuan Ordiziako Txindoki krosean lortutako emaitzak errepikatze gogoz. Izan ere, lehenengo eta bigarren sailkatu ziren Alaitz Berasaluze eta Ane Arrieta alebinak; maila bat gorago ere beste arrasatear bat, Nile Agirretxe, izan zen bizkorrena, eta sasoi betean dagoela erakutsi zuen (Ikus 32. orria).

Horren harira, atletismo eskolako neska-mutillak "gogor datozela" azpimarratu du taldeko presidente Jon Ormaetxeak.

Federatuak ere ez dira atzean geratzekoak. Aipatzeko sarien artean, Seckou Sissokok eta Ane del Fresnok iaz Espainiako txapelketak jokatu izana nabarmentu du Ormaetxeak: "Espainia mailako 32 onenen artean sailkatzea lortu zuten, norbere kategorian; meritu handiko emaitzak dira horiek".

Pista homologatzeko zain

Bestetik, Mojatetik pista berriarekin gazteak "pozik" daukela dio, eta lehenengo pista baino bigunagoa dela azaldu du: "Hala ere, ikusteko dago abiadura edo iraupen lasterkarietarako izango den aproposagoa, homologazio-ziurtagiria jaso arte ezin baitugu probarik antolatu; ea baimen hori laster iristen den".

Ointxe!-ren bi talde nagusiak, ligako postu epeletan

Lehen itzulia bukatzeko azken partidua jokatze bezperan, zortzigarren postuan daude, norbere ligan, Mondragon Unibertsitatearen bai gizezkoen eta bai emakumezkoen taldeak. EBA mailakoek seina garaipen eta porrot pilatu dituzte; LF-2 mailakoek, berriz, garaipen bat gutxiago. Kanpoan jokatuko dute bihar, Bilbon eta Arangurenen.



Joan den asteburuan, Iturripen. I.S.



Itzulera antzezlaneko kideak. DEJABU KONPAINIA

'Itzulera' antzezlanak, aurrenekoz Amaian

'Itzulera' antzezlanaren bira hasteko prest daude Dejabu konpainiako kideak, eta birako bigarren geltokia Amaia antzokia izango da. Domekan izango da emanaldia, 19:30ean hasita, eta sarrerak eskuragarri daude Udalaren webgunean, 10 eurotan

Julen Murua Mesonero ARRASATE Estreinatzeneko prest dagoen *Itzulera* antzezlanak domekan egongo da ikusgai Amaia antzokian, 19:30ean hasita. Dejabu konpainiak zuzenduta, bihar estreinatuko dute antzezlanak, Errenterian, eta Arrasateko bigarren emanaldia izango da. *Itzulera* antzezlanak *road movie* bat dela diote antolatzaileek; hau da, bidaia batean gertatzen dena kontatzen du. Komediazko abentura bat da. Hain justu, konpainia bateko hiru kidek Mexikora eginiko bidaia kontatzen du antzezlanak. Bertan, dokumental bat grabatzen joango dira sorkuntza-krisian dauden kideak, Etxepare Euskal Institutuak emandako dirulaguntza bati esker, eta ezusteko gertakariak bidearen norabidea aldatu, eta gertatzen zaien guztia kontatuko dute antzezlanean. Antolatzaileek jakinarazi duteenez, "zuzenean sortutako film baten moduan eszenaratzen da lana". Hiru antzezle nagusik

hartzen dute parte obran: Aina Gurrutxagak, Miren Alcalak eta Urko Redondok. Eta, haiez gain, David Aguilar zinemagilea ere igoko da Amaia antzokiko oholtzara, zuzeneko irudien sorkuntzaren eta errealizazioaren arduradun.

Prestaketa-lan luzea

Bi urtez aritu dira *Itzulera* antzezlanak prestatzen, Aina Gurrutxaga antzezleak dioenez, antzezlanei "etortzen" uzten dietelako. Prozesuaren erdialdean konturatu ziren "bideoek garrantzi handia" izango zutela, eta horregatik sortu dute "antzerkiaren eta zuzeneko zinemaren arteko lan hibrido bat". Hain justu, hori bera sortzea izan da,

KOMEDIAZKO ABENTURA BATEAN OINARRITUTAKO ISTORIO BAT ANTZEZTUKO DUTE

Gurrutxagaren ustez, izan duten "zailtasun handiena", baina espero du "emaitza ona" izatea.

Itzulera betiko antzezlanetatik ezberdintzen den lan bat dela dio Gurrutxagak; aurretik ere egin den zerbait izan arren, "bisualki ikusgarria eta erakargarria izango den antzezlan bat" dela iritzita, non "irudi oso potenteak sortuko diren eta soinua eta argiak ere funtzio handia izango duten".

Arrasatearrak, gonbidatuta

"Antzezlan bat ez da jaiotzen publikoarekin partekatzen duzun arte". Hori bera dio Gurrutxagak, *Itzulera* antzezlanak estreinatu bezperan. Horrek gogoa piztu du oholta gainean egongo den laukotearengan, baina baita urduritasuna ere. "Lehenengo emanaldiak delikatuak" dira, antzezleak dioenez, baina, era berean, arrasatearrak gonbidatu gura ditu Amaia antzokira: "Uste dut antzezlan hau ez dutela berehala ahaztuko".

Udal Bibliotekako lehiaketako saridunak iragarri dituzte

Eguenean banatu zituzten sariak, Kulturaten, eta antolatzaileek "balorazio positiboa" egin dute

J.M.M. ARRASATE

Udal Bibliotekaren Gabonetako lehiaketak baditu saridunak. Guztira 245 herritarrek hartu dute parte aurtengo edizioan –iaz baino 35 gehiagok–, eta sei pertsonak lortu dute saria. Nagusien kategorian, Itsaso Diego, Itziar Gardoki eta Miren Sagasta izan dira saridunak; haurren kategorian, berriz, Nora Rueda, Eneko Etxebarria eta Libe Calvo. Andoni Arratibel Kultura zinegotzia eta Asun Agiriano Bibliotekako arduraduna izan dira sari-banaketan, eta azken horrek azaldu du lehiaketako galderak prestatzerakoan Arrasateren "aspektu ezberdinak" hartzen dituztela kontuan, hala nola "historia, ondarea, kultura, musika eta abar". Agirianok dio galderekin balio behar dutela "zerbait berria ikasteko", eta Bibliotekak

"erantzunak aurkitzeko liburuak eta bestelako dokumentuak" uzten dituela erabiltzaileen eskura; gaineratu du "asko" direla erantzunak aurkitzeko "liburuetan arakatzeko dutenak".

Ipuin kontaketen tartea

Urtarrileko azkenengo bi eguetan ipuin kontaketa egingo dituzte Udal Bibliotekak: lehenik eta behin, Odei Arregik *Ipuin lotsatiak* izeneko kontaketa egingo du, 4 urtetik gorako haurrentzat, Kulturaten, urtarrilaren 23an, 18:00etan hasita; bestetik, Ana Pikak *Besoetako ipuinak* izeneko kontaketa egingo du, 3 urte bitarteko haurrentzat, Santa Marina auzo-bibliotekan, urtarrilaren 30ean, 18:00etan hasita. Aurrez eman behar da izena, bibliotekaren webgunean (arrasate.eus/biblioteka).

Otsailaren 4an irtegarri dira Santa Ageda abesbatzakoak

Urteroko legez, Arrasateko kaleetan zehar ibiliko dira, kantu-eskean, Santa Ageda abesbatzako kideak. Horren harira, antolatzaileek jakinarazi dute Santa Ageda bezpera eguna martitzena izango denez "ikas-tetxeetara eta aste barruan lanean dabiltzan enpresa eta komertzioetara" ere iritsiko dela abesbatza.

Gazteak eta beterranoak elkarrekin irtegarri diren hirugarren urtea izango da aurtengoa, eta, hori aprobetxatuta, antolatzaileek dei egin diete gainontzeko herritarrei entseguetan parte hartzea animatu daitezen, horrela, Santa Ageda abesbatza osatzen duten pertsonen kopurua geroz eta gehiago handitu dadin. Guztira, hiru entsegu antolatu ditu abesbatzak: urtarrilaren 15ean, 22an eta 29an egingo dira, 19:00etan hasita, JAMEko Gokobaluren lekuan.

Pi LT taldea urtarrileko hirugarren Kooltur kontzertuan

Gernikako Audience taldearen lekukoa hartuko du Pi LT taldeak urtarrileko Kooltur Ostegunak ekimenaren hirugarren kontzertuan. Bi hamarkadaz taldea deseginda egon ostean, berriro ere elkartu eta kontzertu bira bat iragarri dute. Hilaren 23an, eguena, izango da emanaldia, Arrasateko gaztetxean, 22:00etan hasita, zazpi eurotan.

Zeramika ikastaroa egingo dute, Loixe taldeak antolatuta

Zeramika prozesuak hutsetik hasita ezagutzeko edo prozesu horietan sakontzeko balioko du ikastaroak, antolatzaileek jakinarazi dutenez. Otsailaren 4tik martxoaren 27ra egingo dira saioak eta bi maila egongo dira: hastapen maila eta trebatze maila. Informazio gehiago jaso edo izena eman nahi dutenek 685 79 61 27 zenbakira idatzi dezakete.



DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

VITALDENT

Arrasate / Otalora lizentziaduna kalea 1 / 943 06 03 22

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11
43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



Ibarrako Iturrizuri kaleko edukiontzien gunea, martitzen eguerdian. AMAIA TXINTXURRETA

Paper eta kartoien bilketa zerbitzuarekin kezkatuta

2024an, Arabako Foru Aldundiak kudeatzen duen paper-edukiontzien bilketa zerbitzuari hemezortzi erreklamazio bideratu zizkion Aramaioko Udalak. Edukiontzia "topera", herria "oso zikin" eta jendea "arduratuta" dagoela salatu dute

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO Araban, eta ondorioz Aramaion, paperaren eta kartoien edukiontzien bilketa zerbitzua Arabako Foru Aldundiak kudeatzen du, horretarako kontratatuta duen enpresaren bidez. Errefusaren, ontzi arinen eta tamaina handiko hondakinen bilketa, berriz, Gorbeialdeko Kuadrillak kudeatzen du Aramaioren kasuan, eta Grupo Daorje enpresari esleituta daude hondakinen bilketako kontratu guztiak, nahiz eta administrazio kontratatzailea bera ez izan.

Bada, Udalak salatu du enpresa horrek langileekin duen lan-gatazkaren ondorioz Aldundiak kudeatzen duen paperaren eta kartoien bilketa zerbitzuaren kalitatea "oso-oso eskasa" izaten ari dela, eta kontratuaren "ez-betetze ugari" gertatzen ari direla. Hauxe adierazi dute: "Besteak beste, enpresak bete beharreko baldintzetan, ez-betetze ugari gertatzen ari dira, hala nola bil-

keta-maiztasunetan, edukiontzien konponketa eta birjartzeen beharretan, edukiontzien inguruko garbiketetan eta abar".

Egoera horren ondorioak herritarrek jasan behar izaten dituztela gaineratu dute, "edukiontzia gainezka eta kaleak zikin" daudela iritzita, eta aitortu dute "onartezina den puntura" iritsi direla askotan.

Konponbide bila

Horren harira, Aramaioko Udalak "bere esku dagoen guztia" egiten ari dela esan dute: "Gure udalerrian identifikatzen ditugun gertakari guztiei ahalik eta arinen konponbidea eman nahian, gure esku dagoen guztia egiten gabilta. Horretarako, daukagun

EGOERARI KONPONBIDEA EMATEKO LANEAN ARI DELA AZPIMARRATU DU UDALAK

bide bakarria Aldundiari erreklamazioak helaraztea da, era berean, Aldundiak enpresari eskatu diezaion jaso gabeko edukiontzia ahalik eta lasterren jasotzeko". Egoera hori "zoritarrez" Gorbeialdeko eskualdeko osoan "orokorra" dela esan dute, baita Araban ere. Horrek "herritarren sortzen duen haserre, amorru eta etsipenaz jabe gara, eta konponbidea emateko dago kienei etengabe exijitzen ari gara, eta horrela egiten jarraitzeko konpromisoa dauka Aramaioko Udalak", adierazi dute.

Paperaren eta kartoien edukiontzien bilketa zerbitzuari dagokionez, 2024. urtean, Aramaioko Udalak Arabako Foru Aldundiko arduradunekin izandako harremanetarako hainbat bidetarik, hemezortzi erreklamazio helarazi dira edukiontzia jasotzera pasa daitezkeen eskatze-ko, eta, "egoera zuzentzen ez dela ikusita, Aramaioko Udaletik kexa formal bat jartzeko lanean ari gara", azaldu dute.

Idatzi anonimoak agertu dira hainbat informazio-paneletan

Udaletxeko ateak "zabalik" dituztela esan dute gaur egungo eta azken urtetako udal gobernuko ordezkariak

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO Azken asteetan herriko kaleetan eta Udalak kartelak eta informazioa partekatzeke jarritako espazioetan idatzi anonimoak agertu direla salatu dute egungo eta azken urtetako udal gobernuetakoek. "Idatzi horietan herritar anonimo batek edo batzuek, ezin dugu jakin, hainbat idatzi kaleratu ditu edo dituzte udalbatza osatzen dugun gaur egungo eta aurreko legegintzaldietako zinegotzien eta alkateen izen-abizenak azpimarratuz", adierazi dute, eta hau

gaineratu: "Uste dugu ez dela bidezkoa horrelako salaketa gogorak adieraztea gertakizunen irakurketa partzial batetik eta izen-abizenek Udalean lanean ari garen herritarrek seinalatuz, aurrez aurre erantzuteko aukerarik eman gabe".

Hori dela eta, adierazi dute herritarrek "zabalik" dituztela udaletxeko ateak eta hemendik aurrera informazioa partekatzeke espazioetan "inor iraindu dezakeen mezu anonimoren bat agertuko balitz" kendu egingo dela nabarmendu dute.

Zahartzaroko elikadurari buruzko hitzaldia martitzenean

Arabako Foru Aldundiaren +55 Elkartegaiak programaren baitan, urteko lehen saioa izango da

A.T.G. ARAMAIO

55 urte baino gehiago dituztenendako askotariko ekintza soziokulturalak antolatzen ditu Arabako Foru Aldundiak, +55 Elkartegaiak programaren bidez. Aurten, Aramaiok ere hartuko du parte, eta urteko lehen hitzaldia egongo da martitzenean: *Elikadura zahartzaroan eta gaixotasun metaboen prebentzioa*. Kultura etxean izango da, 18:00etan, eta Iker Gomez Garziak egingo du; Biologian graduatua da eta Nutrizio eta Osasun Masterra dauka.

Hori izango da lehenengo hitzaldia, baina 2025ean zehar beste sei egingo dituzte, hilero, ekainean, uztailan eta abuztuan izan ezik.

Otsailaren 19an egingo den saioan, esaterako, ekonomia zirkularrari buruz jardungo du Jorge Gomez hizlariak, eta beste hainbat gai jorratuko dituzte ondorengo hilabeteetako hitzaldietan: Erdi Aroko emakumea, Idiazabalgo gazta, ohitura kaltegarriak aldatzeari buruz hitz egingo dute eta sexualitatea ere izango dute berbagai.

Izen-ematea zabalik jengibre-konpresen erabilera tailerrera

Iturzuri emakume taldeak, Udalaren laguntzarekin batera, jengibre-konpresen erabilera eta automasajeari buruzko tailerra antolatuko du astelehenerako, hilaren 20rako, 17:30ean, jubilatuen egoitzan. Isabel Morenok emango du saioa, eta, azalpen teoriko eta praktikoez gain, horrek eskaintzen dituen onurak ezagutzeko eta jasotzeko aukera izan-

go dela iragarri dute antolatzaileek. Osasunerako hainbat "abantaila" dituztela azpimarratu dute; esaterako, erlaxatzen eta energia berritzen lagundu dezaketela, min kronikoei eta infekzioei aurre egiteko proposak izan daitezkeela, idorreari baldintzak hobetzen lagundu dezaketela...

Aurrez izena eman behar da, 635 73 84 75 zenbakian edo iturzuri@gmail.com-en. Bazkideek 10 euro ordaindu behar dituzte eta gainontzekoek, 15.



Haurrak eta gaztetxoak, joan den domekako patinaje ikastaroan, Maider Unda kiroldegian. OIER KORTABARRIA

53 lagun domeketako patinaje ikastaroan

Guraso Elkarteak antolatuta, 3 eta 12 urte arteko haurrentako eta gaztetxoendako da ikastaroa; lau guraso ere badabilta, eta, guztira, 53 lagunek eman dute izena aurtan. Hain zuzen ere, otsailera bitartean, bost saio egingo dituzte

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO
Joan den domekan hasi eta otsailaren 9ra bitartean, domekero egingo dituzte patinaje ikastaroak, Maider Unda kiroldegian. Guraso Elkarteak antolatzen duen ekimena da; 2016an antolatu zuten lehenengoz, Aramaion bizi den Agustin Oyanguren bergararrak bultzatuta. Izan ere, Oyanguren Ber-

garako Burdinola irristaketa klubeko entrenatzailea da, eta, hark izan zuen ideari tiraka, gaur egun ere Burdinola elkar-tekoak izaten dira Aramaion irakasle lanetan.

Herrian errotutako ikastaroa
Oier Kortabarría da gaur egun Guraso Elkarteko kideetako bat, eta guraso moduan ikasta-

roan ere parte hartzen du. Adierazi du "arrakastatsua" izaten dela urtero: "Aurrez landuta dagoen prozesu bat da eta beti harrera arrakastatsua izaten du; aurtan, 53 parte-hartzailek eman dugu izena". Urte berriarekin batera, urtarrilean eta otsailan egiten dute ikastaroa.

Eta zein da helburua? Patinetan ibiltzen ikastea. Horixe

Eguaztenean egingo dute irteera Lagunkoiakoek

Hilaren 22an, eguaztena, egingo dute Aramaioko Lagunkoiakoek urteko lehenengo irteera. Jubilatuen lokalaren aurrean elkartuko dira, 10:00etan, eta ibilaldi hau egingo dute: Ibarra, Sorgin Zubi, Azkoaga, Zabaldú baserria, Zabola, Azkoaga eta Ibarra. Horren ostean, ibilaldiaren bukaeran, hamaiketako egingo dute, 12:00etan.

Santa eskean irteteko lehen entsegua, hilaren 23an

Otsailaren 1ean, zapatua, aterako dira santa eskean baserriz baserri Aramaion, eta, aurretik, bi entsegu egingo dituzte: lehenengoa, datorren egunean, hilak 23, 19:00etan, musika etxean; eta bigarrena, hilaren 30ean. Dagoeneko agortu dira bazkarirako txartel guztiak, baina entseguetara eta kantura donor joan daiteke.

Bertso saioa, arrakastatsu

Bertso eskolak eta Udalak elkarrekin antolatutako urteko lehen bertso saioa egin zuten kultura etxean, eta herritarrez betetzen aretoa. Bertsotan aritu ziren Alaia Martin, Ane Zuazubiskar, Gorka Pagonabarraga eta Sustrai Colina –Amets Arzallus zen joatekoa, baina haren ordez izan zen Colina–. Bertso eskolakoak "oso gustura" gelditu ziren.

azaldu du Kortabarriak: "Egia da ume guztiak dituztela patinaje etxean, baina, gero, nor ibiltzen da kalean patinekin? Patinetan ibiltzen ikastea da helburua. Azkenean, gauza asko ikasten ditugu. Begiraleek erakusten dizkigute ariketak konoekin, sigi-saga nola egin, nola frenatu, nola ibili atzeraka... Bukarera, hockeyko partidu bat ere egiten da, stick eta guzti, eta helburua doa bideratuta patinetan ondo ibiltzen ikastera, gero hockey partiduak egin ahal izateko".

Hiru gunetan banatuta

Haur Hezkuntzako 3 urteko umeetatik hasi eta Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko hurrei eta gaztetxoei bideratutako ikastaroa da. Gurasoek ere parte har dezakete, eta frontoia hiru gunetan ba-

"Aramaion ume guztiak dakite patinatzen"

AGUSTIN OYANGUREN
IKASTAROAREN BULTZATZAILEA

Agustin Oyanguren Bergarako Burdinola irristaketa klubeko entrenatzailea da, baita Aramaion ikastaroa eskaintzearen bultzatzailea ere.

Nolatan hasi zineten ikastaroarekin?

2016an emana genuen lehenengoz, eta, pandemia urtea kenduta, gainontzeko urteetan egin da. Herrian lantzen genituen irristaketa eta



AGUSTIN OYANGUREN

hockeya asteburu batzuetan, baina Guraso Elkarteak erabaki zuen saio batzuk egitea. Esan dezaket Aramaion ume guztiak dakitela patinatzen.

Zer ematen du irristatzen jakiteak?

Askatasun handia ematen duen kirola da, eta gozamen oso handia da. Eskuak libre dauzkazu, gainera, eta harrapatu egiten du. Ikastaroetan hori irakastea da asmoa, eta saio horietan guztiak ondo pasatzea.

natzen dute, adinka, askotariko ariketak egiten joateko: "Ikastaroan, berez, adin tarte bakoitzeko haurrek eta gaztetxoek ordubeteko edota ordu eta laurdeneko saioak dituzte domekero. Baina egia da goizean joaten garela guztiok frontoira eta 10:30etatik 13:00ak bitartean guztiok ibiltzen garela praktikatzen, hiru gunetan banatuta".

Guztiak "gustura" ibiltzen direla adierazi du Kortabarriak, eta gaineratu du gero irristaketarekin jarraitu nahi dutenek Bergarako klubera bideratzeko aukera izaten dutela.

ADINKA, HIRU GUNETAN BANATUTA, IBILTZEN DIRA IRRISTAKETAN FRONTOIAN



IMANOL SORIANO

Huhezinema Jaialdiaren oihala igotzeko prest

Hamazortzigarrenez dator Euskal Film Laburren Jaialdia, eta urtarrilaren 22tik 24ra bitartean hainbat proiektzio, lan-saio eta solasaldi izango dira Arkupen; hiru sail dituen lehiaketara 94 lan aurkeztu dituzte, guztira, eta horietatik 29 izango dira finalean

Mirari Altube ARETXABALETA

Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazio Graduko ikasleek gertu dute 18. Huhezinema Jaialdia. Urtarrilaren 22tik 24ra bitartean egingo dute, Arkupen, eta lan-saioak, sari-banaketa ekitaldia eta jaia uztartuko dituzte.

Eguaztenean ekingo diote lan-saioari, Ondarroako emakume talde batek 2024ko uztailean Ondarroatik Donostiara egindako zeharkaldia jasotzen duen *Andrak Erramutan* dokumentala ikusita; protagonistak han izango dira, bizipenak partekatzeke. Iluntzean, ostera, Bergara-Antzuolako Lemak taldea igoko da oholtzara; hain zuzen ere, Bideoklip Saileko finaliste-tako bat da.

Egueneko saioan bi hitzaldi izango dira, zinema-zuzendari ibilbidea pauso sendoz ematen dabilzian Aitzol Saratxaga, Jone Arriola, Alba Lozano eta Uxue Botas gazteen eskutik.

94 lan, 29 finalean

Egubakoitzean lehiaketa izango da protagonista. Antolatzaileak pozik daude jasotako lan kopuruarekin, 94 guztira, iaz baino hamahiru gehiago: "Askotariko gaiak landu dituzte eta maila handikoak dira". Lanetatik %61 euskaraz egindakoak izan dira eta %43k emakume zuzendariak dituzte. Aurkeztutakoetatik 29 izango dira finalean, hiru sailetan banatuta: Sail Ofizialean, zortzi; Ikasle Sailean, beste zortzi; eta Bideoklip Sailean, hamahiru. "Kanpoan geratu diren beste lan asko sartuko genituzke, baina ezinezkoa izan da", adierazi du Huhezinemaren programazio lantaldeak.

Irabazleak hautatzeko, adituekin osatu dute epaimahaia; honako hauen eskuetan izango da epaia: Aitor Oñederra –arte eszeniko eta musikaletarako animazioen sortzailea–; Maitane



18. Huhezinema Jaialdiaren antolatzaileak. HUHEZINEMA LANTALDEA

Carballo –soinuan aditua, film muntatzailea eta zuzendaria–; eta Katty Pochelu –iazko Huhezinema saria irabazi zuen film laburraren ekoizlea–.

Era berean, jaialdia aurkezteko aurpegi ezagunak gonbidatu

dituzte: lehen egunean Jon Castañeda abeslari eta kazetariak jardungo du; bigarrenegun, Xuban Garmendia eta Oier Gastesi Ikus-entzunezko ikasleek; eta hirugarrenean, Ana Goitia kazetari eta aktoreak.

Jaialdiaren egitaraua

Urtarrilak 22, eguaztana

- **11:00** *Andrak Erramutan* dokumentalaren emanaldia eta solasaldia protagonistekin.
- **17:00** Bideoklip Sailaren emanaldia; hamahiru finalista.
- **19:45** Kontzertua: Bergara eta Antzuola aldeko Lemak taldea.

Urtarrilak 23, eguena

- **11:00** Eskola magistrala: *Zuzendaritza artean sakontzen*. Aitzol Saratxaga, film-zuzendaria eta musika-konpositorea.
- **16:00** Ikasle Sailaren emanaldia (I); guztira zortzi finalista.
- **17:30** Ikasle Sailaren emanaldia (II).
- **19:00** Solasaldia: *Lehen urratsak zineman*. Jone Arriola, Alba Lozano eta Uxue Botas film-zuzendariak.

Urtarrilak 24, egubakoitza

- **16:00** Sail Ofizialaren emanaldia (I); guztira zortzi finalista.
- **17:30** Sail Ofizialaren emanaldia (II).
- **19:30** Sari-banaketa ekitaldia.
- **20:30** Luntxa.

Arkupe kultur etxean izango dira ekitaldi guztiak.



Arkarazoko bidegurutzeta. ARETXABALETAKO UDALA

Auzoetako bideak garbituta, beste lan batzuk egitea helburu

Konponketa txikiak egiten hasi da Udala, eta asfaltatze-lanak abuztu ingururako aurreikusi dituzte

M.A. ARETXABALETA

Herriko landa-auzoetako "bal-dintzak hobetzeko konpromisoa" hartu zuen Udal Gobernuak, eta dagoeneko hasi direla horretan adierazi dute. Auzo-alkateekin elkartuta lanketa bat egin dute, eta haien proposamenak hartu dituzte abiapuntu. Lan txikietatik hasi eta handiagoei heltzen joatea da asmoa.

Orain arte egindakoen artean daude auzoetako bide bazterrak garbitzea. "Oro, Larrino, Goroeta, Aozaratz, Bolinaga, Arkarazo, Apotzaga-Etxebarri, Galartza eta Isurieta auzoetakoak, batik bat, guztira 10 kilometro. Gainera, konpromisoa hartu nahi du Udalak auzoetako arekak, ahal den heinean, garbi mantentzeko", adierazi dute prentsa-ohar bidez.

Behin horiek eginda beste lan batzuk etorriko dira; adibidez, Galartzako dorrea inguratzen

duen horma konpontzea eta Larrinoko frontoia eta txintxaunak berritzea.

Horiez gain, ur-hartune gehiago jarri gura dituzte auzoetan, suteei aurre egiteko: "Horretarako, suhiltzaileekin lanean ari da Udala; mantentze-lanetan laguntzeko, esaterako". Auzoetako bizilagunei formakuntza ematea ere asmoen artean dute.

Asfaltatze-lanak, abuzturako

Asfaltatze-lanak ere egin gura dituzte: "Oroko Agarre eta Galartzako Etxezuriko bideek asfaltatu beharra daukate. Goroetan, ostera, Errekabitarteko bidea konponduko da". Lan horiek abuztu alderako aurreikusi dituzte. Horiez gain, pista zein oinezkoentzako bideei ere helduko dietela gaineratu dute: "Zuloak konpondu eta beste hainbatetan pistak hormigoitu egingo dira".

2006an jaiotakoak hasi dira Santa Ageda ohitura prestatzen

Urte berria hastearekin batera, 2006an jaiotako neska-mutilak otsailera begira jarri dira, Santa Agedaren bueltako usadioa gogoan. 80 gazte inguru dira, eta dagoeneko hasita daude dantza eta kantu entseguen; egubakoitzetan elkartzen dira, Iturrigorri pilotalekuan, 22:00etan. Aurten, lau egunetan egingo dute dantzan, plazan.

Hiru langile behar ditu Udalak hainbat lanetarako

Eginkizun askotariko bi langile kontratatu nahi ditu Udalak, brigadako lantaldea osatzeko. 2025eko urtarrilaren 28ra arte egongo da zabalik izena emateko epea; *Aretxabaleta.eus* webgunean zehaztu dituzte argibide guztiak. Horretaz gain, Berdintasun teknikari bat hartu gura du; laster zabalduko dute izena emateko epea.



Kanuto, asto gainean, marihuanarekin otzaretan, lehen urtean egindako kalejiran. ARETXAGAZETA

Kanutoren bueltan elkartzeko deia biharko

"Gaiztakeria bat" egin nahian Txiki tabernan elkartzen ziren hainbat lagun burutazioari jarraituta ospatu zuten lehenengoz, orain dela 25 urte; ordukoak gogora ekartzeko, jai eguna antolatu dute eta herritarrak bat egitera gonbidatu dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Eliza Katolikoak urtarrilaren 19a du ezarrita Kanuto Deunaren Eguna, eta Danimarkako zaindaria da. Hego Euskal Herrian, ostera, kalamu-kontsumitzaileek dute zaindaritzat, eta Aretxabaletan 2000. urtean aitzakia horrekin jaia ospatzen hasi ziren. Lehenengo hartatik 25 urte pasatu dira, eta ospatzeko ohitura galdu egin dute bidean; aurren, ordukoak gogora ekartzeko jaiarekin datoz.

Astoaren jabeari salaketa

Antolatzaileek uste dute "hainbat izar lerrokatu" zirela jaia lehenengoz ospatu zen urtean: "Egurraren lantzen zuen herriko artista batek egindako santua zeukaten Txiki tabernan, apal batean. Eta sarri aipatzen zuten egunen batean kalera atera beharko zutela. Hori entzunda, beste lagun bat prest agertu zen belarra, hau da, marihuana, jartzeko. Eta hirugarren batek astoa ekarri zuen. Halaxe, belarra otzaretan

sartuta, kalera irten ziren. Beharbada, ez da konparaketa egokia, baina Maritxu Kajoiren antzeko zerbait egin zen".

"Gaiztakeria bat" egitera zihozela uste izan zuten antolatzaileek, baina, usteen kontrara, marihuanak ez zien arazorik sortu, eta astoak bai: "Animalia batekin errepidea oztopatzea egotzita, astoaren jabeak salaketa bat jaso zuen. Horregatik, hurrengo urtean berriro antolatu behar izan zen jaia, isun hura ordaintzeko. Eta, halaxe, hamar urtean jarraian ospatu zen jaia".

Gero eta indar handiagoa hartzen joan zen, gainera, "babes handia" sumatuta: "Kultur talde askok egin zuten bat gurekin. Marihuana legeztatzearen alde

MARIHUANAK EZ ZIEN ARAZORIK SORTU, BAINA ASTOAK BAI; JABEAK SALAKETA BAT JASO ZUEN

ko eskaera pil-pilean zegoen orduan, Kalamudiaren eta antzeko hainbat elkarteren bitartez, eta gure San Kanuto ospakizunean ere aldarrikapena txertatu zen".

25. urteurrena

Orduko kontuak oroitzeko, ospakizuna antolatu dute biharko, zapatarako, "sekulako jaia" egiteko asmo barik: "Herritarrak, baina, gaiztakeria honetara batzea gurako genuke". Bola-txapelketarekin emango diote hasiera egunari, 11:30ean, eta 15:00etan bazkaltzeko elkartuko dira Taberna Berri jatetxean; 75 bat lagun espero dituzte. 19:00etan izango da Kanutoren omenezko kalejira, eta Orkresta Elektrotuna taldeak girotuko du. Ospakizuna borobiltzeko, Akulu eta Oihu taldeen kontzertuak izango dira Kixkor tabernan, eta DJak Urbaltzen, Izotzen eta Ezkutun.

Antolatzaileek diote lekukoa hartzeko harrobirik ezean zaila izango dela jaiak jarraipena izatea.

Aratusteetako bazkarietarako txartelak, hil amaieran salgai

'Golfo'-koak urtarrilaren 31n erosi ahal izango dira, kuadrillaka, eta kiroldegikoak, otsailaren 1ean

M.A. ARETXABALETA

Martxoaren 2an ospatuko den Aratuste-domekarako prestaketa lanak egiten hasi dira Udala eta Karnabalen Lagunak. Udalak iragarri du azken urteetan legez bi bazkari izango direla: pilotalekukoa, *golfoa*; eta kiroldegikoa. Izena kuadrillaka eman beharko dute batean zein bestean.

Lehenengoak urtarrilaren 31n erosi ahal izango dira, 21 eurotan, Inauterietako lokalean (18:00). Menua honako hau izango da: entsalada mistoa; base-riko oilaskoa parrillan; txerri-saiheskiak parrillan; Ezeizako pasteltxoak; eta ogia, kafea eta edariak.

Bigarrenak, ostera, otsailaren 1ean, Arkupen (09:00) izango dituzte. Helduen menua 26 euro ordaindu beharko da, eta honako hau izango da: pateia; saryola-entsalada; piperrak bakai-

laoz beteta; risottoa; oilasko-izter betea; gazta-flana; ardoa, kafea eta kopa. Umeena, ostera, 13 eurotan, beste hau: makarroiak; hanburgesa; Danonino; ura eta freskagarria.

Kartel lehiaketa, abian

Era berean, egun hori iragarriko duen kartel lehiaketa deitu du Kultura Sailak. Edozeinek parte hartu ahal izango du eta lanak egiteko teknika librea izango da; hori bai, ezingo da adimen artifizialik erabili. Formatu digitalean aurkeztu beharko dira –DIN-A3 neurrikoa–, honako testua honekin: *Aratusteak, Aretxabaleta 2025*. Udaltxera bidal daitezke kartelak, edo helbide honetara: kultura@aretxabaleta.eus. Horretarako azken eguna otsailaren 6a da eta lan irabazlearen egileak 300 euro jasoko ditu.

Ikazkin Trail prestatzeko lehen irteera egingo dute

Laugarren Ikazkin Trail mendi lasterketa jokatu da irailean, eta hura prestatzen hasteko lehen irteera egingo dute bihar; Herriko Plazatik abiatuko dira, 09:30ean, eta bi ibilaldi izango dituzte aukeran: Bedoñara –9 kilometro– edo Mururi buelta –12 kilometro–. Izena alde zurretik ematea komeni da, Ikazkin Trailen sare sozialen bidez.

'Emilia Perez' eta 'Mufasa' filmak izango dira asteburuan

Lau Urrezko Globo jaso berri dituen *Emilia Perez* filma izango dute helduek gaur, 22:00etan (Frantzia, 2024, 132 minutu); zapatuan eta domekan 19:30ean eta astelehenean 16:00etan. Umeek Mufasa lehoi-kumearen istorioa ezagutu ahal izango dute, izen bereko filmean (Ameriketako Estatu Batuak, 2024, 120 minutu), bihar eta etzi, 17:00etan.

Jou Díaz
Karakina

Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Manuel Muñoz kiroldegiko hirugarren solairua, makineria guztia iritsi berri. ESKORIATZAKO UDALA

Kiroldegiko gimnasio berria hornituta, laster egongo da erabilgarri

Gimnasio berria hornitzeko ekipamendua martitzenean iritsi zen Manuel Muñoz kiroldegira, eta aste honetan material guztia jartzen ibili dira hiru eremutan. Espazioak erabiltzaile mota guztiei egokituta daudela nabarmendu du Udalak

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Manuel Muñoz kiroldegiko fitness eta kardio aretoen ekipamendua *leasing* bidez –alokatzete eta eroste sistema mistoa– hornitu, jarri eta mantentze-lanak egiteko kontratazio-proiektua Donostia-ko Argysan, Fitness & Wellness enpresarekin gauzatu du Eskoriatzako Udalak, eta, asteon material guztia Manuel Muñoz kiroldegira iritsita, makineria jartzen aritu dira teknikariak.

Kostata, eremu berria prest

Aurreikusitako baino denbora gehiago iraun duela prozesuak adierazi du Mikel Luengok, Eskoriatzako Udaleko Kirol zinegotziak, baina, aldi berean, "pozik" eta "gogoz" daudela Manuel Muñoz kiroldegiko hirugarren solairu berria ekipatuta ikusteko: "Hirugarren solairuko lanak iaztik eginda daude, bai-

na lizitazioarekin arazoak izan ditugu. Egin beharrekoak atzeratu arren, gune berria prest izango dute herritarrek, eta bertan kalitate handiko ekipamendua izango dugu, kiroldegi batek izan dezakeen erabilera intentsibora egokitua, segurtasun eta eraginkortasun araudi guztiak betez. Makineria modernoa eta egungoa sartuko dugu Manuel Muñozera, hainbat trebetasun-mailatara egokitu daitekeena: hasiberriendako, baina baita maila aurreratuagoa dutenek erabil dezaketen".


MAKINERIA JARRI OSTEAN, DENA GARBITU ETA DATORREN ASTERAKO MARTXAN IZANGO DA

Hiru gunetan banatuta

Gimnasio berria hornitzeko proposamenaren helburua espazioa ondo eta erabiltzaileek eskatutako materialarekin egokitzea dela gaineratu du Mikel Luengok, Eskoriatzako Udaleko Kirol zinegotziak: "Erabiltzaileen eta egin nahi dituzten ariketa moten arabera egongo da gimnasio berria egokituta. Eremu bakoitza ondo mugatuta egongo da, erabiltzaileak alde batetik bestera lasai aritzea ahalbidetzeko, pilaketa saihesteko eta erabilgarri dagoen espazioa maximizatzeko. Hala, hiru eremu izango ditu guneak: lehenengo gunean, indar gidatuko gimnasioa, poleak eta pisu libre lantzeko makineria egongo dira; bigarren gunean, eremu funtzionala lantzeko makineria; eta hirugarren eremuan, aldiz, kardio lantzeko gela".



Lehen gunean, indar gidatuko gimnasioa, poleak eta pisu libre lantzeko makineria.



Bigarren gunean, eremu funtzionala lantzeko makineria.



Hirugarren gunea kardio lantzeko gela izango da. ARGAZKIAK: ARGYSAN



Barre eragin, gizartea desdramatizatzeko

'Bendita locura' antzezlana taularatuko dute, beste behin, Eskoriatzako Ausartak antzerki taldeko kideek. Iaz maiatzean estreinaldi bikoitza egin ostean, berriro antolatuko dute saioa, antzezleen esanetan "orduan ikusi ez zutenek goza dezaten"

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Iaz maiatzean egindako estreinaldi bikoitzaren ostean, aurreneko *Bendita locura* izeneko antzezlanean beste emanaldi bat egitea erabaki dute Eskoriatzako Ausartak antzerki taldeko kideek. Umerezko lana da eta ikuskizuna ikusi nahi duenak sarrera eros dezake alde aurretik, bost eurotan, Manuel Muñoz kiroldegian.

Amaia, Pakita, Kati, Maribi, Mari Carmen eta Mari Jose eskoriatzarrak izango dira Zaldibar antzokiko agertoki gainean herritarrei barre eragiten, eta, horretarako, saiorako prestatu dituzten erokeriak partekatuko dituzte. "Barrea erabiliko dugu gizarteari dramatizazioa kentzeko tresna gisa. Iaz saioa ikusi barik geratu ziren hainbat herritar, eta, gustukoa izanenez, berriro egingo dugu saioa", adierazi du Mari Karmen Fernandezek, Ausartak antzerki taldeko kideak.



Bendita locura antzezlana. I. SORIANO

Umorea oinarri duen taldea

Umorea da Ausartak antzerki taldearen marka ikuskizun guztietan, eta, kasu honetan, *Bendita locura* antzezlana errotuta dauden emakume batzuen inguruko pasadizoak kontatzen

ditu. "Binaka edo taldean egiten ditugun esketzez osatu dugu antzezlana. Erotuta dauden emakume kuadrilla baten pasadizoak dira; asko, zentzurik ez duten gertaerak eta istorioak", azaldu du taldeko kide Mari Karmen Fernandezek.

Trukea oñatiarrekin

Zapatuan Ausartak antzerki taldeko kideek Eskoriatzan egongo duten emanaldiaren ostean, urtarrilaren 25ean Oñatin izango dira, Santa Ana antzokian, 19:00etan. "Trukea egin dugu Oñatiko Ikusi Makusi erretiratuen antzerki taldekoei; hala, hilaren 25ean gu izango gara Oñatin eta otsailaren 2an haiek egingo dute emanaldia Eskoriatzan".

Domekan, Pontx pailazoa

Domeka honetan, bestalde, *Denok plazara!* ikuskizuna izango da Zaldibar antzokian, 17:00etan, Pontx pailazoaren eskutik.

Txerrikumeak taldea izango da gaur Inkernu tabernan

Aretxabaleako Txerrikumeak punk-rock taldeak kontzertua emango du gaur, egubakoitza, 22:00etan, Inkernu tabernan. Ez da lehenengo aldia Aretxabaleako musikariek Inkernu tabernako oholtza zapaltzen dutena, eta, zenbait urteren ostean, berriro izango dira Eskoriatzan. Bide batez, 2025eko Inkernu tabernako emanaldiei hasiera emateko ardura izango dute euren zuzenekoarekin.

Nora heldu 2023an argitaratutako diskoaren kantuak joko dituzte, batez ere, baina gainontzeko diskoetako abestiak ere izango dituzte entzungai bertaraten direnek; baita bertsioren bat edo beste ere.

Udal aurrekontuari alegazioak jartzeko epea ireki dute

Udalbatzak 2024ko abenduaren 19an eginiko osoko bilkuran hasierako onarpena eman zion 2025. urteko udal aurrekontuari. Onartutako aurrekontua jendaurrean dago, nahi duenak aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ditzan. Alegazioak aurkezteko azkeneko eguna urtarrilaren 30a da, eta hasierako onarpena jaso duten aurrekontuak Udaleko Idazkaritza eta Kontu-hartzaile Sailean kontsultatu daitezke. Alegazioak egin nahi dituenak Eskoriatzako Udalaren egoitza elektronikoen bidez aurkez ditzake, ziurtagiri digitala erabilita – Izenpe, B@KQ...–, baita modu presentzian ere, H@ZIn.

Master Laboral Kutxako eskupilota partiduak domekan

Gabonetako etenaldiaren ostean, Emakumeen Binakako Txapelketa Nagusia jokatu zuten Larraitzun, eta asteburu honetan ere jaialdi ezin interesgarriagoa izango da Eskoriatzan. Izan ere, Master Laboral Kutxa emakumezkoen eskuz binakako txapelketako eskupilota partiduak jokatu dituzte domekan, Joseba Iñurrategi pilotalekuan. Eguerdiko hamabietan hasiko dira partiduak, eta honako hauek izango dira: alde batetik, Exegarai eta Arri Illaga, Arraizaren eta Gaminderen kontra; eta, horren ondoren, Uriarte eta Capellan bikoteak Salsamendi eta Erasun izango ditu aurkari.



Leintz Gatzagako San Migel plaza, eta udaletxea alboan. I. BELOKI

Udal zergek %2,5eko igoera izango dute, orokorrean

Ordenantza fiskalak onartu dituzte Leintz Gatzagako Hautesle Elkarteko udalbatza osatzen duten kideek

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

2025eko ordenantza fiskalaren igoera onartu du Leintz Gatzagako Udalak osoko bilkuran, urteko KPIari erantzunez. Hautesle Elkarteko kideek 2025erako tasen eta prezio publikoen proposamena osatu eta proposamena osoko bilkuran aho batez onartuta, 2025eko zergak eta tasak arautuko dituzten ordenantza fiskalen igoera orokorra %2,5ekoa izango da.

Zabor-tasak, %18,29ko igoera

Ordenantza fiskalen igoeran aipamarratzekoa da hondakinen

tasaren igoera; izan ere, hark izango du igoera handiena: %18,29koa. "Ur-tasaren igoera ez du Udalak zehazten, Ur Kontsortzioak erabakitzen du, eta saneamenduaren tasekin gauza bera gertatzen da. Gainontzekoei dagokienez, ondasun higiezinaren gaineko zergek, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergek... %2,5eko igoera izango dute", gaineratu du Dorleta Elkorobarrutiak, Gatzagako alkateak. Etxebizitza hutsei dagokienez, bestalde, Leintz Gatzagan ez dela errekar gurik izango nabarmendu du.

GORA ETA BEHERA



Errepidea, zuloz, zartaduraz eta arrakalaz beteta

Arlabango errepideko lanak, "antza, amaitu dituzte", baina "konponketak amaitu barik" daudela adierazi du herritar batek. Egindakoak "ondo" dauden arren, "egitekoak" daudela esan du.



Eguazteneko aurkezpen-ekitaldian batu ziren erakundeetako eta eragileetako ordezkariak, Laboratorium museoaren aurrean. I.A.

Laboratorium museoa: 10 urtez gizartea zientziaren unibertsoan murgiltzen

Urtarrilean hasi eta abendura bitartean, '10 urte zientziari atek zabaltzen' lelopean ospatuko du Laboratorium museoa hamargarren urteurrena, erakusketa, bisita gidatu eta bestelako aurkezpenekin; gainera, irudi berria du Bergarako museoak

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Bergarako Laboratorium museoak 10 urte beteko ditu aurtentzen, eta, urteurrena ospatzeko, ekitaldiz betetako egitaraua antolatu dute, hilabete honetan hasi eta abendura bitartean; besteak beste, bisita gidatuak, erakusketa bereziak, tailerrak, mahai-inguruak, aurkezpenak, hezkuntza eskaintza berria, udako eskaintza, musika, dantza eta hitzaldiak egingo dituzte.

10 urte zientziari atek zabaltzen leloa aukeratu dute urteurrenerako, hamar urtez gizarteari nahiz bisitariei "zientziaren unibertsoa atek parez pare" zabaldu dizkietelako, eta horretan jarraituko dutela berretsi zuen eguaztenez Laboratoriumen egin zuten aurkezpen-ekitaldian museoeko zuzendari Rosa Errazkinek. Gainera, hamar urte horien balorazio positiboa

egin zuen; esan zuen pixkanaka-pixkanaka jendea gerturatu zaiela, gizartean murgiltzea lortzen eta indarra hartzen hasi direla urteurrenean.

Bergarako alkate Gorka Artolak gogora ekarri zuen Laboratorium museoa aurrera ateratzeko aurreko urte guztietan egin zen lana: "10 urte dira zabaldu zela, baina horren atzetik sekulako lana eta esfortzua egon da. Zabaldu baino 23 urte lehenago hasi zen proiektua da, eta 23 urte horietan eta 10 urte hauetan dena posible egin duen jendea eskertu nahi dut".

'LABORATORIUM SEKRETUA' ATARI DIGITALEAN MUSEOKO INSTRUMENTUAK EZAGUTU DAITEZKE

Bi berrikuntza

Urteurrenak berrikuntzak ere ekarri ditu: batetik, irudi berria, zientzia eta gizarteratzea uztartuta, museoaren oinarriak direnak; bestetik, *Laboratorium sekretua* atari digitala: *laboratorium-sekretua.eus*. Museoan bertan aurkitu daitezkeen fisika eta kimika instrumentuei buruzko plataforma da. Erabiltzaileak zientziaren historiara gerturatuko dituzte jolasen bidez.

"Plataforma digitala da. Zientziako hamabi instrumentu daude, eta Bergaran jasotzen diren altxorren funtzionamendua ikusi daiteke, eta horien inguruko informazio jaso. Jolas moduan planteatzen da, motibazioa indartzeko", zioen Errazkinek.

Datozen ekintzak

Esan bezala, ekitaldiak antolatu dituzte urte osorako hain-

bat erakunde eta eragilerekin elkarlanean, eta lehendabizikoa bihar bertan egingo dute, 11:30ean, Laboratoriumen. Transgenikoen tailerra izango da, publiko guztiei zuzenduta, eta partaideek EHUko Kimika Fakultateko ikerlariak izango dituzte bidelagun, transgenikoei buruz gehiago ikasteko.

Laboratoriumeko zuzendariaren esanetan, "ohiko jarduera didaktikoa" izango da: "Mikroskopio berezia ekartzen dute Alemaniatik, baina pentsatu genuen hamargarren urteurrenean publiko guztia zabaltzea. Zaleak badaude, betiere, gai horietan, eta trans-

PUBLIKO GUZTIEI ZUZENDUTAKO TRANSGENIKOEN TAILERRA EGINGO DUTE BIHAR, 11:30EAN

genikoen bueltako tailer praktikoa izango da".

Horren osterako, adimen artifizialaren gaineko mahai-ingurua, emakume zientzialariekin lotutako jardulduaren erakusketa iraunkorra antolatu dituzte. Wolframak ere izango du lekua egitarauan, baina datozen hilabeteetan jakinaraziko dutela aurreratu dute.

Elkarlanaren emaitza

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak, EHUko Kimika Fakultatea, DIPIC, UNED Bergara, Miguel Altuna Lanbide Heziketa, EHUko Ilustrazio Zientifikoa eta Emakumeak Zientzian egitasmoa ditu bidelagun Laboratoriumek. Hala, EHUko Kimika Fakultatea 50. urteurrena ari da ospatzen, eta hainbat ekintza Bergaran egingo dituzte.

"Laboratorium museoa Euskal Herriko zientziaren sorlekua da"

ROSA ERRAZKIN LABORATORIUM MUSEOKO ZUZENDARIA

Laboratorium museoaren hamargarren urteurrenaren harira, Rosa Errazkin (Hondarribia, 1968) elkarrizketatu du Goiena telebistak, *Berbagai* saioan.

Nola definituko zenuke Laboratorium museoa?

Euskaltzaleatasuna eta unibertsaltasuna, ekintzailtza eta ezagutza, eraginkortasuna, gizartegintza eta jakin-mina, aurrerabidea. Euskal Herriko zientziaren sorlekua, eta ondarea bildu, zaindu, elkartu eta ezagutzera ematen duen erakunde da, bertan egondako zientziaren lekukoekin, zientzia instrumentuekin...

Zer-nolako garapena izan duzue hamarkada honetan?

Esango nuke 10 urtez gizarteari eta bisitariei zientziaren unibertsoa atek zabaltzen egon garela, zientzia gizartera gerturatzen, baina gizartea zientzian murgiltzen ere bai.

10 urte hauetan zenbat bisitari jaso dituzue?

Askotariko publikoa daukagu. Ikastetxeetakoak, baina baita publiko orokorra ere. Eta adituak ere bai. Euskal Herri osoko ikastetxeak etortzen dira jarduerak jasotzera. Publiko orokorrari dagokionez, jubilatuek, atzerriko zaleak eta familiak daude.

Hainbat erakunde, elkarte eta egitasmo dituzue bidelagun.

Museoa elkarlan handiaren emaitza da hasieratik. XVIII. mende amaieran hala izan zen eta guk ere horretan sinesten dugu. Elkarlanak ditugu Euskal Herrian, Europan zein Estatuan.

2018ko gune historiko izendapenak nola eragin du?

Guretzat oso garrantzitsua izan zen, baina ez diogu etekinik atera. Estatuan hiru besterik ez gara eta Frantzian beste bi edo hiru dira.

Zer egin beharko litzateke etekina ateratzeko?

Nire ustez, ezagutzera eman beharko litzateke, eta aitortzaren azalpena egin. Europan oso ondo ulertzen dute, eta Europako proiektuetan hori azaltzen dugunean berehala ulertzen dute.



I.A.A.

Museoa eta artxiboa indartzeko diru-bilketa

Olaso Dorrea Fundazioak Euskal Herrigintza Laborategia indartzea eta museoa eta bertako artxiboa gorpuztea du helburu, eta asmoak lortzeko funtsak biltzeko, ekarpenak egiteko "aukera zabala" ematen duen kanpaina jarri dute martxan

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

2024ko abenduaren 1ean bete ziren 120 urte Telesforo Monzon jaio zela, eta, jaiotzaren urteurrenaren bueltan, Olaso Dorrea Fundazioak diru-iturri eta dohaintza bilketa kanpaina jarri du martxan, Euskal Herrigintza Laborategia indartzeko eta museoa eta bertako artxiboa gorpuzteko. Funtsak biltzeko kanpaina pertsona fisikoei eta juridikoei zuzenduta dago, eta laguntzeko "aukera zabala" dute laurreratu du Fundazioak; baita dagoeneko dozena bat enpresa animatu direla ere.

Babesletza aukerak

Pertsona fisikoei zuzenduta, *ohorezko babesle* dohaintza berri egin dute, proiektuari bultzada eta edukia emateko helburuarekin. Bost urterako izango da -Monzonen jaiotzaren 125. urteurrena arte iraungo du-, urtean 300 euro ordainduta. Urteko dohaintza behin bakarrik edo zatika ordaindu ahal izango da, eta eskubide hauek izango ditu kide horrek: lau lagunendako bisita gidatua dorretxera, Fundazioaren jardura jasotzen duen buletina eta Fundazioak hainbat editorialekin lankidetzan argitaratzen duen liburuetakako bat. *Babesle arrunta* ere izan daiteke, urtean 100 euro ordainduta.

Enpresen kasuan, berriz, *babesle arrunta*, *zilarrezko babesle* eta *urrezko babesle* mailakatu dituzte. Kategoria bakoitzak prezio eta onura ezberdinak ditu. Xehetasun guztiak Olaso Dorrea Fundazioaren webgunean daude jasota.

Azaldu dute egindako dohaintza horiek zerga-kenkari modura aitortu daitezkeela errenta aitortuarekin. Dohaintza edo bestelako lankidetzaren formalizatzeko interesdunek *olasodorrea.eus/babesletzak* atarira jo behar dute; bestela, *fundazioa@olaso-*



Olaso Dorrea eraikina. GOIENA

dorrea.eus helbide elektronikora idatzi edo 638 12 16 75 telefono-zenbakira deitu.

Fundazioa berritzeko lanean

Duela bost urte hasi zen Olaso Dorrea Fundazioa berritzeko prozesua, eta ordutik hona hainbat ekimen bultzatu ditu Fundazioak; besteak beste, Bergarako Udalarekin batera dorretxera bisita gidatuak egitea eta Monzon-Ganuza Euskal Utopikoei saria sortzea.

Iaz izendatu zuen Eusko Jaur-laritzak Olaso Dorrea museo,

eta, Fundazioaren esanetan, horrek aukera ematen die "ondare historikoak herrialdeari egiten dion ekarpena indartzeko".

Fundaziokoek azaldu dute Monzonen jaiotzaren 120. urteurrenaren harira "artxiboaren eta bestelako artxiboaren ustiapenaren lan-ildo" martxan dagoela, eta, besteak beste, Joseba Sarrionandiaren laguntza daukatela horretarako. Aurten hiru lan argitaratzea espero dute, eta, neguan egin duten bezala, udaberriko programazioari mar txoan helduko diote.



NIRE USTEZ

JOANES PLAZAOLA

Faxismoaren eta gerraren aurka

Normalizatzen ari gara subjektu zapalduen aurkako diskurtsoak, langileon eskubide politikoak beheranzko etengabea daude eta langileriaren bizi-baldintzak okertzen ari dira. Euskal Herrian ere ikus daitezke adibideak: faxista talde batek hainbat gaztetxeri eraso egin die, kaleak propagandaz betetzen ari dira eta sareetan pertsonaia eta diskurtso erreazionarioen zabalpena etengabea da. Hori gutxi balitz, Europak gerran du fokua, eta baldintzak jartzen ari dira beraien interesen alde sakrifika gaitzen. Alderdi guztiek onartuta, aurrekontu militarrek etengabe handitu dituzte, eta badirudi derrigorrezko soldaduska ere geroz eta gertuago dagoela. Miseriara kondenatu nahi gaituzte, miseriaren errua guri botatzen diguten bitartean. Horren aurrean, langileoi beharrezkoa zaigu diskurtso faxistei eta neurri belizistei aurre egitea. Oligarkiaren eta erreformismoaren agenda belizistari gure ezezkoa emateko, joera erreazionarioen gorakadan ardura daukatenak seinaltatzeko eta milaka gazte langile faxismoari aurre egiteko prest gaudela adierazteko, urtarriaren 25ean Bilboko kaleak hartuko ditugu.

Eman daiteke izena ostalarien oinarrizko euskara ikastaroan

Bergarako Udalak, Jardun Euskara Elkarteak eta Bergarako Udal Euskaltegiak 60 orduko oinarrizko ikastaroa antolatuta dute, ostalariei eta ostalaritzan lan egiteko interesa dutenei zuzenduta. Saiotzen ostalaritzari lotutako gaiak eta hiztegia landuko dituzte. Ikastaroaren helburua da Euskaraldiaren hurrengo edizioari begira ostalariak *belarriprest* rolera gerturatzea. Eskolak martitzetan 09.30etik 11.00etara eta eguenetan 11.15etik 12.45era izango dira, Udal Euskaltegian. Prezioa 36 euro da. Izena emateko: Oxirondo plaza 2, 1. solairuan; 943 76 36 61 / 605 71 24 69; edo *jardun@topagunea.eus*.

OHARRAK

Odol-ematea

Odol-ateratzea egingo dute hilaren 22an San Joxepen. Hitzordua hartzeko: *gotatanta.eus* edo 943 00 78 84.

Hitzaldia: eolikoak

Zertarako zentral eolikoa Basalgon? hitzaldia egingo du EHUKo ikertzaile eta Energia Ingeniaritzako irakasle Alvaro Camposek hilaren 21ean, Irizar jauregian, 18:30ean, Kukubasok antolatuta.

Aurkezpena

Bergarako Udalak Kirolaren Plan Estrategikoa aurkeztuko du urtarriaren 22an, 18:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

Enpresa Registrada N°09/625

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



2024-2025eko denboraldiko Bergara Igeri Elkarteko familia-argazkia, Agorrosin kiroldegiko barruko igerilekuan; 130 igerilari dira; inoizko kopuru handiena. BERGARA IGERI ELKARTEA

Inoizko igerilari familia ugariena

Bergara Igeri Elkartea sasoi oso onean dago: 130 igerilari dituzte, Ane Alberdi Madrilen izan zen 2024ko azaroan Espainiako txapelketa absolutuan eta beteranoentzat master taldea sortu dute. Hurrengo geltokia, otsailaren 1eko eta 2ko Gipuzkoako txapelketa

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2024-2025eko denboraldia berezia ari da izaten Bergara Igeri Elkartearentzat. 130 igerilari dira gaur egun taldean, orain arteko kopururik handiena. Astelehene- egubakoitzerako arratsaldeetan Agorrosin kiroldegi barruko igerilekua bisitatzea besterik ez dago nolako mugimendua dagoen ikusteko.

Halako igerilari kopuru bat izatera ez da kasualitatez helden, eta taldeko entrenatzaile Asier Perezek hiru faktore nabarmendu ditu horretarako: "Lehen arrazoia eguneroko lana da; bigarrena, konpromiso handia dagoela igerilarien eta entrenatzaileen partetik; eta hirugarren faktore garrantzitsua da elkarte barruan dugun talde-giro ederra. Uste dugu hiru motibo horiei esker taldea handitzen joan dela, poliki-poliki, aurtengo denboraldian dugun 130 igerilarien kopurura heltzeko". Benjamin, alebin, junior eta, aurtun lehen aldiz, master mailako taldeak dituzte. Master taldea sortu dute igerilari beteranoei begira, eta, horrez gain, inoiz baino babesle gehiago

dituzte: "Babesle berriak gerturatu izana ere bada lana ondo egiten ari garen seinale. Halako laguntza eta babesla lortzea ez da egun batetik bestera lortzen".

Ane Alberdiren etorkizun oparoa Eguneroko lanaren, konpromisoaren eta giro onaren ondorio ere badira orain arteko lorpenak. Eta, lorpen horien artean, bat azpimarratu du Perezek: "2024ko azaroan Madrilen egon ginen, Espainiako txapelketa absolutuan, Ane Alberdirekin. Lehen aldia da gure igerilari bat maila horretan lehiatzen helden dena, eta hori oso pozgarria izan da denontzat".

Protagonistak, Ane Alberdik (Bergara, 2008), Espainiako maila absolutuko txapelketan ez zituen bereziki denbora onak egin, baina esperientzia moduan nekez ahaztuko du azaroan Ma-

EGUNEROKO LANA, KONPROMISOA ETA GIRO ONA DIRA NAGUSI ELKARTEAN, AZALDU DUTENEZ

drilen bizi izandakoa: "Esperientzia berria eta ezberdina izan zen niretzat, lehen aldiz lehiatzen nintzelako Espainiako absolutuan. Igerilari gehienak ni baino askoz nagusiagoak ziren eta maila oso handia zegoen. Nire denborak ez ziren onenak izan, ez nengoelako sasoirik onenean, baina esperientzia moduan ederra izan zen. Ikasteko balio izan zidan, zalantza barik".

Gipuzkoako txapelketara begira Orain arte egindakoaz pozik, aurrera begiratzeko ordua da orain. Hurrengo geltokia otsailaren 1eko eta 2ko asteburuan izango dute, Agorrosinen bertan jokatu den Gipuzkoako txapelketan. Taldeko igerilari bakoitzak bere markak hobetzea izango da helburua, Euskal Herriko eta, ahalik balitz, Espainiako txapelketarako sailkatzeko. Ane Alberdik, behintzat, oso argi dauka zer lortu nahi duen Gipuzkoakoan: "Crawl eta bizkar-igeriketa modalitateetako 100 metrokoan Espainiarako gutxieneko marka lortzea da nire helburu nagusia; 50 metrokoan badaukat gutxieneko mar-



Gipuzkoako Open Masterreko talde-argazkia; tartean, zenbait bergarar. B.I.E.

Beteranoen taldea sortu dute aurtun

2024-2025eko denboraldiko nobedadeetako bat da aurtun master taldea sortu dutela beteranoei begira. Garai batean igerilari izan zirenekin edo bere garaian federatu gabe egon arren igeri egin nahi dutenekin osatu dute taldea. Honela azaldu du talde beteranoaren sorrera Josu Morrased, Asier Perezekin batera entrenatzaile lanetan diharduenak: "20 urte betetzen dituztenean, askok elkarte uzten dute, eta, horri buelta ematen saiatzeko, master taldea sortzea lortu dugu aurtun. Igeriketa kirol indibiduala da, baina asko eskertzen da taldean entrenatzea". Master taldeko igerilari batzuk hasi dira lehiatzen. Adibidez, Gipuzkoako Open Master txapelketan izan ziren zenbait bergarar, Eibar, Azkoitia, Lasarte, Donostia, Ordizia eta Getxoko igerilariekin batera; Kepa Irizar Bergarako igerilari beteranoa bigarren izan zen.

ka hiru modalitateetan. Ea lortzen dudana...". Bergara Igeri Elkartearen ardura izango da otsailaren 1eko eta 2ko asteburuko Gipuzkoako txapelketa antolatzea. "Kronometratzera igerilarien gurasoak etorriko dira", dio Perezek.

OTSAILEKO LEHEN ASTEBURUAN IZANGO DA GIPUZKOAKO TXAPELKETA, AGORROSINEN

Bestalde, Udalarik eskertuta dago Perez horrenbeste igerilari izanda entrenamendu-erako kale nahikoa izaten dituztelako igerilekuan, astelehene- egubakoitzera arteko arratsaldeetan. "Egia da indarra lantzeko egubakoitz arratsaldeetan gela bat uzten digutela, eta nahiago genuke gela hori egun gehiagotan izan; alegia, aste barruan gimnasioa erabiltzailez lepo egoten da egun osoan, eta gure igerilari-ekin lehen edo azken orduan joan behar izaten dute", gaineratu du.

Patxadatik sortutako artelanak, urtea hasteko

Ohitura denez, herriko tailugileen erakusketarekin hasi dute urtea Aroztegin. 40 bat lan daude ikusgai, hamasei tailugilek egindakoak; domekara arte egongo da zabalik, hilak 19. Ondoren, herriko buztinzaleek egindako artelanek hartuko dute lekukoa

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Ohitura denez, urte berriarekin batera Bergarako Taila Elkartearen erakusketa ikusgai dago Aroztegin. Urtarrilaren 10ean ireki zuten eta domekara arte egongo da zabalik, hilak 19.

Hamasei tailugileren 40 lan inguru daude. "Tailu-lanak dira, gehienbat, egurrean egiten dena. Bergaran 30 urte daroatza elkar-teak lanean, eta askotariko lanak daude; asko eboluzionatu du azken urteetan", dio elkarteko kide Iñaki Osak. Haren hitzetan, lehenago, argizaiolak eta kutzak izaten ziren, besteak beste, lan ohikoenetako batzuk, baina, egun, "beste mota batekoak" dira: "Tai-



Taila Elkarteko tailugile batzuk Aroztegin, irekiera egunean. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

lua badago, baina baita eskultura ere, adibidez". Lanen artean makilak izan dira aurtengo nobedade nagusia: "Badakigu jende askok dituela eginak, euren lanetako bat izan dela makila horiek lantzea, baina sekula ez dira aurkeztu; makilok ekartzeko eskatu genien, asko baitira bikainak. Harrera ona izan dute".

Autodidaktak, ia erabat

Lanok egiteko maisu batekin hasi ziren elkarteko kide gehienak, Osaren arabera: "Hil egin zen, eta orain, hasiberriek elkarteko beste tutore edo maisu bat izaten dute alboan, lehenengo pausoak eman ditzaten, diseinuari eta egur motari dagokionez, besteak beste. Behin hori eginda, aholkutzoren bat-edo tarteko, autodidakta da guztiz gutako bakoitza".

Buztinzaleak datoz ondoren

Tailugileen ostean, Buztinzale Elkartekoen zeramika lanak egongo dira ikusgai Aroztegin. Bigarren erakusketa hori urtarrilaren 24tik otsailaren 2ra arte egongo da zabalik, Aroztegi aretoko ohiko ordutegian.

Bandaren kontzertua domekan San Pedro elizan (12:30)

Bandak San Pedro elizan joko du domekan, 12:30ean hasita. Hotza dela eta, ondo jantzita joatea gomendatu diete ikusleei; hala, kontzertu motza izango da, ordubetera helduko ez dena. Sei pieza joko dituzte; tartean, Urretxindorrek taldearen abesti baten moldaketa. Hurrengo, Aratusteetako kontzertua, frontoian izango da, ohiko lekuan.

Neguko literatura solasaldietan lehen, hilaren 22an (18:30)

Jardunek eta Udalak udal liburutegiaren laguntzarekin antolatuta, urtarrilaren 22an egingo dute neguko literatura solasaldietako lehen saioa. Mikel Antza dinamizatzaile dela, *Ni ez naiz Mikel Laboa* komiki-liburua izango dute berba. Irizar jauregian izango da, 18:30ean; izena eman daiteke udal liburutegian edo Jardunen.



MARIAREN LAGUNDIA
IKASTOLA

Informazio bilera

otsailak 6 → 18:00

Ate irekiak

Baso eskola
Esztigunea
Haurtzaindegia

otsailak 8 → 10:30-13:00

otsailak 11 → 16:30-19:00

Bisita personalizatuak

Urte osoan zehar



mariaren_lagundia_ikastola



Mariaren Lagundia Ikastola



AURREMATRIKULAZIOA

OTSAILAREN 3TIK 14RA

Bidelagun izateko aukera, dolu perinatale gogoan

Esku Hutsik elkarteak helburu du dolu perinatalean dauden gurasoei laguntzeko sare bat sortzea, aurrez bizi izan dutenekin osatua, eta, horretarako, formakuntza ematen dihardu: Antzuolan izango da saio bat datorren astean, eta zabalik da izen-ematea

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Dolu perinatalean dauden edo egon daitezkeen gurasoen alboan egon eta bidelagun izateko helburuarekin, amabitxi eta aita-bitxi izateko formakuntza martxan du Esku Hutsik elkarteak, eta Antzuolan izango da urtarrilaren 26an, domeka, 10:00etatik 14:00etara, Olan kultur etxean. "Helburua da dolu perinatal batetik pasatuta gauden amok eta aitak egoera horren bueltan apur bat formatzea, doluan egon daitezkeen gurasoei pista, baliabide eta helduleku batzuk emateko; izan ere, zurrubilo horretan egonda, zaila izaten da bidea zein den ikustea", adierazi du Kristina Pavo antzuolarrak. Haren hitzetan, norberak egin behar du bidea, eta, ziur aski, laguntza profesionala beharko da prozesu horretan, baina egoera uler dezakeen beste pertsona bat alboan izatea ez dago soberan: "Hor, batik bat, entzun ere egin behar da, asko entzun".

Nereida Barrikarte izango da formakuntzaren dinamizatzailea, doluan dagoen ama eta psikologo perinatale. "Guk, azkenean, hortik pasatu garenok, esperientzia pertsonala dugu, baina hark hori, nolabait, teorizatu egiten du: bizipenak konpartitzen ditugu, baina, era berean, gertatu zaigun hori ulertzen dugu, besteei lagundu ahal izateko: sentipenak, minak, hartu beharreko erabakiak zeintzuk izan daitezkeen, zerk laguntzen duen eta zerk ez...". Hori ahalbideratzeko, ordea, nabarmendu du ez dela komeni taldea oso handia izatea: "Espazioa segurua eta eroso izan dadin, konfiantzazkoa".

Hartzailea, zehatza

Formakuntza, horrenbestez, ez dago edozein herritarri zuzenduta, baizik eta dolu perinatalean izan diren gurasoei. Aldi

honetan, gainera, bada berri-tasun bat: "Orain arte, amabitxi tailerra bakarrik egin izan da, amoi zuzenduta zegoena; hala ere, Antzuolan egiteko proposamena iritsi zitzaigunean, gai honen bueltan gabiltzanon artean elkarrizketa bat sortu zen ea zergatik ez zabaldu aitei, eurak ere hor daudelako eta euren dolu propioa dutelako; horrenbestez, lehen aldia da aitak ere saioan izango direna, eta badakigu, gainera, baten batek izena emana duela".

Han-hemenka emandako formakuntza horien bitartez, Pavoren hitzetan, Esku Hutsik elkarteak helburu du Euskal Herriko hainbat zonatan amabitxi eta aitabitxi sareak sortzea –kasu honetan, Debagoienean–, dolu perinatalean egon daitezkeen pertsona, familia edo ingurukoek laguntza behar izanez gero bidelagunak izan ditzaten.

FORMAKUNTZA DOLU PERINATALA BIZI IZAN DUTEN AMEI ETA AITEI ZUZENDUTA DAGO, EZ DA EDOZEINI IREKIA



Esku Hutsik elkarteak egindako formakuntza bat. ESKU HUTSIK

"Bailaran, zorionez, baditugu profesionalak gai hori ezagutzen dutenak eta profesionalki laguntza emateko prest daudenak; eta modu informalean ere egin izan dugu lan hori aspalditik. Edozelan ere, Esku Hutsik elkartearen proposamenak ematen digu aukera modu antolatuagoan saretzekoa, eraginkorragoa izan daitekeelakoan: familia bat elkartera etorritakoan, inguruko amabitxiak eta aitabitxiak aktibatu egingo dira, eurekin harremanetan jarri nahi izanez gero". Are gehiago, erantsi du gerora luzaroan mantentzen direla harreman horiek, "denboran iraun" egiten dutela.

Izen-ematea

Bizipen-formakuntzak seigarren aldia izango du datorren astean Antzuolan, eta, parte hartu nahi izanez gero, jakinarazi dute halabeharrezkoa dela aurretiatzko izen-ematea. Hain zuzen ere, zortzi pertsonako taldea osatu nahi dute; hala, interesa izanez gero, mezu bat bidali behar da eskuhutsik@gmail.com helbide elektronikora, eguna baino lehen.



Ibai eta Ekain Larrea, urtarrilaren 12an, Ordizian. LARREA ANAIK

Ibai eta Ekain Larrea, Euskadiko Kros Txapelketan lehenengoak

Hilaren 12an jokatu zen, Ordizian, eta sentsazio "oso onak" izan zituzten; Espainiakorako sailkatu dira

A.R.K. ANTZUOLA

Euskadiko Kros Txapelketan antzuolarrak izan dira garaile aurten; bai, behintzat, gizonezko absolutuetan. Ibai Larreak –Goierrri Garaia klubean dihardu– eskuratu zuen lehendabiziko postua, 31 minutu eta 24 segundoko markarekin, eta ondoren sartu zen Ekain Larrea –Real Sociedad taldean dabil– anaia, 31 minutu eta 32 segundorekin.

Belauneko lesio baten ondorioz lau hilabetez geldu egon ondoren, bigarren lasterketa izan zuen Ibaik: "San Silvestre proba egin nuen Gabonetan, eta oso ondo sentitu nintzen; ez nuen batere minik sentitu, eta sentsazioz oso ondo aritu nintzen. Hala, pentsatu nuen federatutako lasterketak hastea, eta kros hau izan da lehendabizikoa". Beldur zen lesioaren ondoren ez ote zen horren prestatuta egongo horrelako lehia baterako, Euskadiko Kros Txapelketa baterako, lau hilabeteotan ez duelako lehia-tzerik izan eta horrek "kalitatean" eragiten duelako: "Kezka horrekin joan nintzen lasterketara, baina ibilbidean sentsazio oso onak izan nituen eta indartsu sentitu nintzen, oso gustura". Are gehiago, "sekulako ilusioa" egin dio Euskadiko txapela irabazteak: "Batetik, lesioa ahaztu egin dudalako apur bat, nahikoa buelta eman baitizkiot; eta, bestetik, neure buruari demostratu diodalako sasoi hartu dudala".

Ekainen esanetan, berriz, bi anaiek "betidanik" egin izan

duten modalitatea da krosa, eta "garrantzia" ematen diote. Lasterketan sentitutakoei dagokienez, "aspaldiko sentsaziorik onenak" izan dituela nabarmendu du, lasterketa egin aurretik espero ez zuen arren hain aurrean ibiltzea: "Horren kros gogorretan-eta badago jendea, hasiera batean, behintzat, ni baino hobeto egingo zuela uste nuena, baina, ondoren, ondo sentitu nintzen lasterketan zehar eta Ibaik eta biok aurrera egin genuen". Hala ere, erantsi du anaia "oso ondo" ibiltzen dela "horrelako lurretan", eta "gehiago" izan zela, azkenean: "Edo-zelan ere, oso gustura nago egindakoarekin".

Espainiakorako sailkatuak

Euskadiko Kros Txapelketako lehen hirurak –beste bizpahiru lasterkarirekin batera, antolatzailleek hautatuta eginiko denboraldiaren arabera– zuzenean sailkatzen dira Espainiako Kros Txapelketarako, eta, horrenbestez, han izango dira Ibai eta Ekain Larrea anaia: urtarrilaren 26an, domeka, jokatu da, Getafen. Horrez gain, Antzuolako 8 Miliak lasterketan izango direla ere aurreratuta dute: otsailaren 22an jokatu da, zapatua.

KROSA "BETIDANIK" EGIN IZAN DUTEN MODALITATEA DA, ETA 8 SEGUNDOKO ALDEA IZAN ZEN BIEN ARTEAN

Herriguneko argiteria aldatzen hasia da Udala

300.213 euroko aurrekontua dute lanek, eta martxo bukaerarako espero dute amaitzea. Herriko bederlatzi lekutan aldatuko dituzte argiak, energia eraginkortasuna hobetzeko, kalitatezko argiztapena eskaintzeko eta ingurumena errespetatzeko

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria ANTZUOLA

Herriko argiteria publikoa aldatzeko lanak abian ditu Antzuolako Udalak, Tecuni enpresaren bitartez. 434 argi-puntu aldatuko dituzte, eta "teknologia berritzaileko LED argiak" instalatuko dituzte, "argiztapen hobe eta iraunkorragoa lortzeko" asmoz. Farolen orain arteko itxura, ordea, ez da aldatuko, Aritz Igeltzen, Hirigintza zinegotziaren, hitzetan: "Buruak soilik aldatuko dira, eta orain duten estetika mantendu egingo da. Herri osoko kableen berrikuspen sakona ere egingo da, eta Beheko auzoan, esate baterako, kable guztiak aldatuko dira". Are gehiago, azpimarratu du aginte-paneletan telekudeaketa aplikatuko dela argiteria osoa programatu ahal izateko.

300.213 euroko kostua dute lanek. Udalak 121.620 euro jasoko ditu Next Generation dirulaguntzetatik eta 50.000 Goizperretetik; gaintzekoa Udalaren kontu izango da. Hala, aurreikuspenen arabera, martxo bukaerarako amaituko dituzte zereginak.

Eremuak eta helburuak

Errekalden, Antiguan, Ibarrondon, Ondarren, Buztinzurin, Beheko auzoan, Zurrategin, hi-



Antigua auzoko farola bat. GOIENA

434 ARGIPUNTU ALDATUKO DITUZTE, LED ARGIAK JARRITA; FAROLEN ITXURA EZ DA ALDATUKO

lerrian eta pilotalekuaren inguruan egingo dituzte argiteria aldatzeko lanak; baita Deskar-gako bidean ere, hiru farol berri jarriko baitituzte. Hala, eginiko aldaketa guztiakin, "efizientzia energetikoaren %70eko hobe-

kuntza ahalbideratuko" dela dio Igeltzek, baina ez hori soilik: "Instalaturako potentzia heren batera murriztea ekarriko du, eta karbono lortzea ere murriztuko da". Esate baterako, emandako datuen arabera, 130.000 kilowatt ordukoa izan da orain arteko kontsumoa, baina, orain, 40.000ra igaroko da.

Horrez gain, Igeltzen hitzetan, "argi-kutsaduraren eta erreproduzio kromatikoaren indizea hobetu" egingo dira, eta horrek "argiteriaren erosotasuna hobetzea" ekarriko du.

Arreta euskararen erabileran jarria

Udalak, herriko argiteria aldatzea ez ezik, Udalean bertan euskararen erabilera indartu eta areagotzeko asmoa du, eta, hori ahalbideratzeko asmoz, *Antzuolako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko 2023-2027 plan estrategikoa* onartu du -2023an zen onartzekoa, baina "arazo bat" tarteko, erabakia urtebetez atzeratu behar izan dute, iazko

abendua amaierara arte-, aho batez. "Helburua da zerbitzu-hizkuntzatza eta lan-hizkuntzatza handitzea euskararen erabilera, herritarren eta langileen artean euskararen erabilera sustatu, normalizatu eta eraginkortasunez hedatzea".

Udaleri Euskaldunen Mankomunitatearekin elkarlanean garatu du plana Udalak, eta 2027ra arteko balioa

izango du, urtez urteko helburuak, arduradunak, epeak, neurriak eta baliabideak zehaztu baitituzte dagoeneko. Udal langile eta ordezkari guztiei zuzendutako estrategia da, eta denek bete beharko dituzte, horrenbestez, jasotzen dituen irizpideak. Horretarako, planaren jarraipenerako batzorde bat eratuko dute, zehaztutakoren "betetze-maila" baloratzeko eta "beharrezko aldaketak eta hobekuntzak" egiteko.



NIRE USTEZ

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ

Ilusioa eta erronka

Iruditzen zait urtean zehar badaudela bi momentu artikuluhonon izenburuan adierazten ditudanak ohi baino gehiagotan erabiltzeko.

Hasi dugun urte berria da, hain zuzen ere, une horietako bat. Orduan, ilusioa da, agian, nabarmentzen duguna, eta alde batera laga dugun urte zaharrari bizkarra eman ondoren, ilusioz begiratzen diogu urte berriari, eta bide horretan osasunak, behintzat, lagun gaitzala eskatzen dugu. Erronka, berriz, udarako opor osteko animo egoera ez ote den nago; alegia, irailko. Izan ere, lanera edo ikastera berriro joan behar horrek ez dakit zenbateraino sortzen digun ilusioa, baina ikasturte berriari begira badugu joera erronkaren bat edo beste jartzeko geure buruari jartzeko. Betetzen den ala ez, beste kontu bat da.

Ilusioa eta erronka, ordea, ez dira kontrajarriak, osagarriak baizik. Motibazioa -ilusioa- behar dugu erronkei aurre egiteko. Beraz, bata zein bestea ahalik eta ondoen bete daitezten, urte berri ona opa dizut, irakurle.

Euskal Herriko Mus Txapelketan, hiru kanporaketa herrian

Hamaseigarren aldia du aurten Euskal Herriko Mus Txapelketak, eta hiru kanporaketa jokatuko dituzte Antzuolan: bihar, urtarrilak 18, izango da lehendabizikoa, Okaldi tabernan, 16:30ean hasita; Mox tabernan izango da bigarrena, hilaren 19an; eta Koxkor okindegian, berriz, hirugarrena, hilaren 26an. Finalari dagokionez, otsailaren 2an izango da, Gorostin.

Izen-ematea kanporaketen egun berean egingo da, ordu erdi lehenago irekiko baitute horretarako aukera, 16:00etan, 20 euroren truke; itxi, berriz, partidak baino bost minutu lehenago. Txapelketa lau erregetara jokatuko da.

Bihar da 'Oscarra Oscarrentzat' antzerki-emanaldia

Txalo Produkzioak konpainiaren eskutik, Mario Hernandezen zuzendaritzapean, bihar, hilak 18, izango da *Oscarra Oscarrentzat* antzerkiaren emanaldia, 18:30ean, Torresoroa aretoan. *Entradium* plataforman daude sarrerak salgai, 15 eurotan; ikasleek eta gazteek zazpi eurotan eskura dezakete.

Jon Plazola, Ane Gabarain, Mikel Laskurain eta Oihana Martorena aktoreek gorpuzten dituzte, hain zuzen ere, antze-laneko pertsonaiak. Ordu erdi irauten duen komedia bat da, eta Los Angelesen dago kokatuta, Oscar sariak banatzen dituzten gauean. Han elkartzan dira lau protagonistak.

MUJKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

"Oso gustura dihardut IQAC-CSIC zentroan"

IBANE ABASOLO OLAORTUA BIOKIMIKARIA ETA BIOLOGOA

Otsaila ezker, Espainiako ikerketa erakunde publikoan ari da elgetarra; orain arte moduan, aplikazio terapeutikoetarako nanomedikuntzan dihardu

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Ibane Abasolok (Elgeta, 1975) otsailean beteko du urtea Kataluniako Kimika Aurreratuko Institutuko (IQAC-CSIC) iker-tzaile-lanetan. Vall d'Hebron ospitale entzutetsuan 16 urtean lanean ibili ostean heldu zen aldaketa. Bost lagunek ikerketa-taldea gidatzen du gaur egun. **Zein ikerketa-lanetan diharduzu, gaur-gaurkoz?**

Aplikazio terapeutikoetarako nanomedikuntzan dihardut. Nanoteknologian oinarritutako estrategia terapeutiko berriak garatzen saiatzen gara. Gure ikerketaren helburua da nanoteknologiak erabiliz farmakoak eraginkorragoak izatea.

Tratamendu berrien ikerkuntzan diharduzu, orduan.

Bai. Zentratzen naiz, besteak beste, metaketa lisosomaleko gaixotasunetan. Hau da, zeluletan badaude lisosoma izeneko granulak batzuk, eta ondo ez daude gaixotasun arraro asko agertzen dira. Horiek ikertzen eta horiei konponbidea ematen saiatzen naiz. Baina beste gaixotasun batzuk ere ikertzen ditugu; adibidez, minbizia.

Gaixotasun arraro guztiendako balio du egiten duzun ikerketak?

Bai eta ez. Nire lana da ikustea ea ipin ditzakegun farmakoak nanopartikula batzuen barruan eta nanopartikula horiek erabili terapia egiteko. Hau da, garraiolari moduan erabiltzea nanopartikulak, botikek efikazia handiagoa eta albo-ondorio gutxiago edukitzeko. Aplikatzen dut minbizian eta gaixotasun arraro konkretu batzuetan; lehen aipaturiko metaketa lisosomaleko gaixotasunak dira. Salbuespenak salbuespen, ez dut beste gaixotasun arraroetan ikertzen, baina gure emaitzek balio dute beste gaixotasun batzuetarako. Metaketa lisosomaleko gaixotasunez aparte, beste gaixotasun arraro batzuk ere ikertzen di-



Ibane Abasolo Olaortua ikertzaile elgetarra. IBANE ABASOLO

"HELBURUA DA HAINBAT PATOLOGIAREN TRATAMENDUA HOBETZEA"

tugu; adibidez, glioblastoma – garunean edo bizkarrezur-muinean garatzen hasten den minbizi mota bat– eta gaixotasun arraro moduan hartzen den pankrea-minbizia.

Lantalde handia gidatzen duzu orain?

Gaur egun, bost ikertzaile ditut nire kargura. Vall d'Hebron ospitaletik irten nintzenean, hamasei pertsona nituen nire ardurapean, baina hemen ere poliki-poliki banoa taldea osatzen. **Gustura diharduzu erakunde berrian? Askok aldatu da zure lana Vall d'Hebron ospitalean egiten zenuenarekin alderatuta?**

Bai, gustura nabil eta lana ez da askorik aldatu. Gertatzen dena da lehen ez bezala lanpostu finkoa dudala orain; izan ere, plaza atera nuen Kataluniako Kimika Aurreratuko Institutuan (IQAC-CSIC).

Zer da IQAC-CSIC edo Kataluniako Kimika Aurreratuko Institutua?

Espainiako ikerketa erakunde publikoa da CSIC. Hau da, ikerketa zientifikorako Espainiako goi-mailako erakunde ofiziala da. Estatu guztiak dituzte balio-kideak: Frantziak, esaterako, CNRS dauka. CSIC-ek diziplina zientifiko guztiak hartzen ditu: neurozientzia, bioteknologia, soziologia, ekonomia... Agentzia baten moduan funtzionatzen du eta espezializazio askotako ikerketa zentro edo institutuak ditu. Euskal Herrian ere badaude. Nik zentroetako batean dihardut: Kataluniako Kimika Aurreratuko Institutuan.

Ikertzaileen buruhauste handienak jarraitzen du izaten finantzaketa lortzea?

Bai, zalantzarik gabe. Horretan gabiltza danak eta hori da gure erroka nagusia. Finantzaketa publikoarekin mantentzen da ikerkuntzaren %90. Urtero ateratzen dira deialdiak, eta proiektua aurkeztu behar duzu. Ondo baloratzen badute zure proiektua, dirua ematen dizute; bestela, ez. Baina beti ematen dute gutxi eta berandu. Eta finantzaketa pribatua oso txikia da.



Patxi Basauri Elkoro, 2007an, Intxorta elkartearen osteko parkean. ARTXIBOA

Patxi Basauriren omenezko ekitaldia izango da hilaren 24an

Jeltzaleek antolatuta, udaletxeko areto nagusian egingo dute; ekitaldi irekia izango da eta 19:00etan hasiko da

L.Z.L. ELGETA

Urriaren hil zen 31 urtez Elgetako alkate izandako Patxi Basauri Elkoro. 79 urte zituen eta Euskal Autonomia Erkidegoan ez da egon beste inor alkatetzan hainbeste urte eman dituenik. Omenaldi-ekitaldia egingo ziotela agindu zuten jeltzaleek, eta asteon iragarri dute hilaren 24rako antolatu dutela. 19:00etan hasiko da, udaletxeko areto nagusian.

Ekitaldi irekia izango dela jakinarazi dute eta parte hartzeko gonbidapena egin dute. "Elgetarrak, bereziki, eta inguruko bailaretako herritarrak, oro har, gonbidatu nahi ditugu bertara; izan ere, jakina da Basaurik alkatetza garaian eta gerora ere gertuko herriein izan zuen harreman estua", azaldu dute Elgetako Uri Buru Batzarrekoek. "EAJ-PNVren ekimenez eta modu herrikoian prestatu dugun ekitaldiak herriko hainbat pertso-

naren eta eragileren parte-hartzea ere izango du".

"Ekarpen handia" herriari

Hainbeste urte alkate, Elgetaren norabidea markatu duten erabaki garrantzitsu asko hartu zituen Basaurik, eta ekitaldiaren helburua da haren figura gogora ekartzea. "Alkatetzan eman zituen jarraikako hiru hamarkaden errepasoa egitea, besteak beste, testigantzen, musikaren eta bideo baten bidez. Aspalditik eta maitasun handiarekin lantzen ari garen ekitaldia da. Patxiren legatuari, hau da, haren agintaldietan herriari egin zizkion ekarpen handiei balioa emateko, zenbait anekdota kontatzeko eta emozio-momentuak partekatze-ko aukera emango duen egitaraua osatzea izan da jeltzaleon asmoa". Ekitaldia prestatzeko bidelagun izan dituzten elgetar guztiei eskerrak eman dizkiete.

Mendi Mendian Jaiak eta Ibiltarien Jaiak badute eguna

Urte hasierako hitzorduen artean dira beti, eta aurten ere ez dute hutsik egingo. Ate joka dator, esaterako, Mendi Mendian Racing VII. jaiak. Elgetako pilotu taldeak eta inguruko jarraitzaileek urtero antolatzen duten jaieguna- ren inguruko xehetasun gutxi dago, oraingo, baina data gordetzeko adierazi dute antolatzaileek: otsailaren 8a. Eguna osoko

egitaraua prestatu izan dute orain arte, eta aurten ere horrela izatea espero da.

Bestalde, Euskal Herriko Mendi Federazioak eman du Elgetan urtero egiten duen Zirkuitua ospakizunaren berri. Martxoaren 9rako iragarri dute aurtengoa, eta 2024ko iraupen luzeko ibilaldien amaierako festa izango da. Mendi ibilaldia, bazkaria eta diploma banaketa egingo dituzte. Antolatzaileek hurrengo asteetan zabalduko dute bazkarirako izena emateko epea.



Kokoen konpartsa, baserriz baserri hasi aurretik, iaz. L.Z.L.

Koko-jantziak prestatzen hasteko garaia da

Otsailaren 22an esnatuko da hartza Elgetan. Azken hiru urteetan moduan, zain izango du kokoen-konpartsa, baserriz baserri Aratustearen iritsiera eta neguaren amaiera iragartzeko. Antolatzaileek prestaketa-lanetan hasteko dei egin dute

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA Goibeko euskara elkarteak deituta, eguaztenean hamahiru lagun elkartu ziren koko-batzea antolatzeko lehen batzar irekian. Otsailaren 22rako -Aratustearen aurreko zapatua- iragarri dute aurretengo eske-erronda. Egun horretan esnatuko da Kandelaria egunetik neguko lozorroan

den hartza, eta kokoeekin eta beste hainbat pertsonaiarekin ibiliko da baserriz baserri.

Ordurako prest behar dute, besteak beste, koko-jantziek, gosaltzeko eta bazkaltzeko guneak, baserriz baserriko ibilbideak eta amaierako festak. "Ondo pasatzea da helburua, eta elgetarrak -bereziki, gazteak- ani-

matu nahi ditugu parte hartzera", esan dute Goibekokok. "Telegram kanala zabalik dago, eta bertatik jarraituko dugu informazioa zabaltzen", gaineratu dute.

Prestaketa-lanak

Konpartsako pertsonaiak banatzea eta jantziak prestatzea da

lehen egitekoetako bat. Mozerroen zerrenda eginda dago: *mamarruak, burburixuak, emaztegaia, senargaia, apezpikua, hartza, hartzaren zaintzailea, azeria...* Pertsonaia gehienak banatzeko daude, eta komeni da bateren batean interesa duenak lehenbailehen esatea. Jantzi horiek guztiak eginda daude, eta lagatzeko moduan.

Gorrixek -20 urtera artekoak- alkandora eta azpikogona zuriak, gerriko eta zapi gorriak eta lore-dun kapela beharko dituzte. *Masustek*, berriz, koloretako jantziak eta kapela lore-duna eramane beharko dituzte, eta aurpegia estalita. Pertsona desitxuratua dira protagonista koko-batzean, eta etxean dauden osagaiekin osatzen dira jantziak.

"Hasita gaude jantziak prestatzen. Astelehenean elkartzen gara, 17:00etatik 19:30era, Galgorri zegoen pabiloian. Laguntza behar duenak hara joan besterik ez du. Badago oraindik ere materiala zenbait jantzi egiteko", esan du Iratxe Bravok.

Erakusketa eta entseguak

Urtero moduan, aurten ere koko-batzearen gaineko erakusketa egongo da ikusgai. Buztingelan ipiniko dute, eta bertan egongo da konpartsarako zein bazkarirako izena emateko aukera. Gosaria zein bazkaria, aurten ere, Ozkarbi elkartearen izango dira. Prezioa da 12 euro gazteendako eta 20 euro gaine-

rakoendako. Iaz, 40 bat lagun elkartu ziren.

Koplak eta dantzak gogora ekartzeko saioak ere egingo dituzte. Telegram kanalaren bitartez emango dute daten berri.

Ibilbidea

Aurten, Bergara-Elorrio errepi-dearen beheko aldeko baserrien txanda da. Antolatzaileak baserriarrek harremanetan jartzen hasita daude, ibilbidea zein izango den zehaztu aldera. Goizean lauzpabost bisitatzea eta arratsaldean batera joatea da hasierako asmoa. Azken dantza saioa, berriz, herriko plazan izango da, Ustekabe txarangak giro-tuta. Berritasunak ere iragarri dituzte antolatzaileek.

Laugarren koko-batzea

Laugarren urtez egingo dute koko-batzea Elgetan. Egun osoz dantza, kantua eta umore ona izango dira nagusi. Koko-batzearen funtzioa da, alde batetik, aldentuta dauden baserrietara Aratustea eramatea, eta, bestetik, festa inizatikoak da aurre-helduaroan dauden belaunaldien-dako. Helduen komunitatean sartzeko errituala, alegia.

JANTZIAK EGITEKO LAGUNTZA BEHAR DUTENEK IRATXE BRAVORENGANA JO DEZAKETE

Danbor hotsa ozen entzungo da astelehenean Elgetan

San Sebastian Eguna aste tartez izatera, San Sebastian Kofradiako Nobleen ekitaldian ere joko dute umeek

L.Z.L. ELGETA

Eskolako danborradak bi emanaldi egingo ditu San Sebastian Egunean; 11:45ean elizpean eta 15:30ean frontoi zaharrean. Lehenengo saioa San Sebastian Kofradiako Nobleen ekitaldiari hasiera emateko izango da. Aurreko urteetan, aste bukaerarekin izan da San Sebastian Eguna, eta ez da halakorik egon, baina aurten posible izango da, eta pozik daude kofradeak. "Oso polita izaten da eta poztasun handia ematen digu", azaldu du kofradiako kide Alex Aranza-



Eskolako danborrada iaz. I.Z.

balek. Bigarren saioa 15:30ean izango da, frontoi zaharrean. Familiei begira egindako saioa izango da hura.

Nobleen ekitaldia

Aurten, 23 lagun elkartuko dira: Elgetako eta Uberako hemezortzi kide eta Angiozarko bost. Danborradaren ostean, meza entzun eta sakristiako ekitaldia egingo dituzte. Azkenik, 14:30ean, bazkaria egingo dute, Maialden.

Errege Katolikoaren aginduz sortu zen, 1482an, San Sebastian Kofradiako Nobleen kofradia Elgetan. Helburua zen lur-jabeei euren lurrak defendatzeko armak erabiltzeko baimena ematea. Egun, oraindik ere eta hutsik egin gabe, Uberako, Angiozarko eta Elgetako kofradeek elkarrekin egiten dute ekitaldia San Sebastian Egunean.

Bigarren eskuko azoka txikia egin gura dute Janelan

Otsailaren 7an egin nahiko luke bigarren eskuko azoka txikia Maria Cobosek, eta arratsalde egitea da asmoa, 17:30ean hasita. Azokako postuak tabernan zein taberna inguruan kokatuko dituzte, eta musika ere egongo da.

Asmoa da bigarren eskuko artikulua zein artisautza artikulua egotea eskuragarri. Edozer salmentan jartzeko interesa duten herritarrek eta artisauak gonbidatu dituzte azokan parte hartzera. Espazioa ondo antolatzeko, postua jarri gura dutenek Janelara gerturatu edo deitu besterik ez dute.

Ekainean zabaldu zuten Janela, eta lehen aldiz egingo dute azoka txikia bertan.

OHARRAK

Kantsatzeke

Kantsatzeke mendi taldeak urteko batzarra egingo du martitzenean, hilak 21, 20:00etan, kultura etxean. Ordu bete lehenago, federatu txartela eta bazkidetza egiteko aukera izango da.

Podologo zerbitzua

Xalbadorpe elkarteok jakinarazi dute hilean behin ematen den podologo zerbitzua otsailetik aurrera goizez izango dela. Laster jakinarazi dute data.

Lanak kultura etxean

Pintatze-lanak direla eta, eskailerak ez daude erabilgarri. Erabiltzaileek igogailua erabili behar dute.

Odol Emaileen Elkarteak, erronkei heltzeko gertu

Urte berriko helburuei erantzuteko prest dago herriko Odol Emaileen Elkarteak, joan den urtekoak beteta. Ohiko tokian, Enpresagintza Fakultatean, izango dira ateratzeko aurten ere, eta hara lasai joateko mezua zabaldu gura dute. Gaur da urteko lehena

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Gaur, egubakoitza, egingo dute urteko lehen odol-ateratzea. Aurtengo egutegian ere hamai-ka ateratze dituzte jasota, hilean bat, abuztuan izan ezik, eta herriar guztiei odola ematera joateko deiarekin hasi gura dute. Indartsu hasiko dute, gainera, iazko helburuak beteta eta aurtengoei erantzuteko ziurtasunez.

Erronkei erantzuteko prest

505 odol-poltsa lortzeko helburua zuen jarrita joan den urtean Oñatiko Odol Emaileen Elkarteak, eta hogeitak gehiago lortu zituzten. "Pozik gaude jendeak izaten duen erantzunarekin, bai, eta joan den urtean lortu genuen jarri ziguten erronka hori gainditzea. Guk geure kontuak eraman ditugu, eta 525 poltsa zenbatu genituen iaz; Donostiatik kopuru hori berrestea falta da oraindik, baina pozik gaude. bai. Ea aurten ere lortzen dugun. Urte hasieran izaten dira bilerak; Debagoienekoa, esaterako, otsailan dugu, eta, ziurrenez, ordu-rako denok jakingo digu bakoitzari eskatuko digutena. Gu saiatuko gara ahalik eta gehien lortzen", dio elkarteak Axun Leibarrek.

Emaille berriak ere bai

Guztira 588 lagun joan ziren odola ematera joan den urtean Oñatin, eta horietatik 525ek lortu zuten poltsa betetzea. Gainera, joan zirenen artean emaille berriak ere bazirela aipatu du Leibarrek, eta horrek poztasuna eman ziela gaineratu. Orain fideltasuna lortzea dela erronka dio: "Joan den urteko emailleen artean, 25 lehen aldiz etorri ziren. Etorkizunera begira oso albiste ona da hori, eta fideltasuna landu gura dugu orain. Ederrena litzateke emailleak urtean behin edo birritan joanda nahikoa izatea odol-premia asetzeko. Baina hori ez da erra-



Herriko odol emaille bat odola ematen. GOIENA

za. Datuek diote lau pertsonetatik hiruk odola beharko dela bizitzako momenturen batean, eta hori asko da. Horregatik, hilean behin egiten den odol-ateratze egunaz gain, sentsibilizazio kanpainak egiten ditugu urtean zehar, ahalik eta emaille gehien lortzeko. Eta emaille berriak beti dira ongietorriak".

Ohiko tokian eta orduan

Aurten ere ohiko tokian, Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza Fakultatean, izango dira odol-ateratzeko, hilean behin,

16:30etik 20:30era. "Oso eskertuta gaude fakultatekoari. Oso toki egokia eta atsegina da, ona. Donostiatik datozenek ere gustura lan egiten dutela aipatzen dute, espazio zabala dela, eta argitasun handikoa. Gainera, oinez joateko moduan dago, eta ibilgailuan joan beharra izanez gero apar-katzeko tokia ere izaten da".

Urteko lehenengo ateratzea gaur izango da, urtarrilak 17, eta hurrengoak, berriz, otsailaren 21ean. Lasai joateko mezua zabaldu gura du Oñatiko Odol Emaileen Elkarteak.

Internetez, gero eta gehiagok

Pandemia garaia ezkerro, aurrez hartu behar da txanda odola ematera joateko. Telefonoz egin daiteke hori, baita gotatanta.eus helbidean sartuta ere. Odol-ateratzearen astean, data aurreko hiru egunetan egoten da txanda online hartzeko aukera, eta geroz eta gehiagok erabiltzen dute bide hori; %80k, gutxi gorabehera. "Emailleendako eroso da, eta gure lanerako oso lagungarria, gutxi gorabehera zenbat etorriko diren esaten digulako. Adibidez, aste honetan, eguazten arratsalderako 44k zuten txanda online hartuta. Telefono bidez atertze-eguneko goizetan bakarrik har daiteke, zenbaki honetara deituta: 943 00 78 84".

Oñatiko ohiko odol emailleen kopurua 275 da eta odol-ateratze egunetara 52 bat lagun joaten dira, batez beste.

"Edonor etor daiteke eta parte hartu Euskaraldiko batzordean"

JULEN AGIRRE LIZARRALDE DINAMIZATZAILEA
Maiatzaren 15etik 25era egingo da Euskaraldia

O.E.G. OÑATI

Julen Agirre Lizarralde (Oñati, 2001) izango da Euskaraldiko dinamizatzailea. Otsailaren 5ean da batzordea osatzeko lehen bilera, 18:00etan, kultura etxean.

Norendako da bilera hori?

Euskaraldian parte hartu gura duen edonor etor daiteke, izan eragile baten izenean, izan norbanako. Gazte zein nagusi. Ahalik eta batzorde zabalena osatu gura dugu.

Zein izango da batzorde horren egitekoa?

Euskara aktibatzean jarriko da ahalegina Euskaraldian, eta, batzorde horrekin, sarea zabaltzen hasiko gara. Euskarari eskaini behar zaizkio aukerak ahalik eta adar gehienetara zabaltzeko, eta gurako gure sarea ahalik eta pluralena izatea eta, posible baltz, jarraipena izatea. Sareak euskararen perspektiba ezberdinak erakusten ditu; adibidez, ez da berdina kalean edo instituzioetan lanean ari den eragilea edo etorkinekin edo erretiratuen elkarte batean. Zubi-lanak egiteko ere batzordea bide eta erreminta ona izango da.

Belarriprest eta ahobizi txapak banatuko dira aurten ere?



Julen Agirre Lizarralde. O.E.G.

Bai, eta txapei presentzia handia ematea lortu gura da. Aurtengoa maiatzaren izatean lagungarria izan daiteke horretan: txamarrak gutxiago janzten dira sasoi horretan, egunak ere luzeagoak dira, kaleko jai giroa handiagoa da abenduan baino... Martxoaren 15ean zabalduko da izen-ematea. Gaztetxoendako ekintzak egingo ditugu, umeen bitartez etxeetan zabaltzeko Euskaraldiaren berria.

Nola jarri harremanetan Oñatiko Euskaraldiarekin?

688 88 13 51 edo onati@euskaraldia.eus. Bietako edozein.

GORA ETA BEHERA



Berdura azokako 'parrillak', lehen baino hobeto orain



Berdura azokako *parrillak* "jasota" zeudela eta "oztopo" zirela zioen herritar batek duela aste gutxi. Langileek konpondu egin dituztela esateko idatzi du GOIENARA: "Eskerrik asko!".



Aloña Mendiko areto futboleko taldea. OIER YANIZ

Oinak lurrean dituztela, helburu handien bila

Duela bi denboraldi, Euskadiko txapelketara igotzetik oso gertu gelditu zen areto futboleko taldea. Bide onetik doaz aurtengo denboraldian Iban Arregiren mutilak, baina denboraldia oso luzea den jakitun dira jokalarik txantxiarrak

Julen Murua Mesonero OÑATI

Aise ari dira Aloña Mendiko areto futboleko taldekoak aurtengo denboraldian. Gipuzkoako Lehenengo Mailako liderrak dira: jokaturako hamaika partiduetatik bederatzirabazi dituzte, eta bi bakarrik galdu. Urteak daramatza senior taldeak Gipuzkoako txapelketa gorenean maila ona erakusten, baina badirudi aurtengo aurrerapausoa eman dutela oñatiarrek.

Maila handia

Iban Arregi entrenatzaileak dio taldea "oso maila handia" ematen ari dela, eta denboraldi hasieran ez zuen halakorik espero: "Ez nuen espero halako maila emango genuenik, niretzat ere jauzi handia izan delako kadeteen mailako taldea entrenatzen senior mailako taldea entrenatzen igarotzea, baina jokalariek oso erantzun ona ematen ari dira". "Oso motibatuta eta oso inplikaturik" ikusten dituzte jokalariek entrenatzaile oñatiarrak,

eta bigarren itzulian "maila berbera" ematea espero du. "Lesioek errespetatzea" eskatzen du Arregik; izan ere, "taldeko bi jokalarik oso garrantzitsu epe luzean min hartuta" egongo direla dio. Hala ere, gainontzeko taldekideen mailak "lasaitasuna" ematen dio entrenatzaileari.

Helburuak, garbi

Urte hasierako helburua "iazkoa baino denboraldi hobea egitea" zela dio Mikel Urkiak, taldeko kapitainetako batek: "Trantsizio garai bat bezala aurreikusten genuen, entrenatzailea aldatu genuelako eta jokalarik berriak iritsi zirelako; eta oraindik ere izaten jarraitzen du, gauza asko ditugu-eta ikasteko". Hala ere,

**SAILKAPENEO
LEHENENGO POSTUAN
DAGO ALOÑA, ETA,
HAIN ZUZEN, IGOERA
DU BEGIZ JOTA**

emaitzek erakusten dute sailkapeneko talde gogorrenetako bat dela Aloña, eta goiko postuei eustea da, urte amaierara begira, taldeak duen helburua: "Helburuak iazko denboraldia hobetzea izaten jarraitzen badu ere, has gaitezke helburu handiagoetan pentsatzen: txapelketa lehenengo postuan amaitzea, hain zuzen. Badago gaitasuna; baita gogoia eta ilusioa ere. Egia da ez dugula askorik hitz egin igoeraren inguruan, baina astetik atera gero eta ambizio handiagoa du taldeak, eta espero dugu aurrerapausoak ematen jarraitzea".

Denboraldi luzea

Sailkapeneko lehenengo postuan dagoen arren, Arregik adierazi du denboraldia "luzea" dela eta edozein taldek edozeini irabaz diezaiokeela. Hortaz, "orain arteko maila mantendu" gura du entrenatzaile oñatiarrak, denboraldi amaieran helburu handiak lortzeko lehitzeko.

Bihar irekiko da, oñatiarrentzat, Aloñako igoerako izen-ematea

Apirilaren 27an jokatu da Aloñako Igoera, eta datozen egunetan irekiko dira lasterketan izena emateko epeak

J.M.M. OÑATI

Aurtengo lehentasuna izango dute oñatiarrek Aloñako Igoerako dortsala eskuratzeko orduan. Bihar, urtarrilak 18, 10:00etan irekiko dute oñatiarrentzako izen-ematea, eta urtarrilaren 19an itxiko dute, 20:00etan. Guztira 80 dortsal banatuko dira herritarren artean. Gainontzeko dortsalak (220) zozketatu egingo dira izena ematen duten guztien artean; zozketan parte hartzeko aukera egongo da urtarrilaren 20tik 23ra bitartean. Zozketa hilaren 24an egingo dute, 19:00etan,

udaletxean, eta egunean bertan jakinaraziko dute dortsala eskuratu dutenen eta itzarote-zerrendan daudenen zerrenda.

Buetraitzeko bertikala ere bai

Bost urtean behin egiten den Buetroitzeko bertikala ere jokatu da aurtengo Arantzazutik Buetroitzeko tontorrera. Apirilaren 25ean izango da, eta otsailaren 1ean irekiko dute izen-ematea. Horrez gain, Aloña Txiki lasterketa eta bestelako ekintzak ere egongo dira aste bukaeran.



J.M.M.

'Gailurretan izan gaitun' ikusgai

Urtarrilaren 29ra arte egongo da ikusgai, kultura etxean, Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioak sortu duen *Gailurretan izan gaitun* argazki-erakusketa. Bertan, 1924tik 2024ra bitartean mendizale, alpinista eta eskalatzailerik aitzindariak izan diren emakumeak agertzen dira, argazki eta azalpenez osatutako hogeita hamar paneletan.

AUTLAN
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganese Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

"Hasierra bat izan da Oñatiko kontzertua"

KEPA LOPEZ LASA MUSIKA-ZUZENDARIA

Lehenengo kontzertua zuzendu zuen gazte oñatiarrak jendaurrean joan den domekan Santa Ana antzokian, Allegro Vivo musika bandarekin

Oihana Elortza Gorostiza GOIENA

Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioan dihardu ikasketak egiten Kepa Lopez Lasak (Oñati, 2005), eta hango ikaskideekin sortu du musika banda. Oñatin aritu da lehenengo aldiz jendaurrean zuzendari-lanetan.

la astebete pasata, zein oroitzen dituzu?

Oso onak. Gogoan dut gustura gelditu nintzela emanaldiarekin. Aurretik, denok geunden urduri samar, baina sentsazio oso onak izan nituen, kontzertua oso ondo atera zen; taldeak ere oso ondo erantzun zuen. Lehenengo aldia izan zen bandarekin, eta, horrez gain, nire lehen kontzertu ofiziala ere bai.

Zeuk sortutakoa da, gainera, Allegro Vivo musika banda.

Zuzendari hasiberriok-eta ez daukagu aukerarik formazioak zuzentzeko, eta, orduan, otu zitzaidan zerbait egitea kontserbatorioko lagunekin, zuzendari aritzeko. Jendea fitxatzen hasi nintzen, eta horrela sortu genuen banda hori. Gehienak kontserbatorioko musikariak dira, baina instrumentu batzuk falta zitzaizkidalda ikusi nuen, eta aurretik han eta hemen ezagututakoei deitzen hasi nintzen, eta nire asmoa proposatzen. Horrela, 25-26 musikariz osatuta dago, gaur-gaurkoz.

Nolako lana izan da hori?

Izan du bere lana, bai. Lehen aldia denez formazio bat zuzentzen, entseguak kudeatzen ikasi behar izan dut, nire ardurapean baitaude; azkenean, ni bakarrik nabil hau dena antolatzen.

Noiz hasi zinen horretan?

Uda aurretik, ekain inguruan izan nuen banda bat sortzeko ideia, eta udan jendea biltzen ibili nintzen. Entseguak iraillean hasi genituen, kontserbatorioan bertan.

Eta zein pieza aukeratu dituzue zure lehen kontzerturako? Eta zergatik horiek?



Kepa Lopez, Santa Ana antzokian egindakoa kontzertuan. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

"ZUZENDARI IZATERA BIDERATUKO DITUT IKASKETAK; EKAINEAN EGINGO DITUT GOI-MAILAKO PROBAK"

Hiru poema sinfoniko izan dira lehen kontzertuan protagonista: *Lepanto 1571* eta *La ruta del Cid*, David Rivas konpositorearenak; eta *Artorius Rex* (Arturo Erregea), Pedro Bonillo Ortegarena. Leonen izan nintzen orkestra-zuzendaritzako ikastaro edo kurtso batean behin, eta han ezagutu nuen Bonillo. Laguna dut orduetik; nire ideia zein zen azaldu nion, eta hark proposatu zidan gura izanez gero haren pieza lehen kontzertuan jotzeko. Onartu egin nuen proposamena, eta horrela egin dugu. Entsegu batzuetan ere egon da, eta Oñatiko kontzertuan ere hantxe zegoen. Egia esan, berezia izan zen hura: Oñatin estreinatu da haren obra hori, nik zuzendutako kontzertu hartan.

Perkusio ikasketak ari zara egiten orain, Gasteizen; txikitatik, baina, musikari lotuta, ezta?

Bai; lauzpabost urterekin hasi nintzen Oñatiko musika eskolan. 12 bat bete arte ibili nintzen, eta gero, kontserbatoriora joan nintzen. Musika ikasketekin batera egin ditut Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta batxilergoa. Perkusio ikasketak egiten dihardut gaur egun, seigarren –eta azkeneko– mailan, baina zuzendaritzan zentratu nahi ditut ikasketak.

Zuzendari ibilbidearen hasiera izan da Oñatiko kontzertua, beraz?

Bai, hasiera bat izan da. Zuzendari izatea da nire helburua, eta ikasketa horiek egingo ditut. Ikasturte honen amaieran, ekainean, musikako goi-mailako ikasketak egiteko probak egiteko asmoa dut, eta, gaingiduz gero, datorren ikasturtea Donostiako Musiken hastea da helburua. Lau urteko ikasketak dira zuzendaritzakoak.

Eta, bitartean, jarraituko duzue beste proiektuekin?

Hori da asmoa. Oñatiko banda utzita dut, baina Eltziegokoan jotzen dut oraindik, adibidez. Esperientzia hartu gurako nuke. Oraindik, baina, asko dut ikasketeko. Prozesu luzea da musikarena.



Arrasateko Nick Linbött taldea, kontzertu batean. P.A.

Azoka eta lau musika kontzertu asteburuan Antixena gaztetxean

Nick Linbött eta Txakurrak taldeak izango dira zapatuan, 20:00etan; domekan, Kazkezur eta Naxker, 18:00etan

O.E.G. OÑATI

Lau kontzertuz osatutako asteburua dute datorren hau Antixena gaztetxean. Zapatuan eta domekan izango dira musika taldeen zuzendari emanaldiak. Zapatu goizean, gainera, bigarren eskuko azoka ere egongo da, 12:00etan, Pineapple Sweets-ek musika jarrita.

Zuzendari lau emanaldi

Txarrana Eguna izango da zapatuan gaztetxean, eta, goizeko azokaren ostean, arratsaldean egingo dira kontzertuak. Iluntzean, 20:00etan, hasiko dira, eta bi taldek joko dute, biak Arrasatekoak: Txakurrak eta Nick Linbött. Sarreraren prezioa da: bost euro arrunta eta hiru euro murriztua.

Domekan, berriz, Kazkezur eta Naxker taldeak izango dira kontzertua emango dutenak. Burrunda Faktoriak gonbidatu-

ta etorriko dira horiek, Baztanetik lehenengoa eta Atarrabiatik bigarrena, eta emanaldi horiek izango dira Burrunda Faktoriaren denboraldi berriko lehenak; apirila arteko egitaraua prestatu dute. Ohiko bonuak ere atera dituzte, eta *Burrundaraka* fanzinearen laugarren zenbakia prestatzen ari direla aurreratu dute. 18:00etan hasiko dira domekako kontzertuak. Sarrerak dira: arruntak zortzi euro eta murriztuak hiru.

Ekain pailazoak bi saio

Otsailaren 2rako Ekain pailazoa gonbidatu dute Antixeneko ki-deek. Lehen emanaldirako sarrera guztiak egun bakarrean agortu dira, eta beste emanaldi bat egongo dela aurreratu dute: egunean bertan, 18:30ean. Mizke gozoki-dendan eros daitezke sarrerak; hilaren 21etik aurrera, Txokolateixian ere bai.

Auzoetako jaiak antolatzen hasteko bilera egongo da 27an

Herrigunean dauden auzoetako aurtengo jaiak antolatzen hasteko bilera deialdia egin du Udaleko Kultura batzordeak. Urtarrilaren 27an izango da batzarra, 18:30ean, udaletxeko batzorde-gelan.

Herriguneko auzoetako jai batzordeetako ordezkariak daude deituta bilera horretara, eta denen artean adostu beharreko

gaiak izango dituzte berba. Horrela, egitaraua zehazteaz eta finkatzeaz gain, gai hauek ere eztabaidatuko dituzte mahaiaren bueltan: jaiak antolatzeko baimenak eta material eskaerak, erraldioen eta txorimaloen kudeaketa eta koordinazioa, musika ekipoak edo dirulaguntzak, besteak beste. Olaburuko espazioaren erabilpen hitzarmena ere gai-zerrendan dago. Amaieran, tarte egongo da galderak egiteko, zalantzak argitzeko zein informazio gehiago eskatzeko.

DANBAKA))))))

MUSIKA LEHIAKETA

6.

ALDA

DEL VAL REBEL NOISE MALKO

Bergarako
Seminarixoa
Urtarrilak 17
21:30

Chill out gunea
20:00etatik aurrera
San Martin plazan
TURTUKIÑA KOLEKTIBOA

Sarrera arrunta **5 €**
Goiena aplikazioan alta emanda **2 €**
Goiena eta Primeran
aplikazioetan alta emanda **0 €**
Goiena txartela erakutsita **0 €**



Begarako Udala



GIPUZKOA

Kultura



SEIN

Leuzoko, Berriako, Erriberriko, Urdulizko eta Urdulizko Kulturako Erakundeak

goiena[™]

KOMUNIKAZIO TALDEA

PRIMERAN



"Pistan ibiltzea baino politagoa da krosa"

ERIC MARTIN ALOÑA MENDIKO ATLETA

ATLETISMOA Urtarrilaren 26rako, Gipuzkoako ligarako puntuagarria izango den eskola mailako San Martingo I. Krosa antolatzen dabilza Aloña Mendikoak

Xabier Urtzelai OÑATI

Eric Martin (Oñati, 1999) aurten zintaren beste aldetik dabil jarraitzen kros lasterketak, baina, hala ere, urtarrilaren 26an Oñatin egingo duten lasterketa antolatzeke lanetan dabil, taldekideekin batera. Hitzordu hori gazteei zuzendutakoa izango da, hor dago-eta Gipuzkoako harrobia.

San Martingo krosa ez da lasterketa berria, ala?

Ez; aurrekoan ibili ginen taldekideen artean berbetan, eta, gutxienez, 10 urte izango ditu kros horrek. Kontua da orain arte herri mailako lasterketa bat zela, gazte oñatiarrei zuzendutakoa. Orain, lurralde osora zabaldu dugu, Gipuzkoako klub guztiak daude gonbidatuta. Aurreikusten dugu 50 eta 80 atleta artean etorriko direla.

Ze ezaugarri izango ditu krosak?

2011tik 2015era bitartean jaiotako gazteei zuzendutako lasterketak egingo ditugu (10:00), eta zirkuitua San Martingo parkean egingo dugu. Lasterketa azkarra izango da, ibilbide laua da eta ez da lokatarik pilatzen. Ea klubetako gazteak animatzen diren. Infantil eta alebin mailatan ezinbestekoa da federatuta egotea, baina benjamin mailan edonork har dezake parte.



Eric Martin. GOIENA

Izen-ematea urtarrilaren 21ean amaituko da.

Gazteak harrapatzeko modalitate ona da krosa?

Nik uste dut baietz, pistan korrika egitea baino entretenigarriagoa da eta. Eguraldiak asko baldintzatzen du lasterketa, zirkuituak ezberdinak izaten dira... Krosean bereziki indarra behar izaten da, eta ez du zentzu handirik erritmoari kasu egitea, baldintza oso aldakorak izaten dira-eta lasterketan zehar. Nik uste dut gazteendako politikak direla krosak.

Aurten, baztertuta dituzu krosak...

Bai; joan den astean, Euskadiko Txapelketa ikusten egon nintzen, lasterketaz kanpotik gozatzen. Bertatik bertara ikusi nuen Larrea anaien arteko lehia, lasterketa oso polita egin zuten [Ikus 24. orria]. Kontua da iaz krosetako lasterketatik errekueratzea nahi baino gehiago kostatzen zitzaidala, lesionatu ere egiten nintzen... Akaso, nire ezaugarriak ez dira egokienak krosak egiteko; korrikalari oso arina naiz, eta zirkuitu lokaztuetan indarra behar da. Tira, aurten, min hartu barik nabil; horrenbestez, ez da erabaki txarra izan.

Ze lasterketa egin dituzu?

Abenduan Gasteizko maratoi erdian egon nintzen [1.12.08], eta gustura geratu nintzen egingako lasterketarekin. Oñatiko San Silvestre proban, berriz, podiumean egotea nuen helburu, Larrea anaiak etorri zirela ikusi nuen arte [Barre]. Baina Donayk, Mikel Ugartek eta hirurok lehia polita izan genuen.

Eta aurrera begira?

Martxoan hamar kilometroko lasterketa bat egin nahi dut, Espainiako Txapelketa Bilbon antolatuko dutela entzun dugu eta... Eta, horrekin batera, pistan 5.000 metroko lasterketa bat egitea dut buruan.

Azaroan hil zen Ane Agirre omenduko dute zapatuan

RUGBYA Menditarrak-en kontrako partiduen atarikoan izango dute gogoan ARTko presidente izan zena

X.U. ARRASATE

Zapatuan (16:30) Kanpanzar ART eta BRT Menditarrak taldeek jokatuko duten partiduen atariko berezia izango da; izan ere, 2016tik 2020ra Arrasate Rugby Taldeko presidente izandako Ane Agirre omenduko dute. Arrasatekoa joan den azaroan hil zen, 53 urterekin; Euskadiko Federazioko idazkari ere bazen, eta ARTko lehen taldeko jokalaririk iraitz Arriaranen ama.

Partiduari dagokionez, jokatutako hamar partiduetatik lau irabazi dituzte bai arrasatearrek eta baita Baztango eta Ultzama jokalariz osaturik dagoen Menditarrakek, baina haiek hirugarren daude eta arrasatearrek seigarrenak dira.

Eibar, Mojategin

Mojategin ikusi ahal izango den beste partidu erakargarri bat



Iruñearen kontra. GOIENA

emakumezkoen Ohorezko Ligan Eibarrek eta Madrilgo Jabatas taldeek jokatuko dutena da (domeka, 12:00). Eibarren jokatzen dute, besteak beste, Lore Mar, Iana Garmendia, Kattalin Otxoa, Haizea Zabala eta Ane Rincon arrasatearrek.

MENDIKO BIZIKLETA Nile Agirretxe, bizikletan eta korrika, bikain

Infantil mailako kirolaria bada ere, aipamen berezia merezi du Arrasate Atletiko Taldeko eta Dorletako Ama ziklismo taldeko Nile Agirretxek. Aretxabaletako atleta eta ziklista gaztea abenduaren 1ean Gipuzkoako kros txapeldun izan zen, Arraten, eta joan den asteburuan, mendiko bizikletan, Asteasuko lasterketa irabazi zuen.



Agirretxe, podiumean. DORLETAKO AMA



Realaren eta Getaferen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Getafe norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partidua urtarrilaren 26an izango da, 16:15ean.

Parte hartzeko azken eguna: urtarrilaren 19a.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zerte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Derbia domekan, urte hasiera zuzentzeko

FUTBOLA 2025a porrot batekin hasi duten Aloña Mendiren eta Bergararen helburua da etzi egoera zuzentzea, nahiz eta bi taldeen artean mundu bat dagoen. Emaiztezi dagokienez bai, behintzat: mahoneroek bikoiztu egiten dute puntu kopurua

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Ez Aloña Mendik (14 puntu) ezta Bergarak (28) ere ez dute urtea nahi moduan hasi. Bergararren kasuan ulergarria izan daiteke, joan den asteko kontrarioa ligako oilarra izan zelako, Zarautz (33). Mahoneroek lidergoari heltzeko aukera izan zuten zarautzarren bisitaren aurrean, baina Aizpuruaren eta Fernandez deñen golek (0-2) hiru puntuak aldendu zituzten bergararren zelaitik.

Domekako kontrario Aloña Mendik ere galdu egin zuen joan den astean, hain justu, aspaldian halako mailan egon gabe zegoen Añorgaren kontra (3-0). Kolpe gogorra izan zen oñatiarrendako; izan ere, batetik, aurrean nahi eta ezinean dabilta, eta, bestetik, atzealdean atea seguru mantendu ezinik. Bada, bi egoera erabat ezberdinetan dauden taldeen arteko derbia utziko du lehenengo itzuliko azken jardunaldiak. Mahoneroek goialdeko borrokan jarraitu nahi dute eta oñatiarrek arnasa hartzen hasi nahi dute, liga amaierara arte atzealdeko postuetan itolarrian egon gabe.

Mondrakoe, berriz, arnasa hartu zuten zapatuan Anaitasunaren kontra (2-0), eta partidua irabazi izanak konfiantza har-



Joseba Larrea, iazko derbian, mahoneroz inguratuta. GOIENA

tzeko balioko die. Jorge Davila aulkian dagoenetik hirugarren partidua zuten, eta, bi berdinketa batu ostean, hirugarrenean etorri da garaipena. Asteburuan Loinazen jokatu dute, seigarren dagoen Beasainen kontra.

Bigarren itzulia UDAK

Hirugarren Federazio Mailan, Aretxabaletak zortzigarren postuan (26 puntu) hasiko du bigarren itzulia. Domekan, bigarren dagoen Portugalete ez zen askoz hobia izan, baina nahikoa izan zen etxeokoe hamar minutu txar

izatea bizkaitarrek ez barkatzeko. Hain zuzen, hori du kategoriora horrek. Bada, domekan (16:30), maila galtzeko hautagai nagusi den San Viator izango dute Ibarren bisitari.

Bergarako neskek, bi porrot

Ez da gertatu orain arte, eta horregatik da albiste. Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailan bergararrek bi partidu galdu dituzte jarraian, eta hirugarren postura egin dute atzera. Mahoneroek Intxaurdi izango dute kontrario.

SASKIBALOIA Soraluze Bergarak Duplostock hartuko du domekan

Sailkapenean kontrario zuzena den Duplostock Oiarsolezo taldearen kontra jokatu du domekan (18:00) Bergara Soralucek. Bisitariak hirugarren daude sailkapenean eta mahoneroak lau puntura daude. Bestalde, MUko talde nagusiek emakumezkoena eta gizonezkoena etxetik kanpora jokatu dute asteburuan.

ESKUBALOIA Mugarri Ingouk bide honetatik jarraitu nahi du

Ligari neurria hartu ezinda zebilen Mugarri Ingou, baina Ane Herreroen mutilei joan den astean Bergarari irabazi izanak (25-23) konfiantza aldetik bultzada ederra eman die. Orain arte egindako partidu serioena izan da, eta bihar (18:30) Egiaren kontra berdin jarraitzea da kontua. Bergarak eta Aloña Mendik kanpoan dute hitzordua.

ARETO FUTBOLA Mondrate, lider dagoen Antiguokoren itzalean

Azkeneko bi jardunaldietan berdindu eta gero, bigarren dagoen Mondratek arnasa eman dio orain arte -14 partidu- partidurik galdu ez duen Antiguokori. Hala, donostiarrak dira mailaz igotzeko hautagai nagusi, baina arrasatearrek hor egon nahi dute. Zapatuan (17:30, Musakola), Beti Arabakoena kontra jokatu dute etxeokoe.

Goienakideen txokoa

URTARRILEKO SARIAK

Errigorako saskia

ERRIGORA

Parte hartzeko sariaren izena: errigora



Sarrerak

ARRIKRUTZ
GRATIS O B O K

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

www.harremandenda.org

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzailean artean ogingo da zozketa. Irabazten dagoen (LDFD 15/1995 legeraren arabera, jabetza ez duzue) zuzeneko Goiena Komunikazio Zerbitzuaren bitartez automatikoki baten sartuko dira. Datu-bilaketaren helburu bakarra da irabazten dagoen sariaren gordinetzea. [zukidetzarekin] zuzendutako sariak. Hain zuzentzeko edo zozketari helburu berriz datuak: goienakide@goiena.eus

HILARION JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: urtarrilak 21

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.

📱 GOENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOENAKIDE KUOTA: 67€

Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Proposamen finak eta indartsuak, bat eginda oholtzaren gainean

Arrasateko Del Val eta Rebel Noise eta Oñatiko Malko taldeek osatzen dute gaur Seminarixoa 21:30ean hasita izango den seigarren Danbakaren finalisten zerrenda, eta Bergarako Turtukiña Kolektiboa izango da chill out guneko DJ gonbidatua

Aitziber Aranburuzabala Juldain

BERGARA

Urriaren 25ean abiatu zuen Goiena Komunikazio Taldeak, Bergarako Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lan-kidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuaren eta Sein taldearen babesletza eta laguntzarekin, seigarren Danbaka Musika Lehiaketa.

Kultura eta aisialdia elkarlanean eta euskara ardatz izanda, bokazio horrekin abiatu zuen Goienak 2004an eskualdeko musika lehiaketa. Hogei musika proposamenek eman zuten izena seigarren aldian parte hartzeko eta epaimahaikideek – Amaia Arriaran, Ainhoa Vitoria, Sara Alonso, Julen Narbaiza eta Iñigo Ugarte– horietatik hamasei aukeratu zituzten lehiaketan parte hartzeko.

Lau kontzertu eta finala

Aurreko aldietan moduan, Debagoienean dagoen musika ekoizpen zabalaren erakuslehoi interesgarria eta aberatsa izan da seigarrena ere. Danbaka-gau bakoitza pilula txikietan eskainitako "musika dastaketa gozagarria" izan da ondo erantzun duen publikoarentzat. Ondo zuketutako 30 minutuko emaldiak guztiak, bakarkako zein taldekako formazioetan.

Ez dute, bada, epaimahaikideek samur izan finalisten zerrenda

SARRERA, BOST EURO; 'GOIENA' ETA 'PRIMERAN' 'APP'-AK JAITSITA ETA GOIENAKIDEEK, DOAN

osatzeko, eta, parte-hartzaile guztien jarrera eta ekarpena txalotuta, honako hauek jaso dute finalerako txartel bana: estreinako gauean jo zuen Oñatiko Malko taldeak; bigarren kontzertuan, azaroaren 15ean, izan zen Arrasateko Rebel Noisek; eta azaroaren 29an, hirugarren kontzertuan, izan zen Arrasateko Del Valek. "Gaur ere danetarik izango dugu: hasteko, pop doinuak; ondoren, punk-rocka; eta bukatzeko, rock gogorra ere bai. Beraz, edozein gustu asetzeko eskaintza egongo da finalean ere. 40 minutu izango ditu talde bakoitzak", kontatu du Danbakako koordinatzaile eta aurkezle Jokin Bereziartuak.

Hasteko, Del Val

Arrasateko Jon Garcia eskarmentu handiko musikari profe-

sionalaren proiektua da Del Val, eta alboan dituen musikariek ere goi mailako ikasketak dituzte, "Iruñeko Kontserbatorio garaiko pisukideak". Bigarren hartu du parte Garciak Danbakan, baina oraino, ikur duen gitarra alboratuta, teklatuak, sintetizadoreak eta mikrofonoa izan ditu eskuetan. "Proiektuaren berezitasuna" azpimarratu dute epaimahaikideek: "Pop doinu zainduak ekarri ditu; biluztu egin da agertokian, eta hori mirestekoa da. Oso ausarta iruditu zaigu".


Del Val taldea Danbakan estreinatu zen jendaurrean, oso gustura geratu ziren, baina ezustekoz hartu zuten finalerako gonbidapena. "Oso pozik gaude, ez genuen espero. Pozik eta urduri ere bai, orain neurria eman behar da eta. Irakasleak gara guztiak, eta ondo etorri zaizkigu Gabonetako oporrak, entseguetarako. Hasi gineneko hiruzpau-lau kantu hartu ditugu eta forma eman diegu, eta, horrez gainera, bukatu bako ideia batzuk ere bagenituen, eta, horrekin guztiarekin, kontzertua borobiltzeko nahasketa bat egingo dugu.

Lehenengo kontzertuan asko gozatu genuen, eta hori da gaur ere asmo nagusia. Taldea berria denez, eskualdean eta Euskal Herrian ezagutzera emateko aukera ona da finala. Eta irabaziz gero, luxua litzateke", azaldu du Jon Garciak.

Rebel Noise bigarren

2019an sortutako Arrasateko Rebel Noise taldeak hartuko du lekukoa. Punk-rock doinuak ditu oinarri Andoni Agirrek, Aimar Iturricastillo, Unax Iñarrak, Oihan Azkaratek eta Manex Bakerok osatzen duten boskoteak. Zuzeneko indartsua dute, eta horrela azpimarratu dute epaileek ere: "Talde trinko edo oso konpaktu moduan ikusi genituen, heldutasun handia erakutsi zuten agertoki gainean. Uste dugu gorantz egiten jarraituko duen taldea dela".

Taldeko abeslari Aimar Iturricastillo *Iturri*-k finalerako pozik eta urduri daudela aitortu du, baina "sekulako gogoarekin" eta zer geratuko den jakin-minarekin daudela dio: "Entseguetarako ez dugu oso samur izan, lokalean aldatetak...



Hiru sari banatuko dituzte

Seigarren Danbakaren logoko uhinen irudia izango duen garaikur bana jasoko dute irabazleek. Hiru sari banatuko dira gaur, gauerdian, Bergarako Seminarixoa aretoan.

SARI NAGUSIA

Epaimahaiak aukeratuko du, eta gaurko hiruhiru proposamenetatik –Arrasateko Del Val eta Rebel Noise taldeak eta Oñatiko Malko boskotea– batek diskoa grabatzeko aukera izango du. Talde irabazleak aukeratuko du, gero, non eta zeinekin grabatuko duen aruten grabatu eta argitaratuko den kantuen bilduma.

PUBLIKOAREN SARIA

1.890 lagundik gora izan dira *Danbaka.eus* atarian botoa eman duten herritarrak. Irabazleari bideoklipa grabatzeko aukera emango dio sariak.

DANBAKA-EKINEZ SARIA

Maiatzaren 30ean eta 31n Bergarako Labegaraieta auzoan egingo duten hirugarren Ekinez musika jaialdian jotzeko aukera izango du hirugarren sari hori eskuratuko duen taldeak. Goienak eta Ekinez elkarteak aukeratuko dute proiektu irabazlea.

Turtukiña Kolektiboa chill out gunean

Aurtengo Danbakako kanporaketa guztietan DJ gonbidatu bat izan da Seminarixoa kanpoan atondutako chill out gunean, eta gaur ere hala izango da. Bergarako Turtukiña Kolektiboa gonbidatu dute oraino. Taldeko kide Jone Albenizek eta Ainhoa Narbaizak jardungo dute musikaz gunea giroten, 20:00etan hasita, kontzertuak 21:30ean hasi bitartean. Kontzertuen artean ere Turtukiñakoen musikarekin gozatzeko aukera izango da.

Askotariko diskoak eskuetan

Askotariko sorkuntza-ildoak jorratu izan dituen Bergarako kolektibo bat da Turtukiña.



Bergarako Turtukiña Kolektiboko Ainhoa Narbaiza eta Jone Albeniz. TURTUKIÑA

"Fanzine batetik jaio zen, baina, gerora, musika-jartzaile aritu izan gara. Askotariko musika estiloak ditugu gure saioetan ardatz: Rock-and-roll, soul, post-punk zein bestelako

musika estiloetakoak", diote Turtukiña Kolektibokoek.

Orain arteko lau Danbaga-gauean legez, Sanprubusa chill out gunean izango da gaur, 20:00etan hasita.



Jon Garcia arrasatearrak gidatutako Del Val laukoteak zabalduko du gaua. IMANOL SORIANO



Arrasateko Rebel Noise boskotea izango da bigarrena finaleko taularen gainean. IMANOL SORIANO



Oñatiko Malko boskoteak borobilduko du finaleko kontzertu-zerrenda. IMANOL SORIANO

izan ditugulako, baina azkeneko astean kaña eman diogu, ondo prestatzea garrantzitsua da eta. Finaletik espero duguna da adin askotariko jendea batzea, guk ahalik eta ondoen egitea, kompetentzia osasuntsua eta zaila egongo da eta. Oso gogotsu gaude, indartsu, eta irabaztera joango gara".

Bukatzeo, Malko

Abenduren 20an Gasteizko Jimmy Jazz aretoan jokatu zen Gaztea Maketa Lehiaketako finala irabazita igoko da Semina-

"ONDO PASATZEA DA GAUR ERE ASMO NAGUSIA; IRABAZIZ GERO, LUXUA!"

JON GARCIA, DEL VAL

"OSO GOGOTSU GAUDE, INDARTSU, ETA IRABAZTERA JOANGO GARA!"

AIMAR ITURRICASTILLO, REBEL NOISE

"BESTE TALDEEKIN KOMPETENTZIA ONA DUGU; BERAZ, FINAL POLITA IZANGO DA"

ANJE MAIZTEGI, MALKO

rixoko agertokira Oñatiko Malko taldea. Talde gaztea den arren, eskarmentua dute oholtzaren gainean. Zuzeneko indartsuak dira Oñatiko taldearen ikur, eta horrela azpimarratu dute epaimahaikideek: "Ez zuten inor axolagabe utzi. Zurrumbilo bat izan zen sentsazioarekin irten ginen Seminarixotik. Orokorrean, oso emanaldi segurua eta indartsua egin zuten".

Maddi Arlanzonek, Ander Igartuak, Anje Maiztegik, Unai Izurak, Unai Agirrek osatzen duten boskoteak borobilduko du finaleko kontzertu-zerrenda. Kanporaketa-kontzertuan egin zuten moduan, "dena emateko gogotsu" daudela dio Anje Maiztegi gitarra-joleak: "Egia esan, ez dugu espektatiba edo helburu jakinik. Guk ondo pasatu nahi dugu, publikoarekin ere asko disfrutatzea, eta hortik aurrera datorrena ongiatorria izango da. Beste taldeekin kompetentzia ona dugu; beraz, final polita izango da".

Sari-banaketa, gaur

Hiru taldeek euren emanaldia egin ondoren, epaimahaikideak bildu eta segidan emango dute irabazleen berri Jokin Bereziartuak eta Maddi Iñarrak aurkeztutako Danbakaren finalean.



Danbakast
bideo podcasta
ikusteko, eskaneatu QR
kodea telefonoarekin.

Primeran plataforman zuzenean

Seminarixora bertaratzeko aukerarik ez duenarentzako, aurten berrikuntza bat izango da; izan ere, Danbaka Musika Lehiaketa handitzen doan ekitaldi interesgarria den erakusle, Primeran plataformak zuzenean emango du finala.

Seminarixora debalde sartzeko aukera izango dute Goienakideek, baita *Goiena* eta *Primeran* aplikazioak jaitzita dituztenek ere. Komenigarria da *Primeran* aplikazioa Seminarixoan bertan deskargatzea, sarreran egongo den totemean dagoen QR-aren bidez. Hala egiten dutenek kontzertuetara doan sartzeko aukera izango dute, baita tableta baten zozketan parte hartzeko ere. Astelehenean, urtarrilaren 20an, izango da zozketa hori.

Goiena telebistan, datozen egunetan

Lehiaketari jarraipena egiteko asmoz abiatu zen urrian *Danbakast* bideo podcasta, eta datorren egunetan, hilaren 23an, izango da azkeneko kapitulua ikusgai, 20:00etan eta 22:00etan. Hiru sarien irabazleak gonbidatu ditu, oraingoan, *Danbakast*-eko aurkezle Jokin Bereziartuak.

Bideo podcastaz gainera, finaleko hiru kontzertuak ere ikusgai izango dira datozen asteetan Goiena telebistan eta *Goiena.eus* eta *Danbaka.eus* atarietan.

ESKER ONA



Justi Iñarra Mazmela



2025eko urtarrilaren 11n hil zen, 75 urte zituela.

Agur, munduko andra, ama eta amama onena izen zara. Agurtu dotzuan negar malko artian, oin izan zaitzez libre. Ta guk segirukou zure esana: "Aurrera, beti aurrera"

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2025eko urtarrilaren 17an.

ESKER ONA



Tomas Biain Letamendi




2025eko urtarrilaren 10ean hil zen, 90 urte zituela.


Eskerrik asko egunotan guregana hurbildu zareten danoi eta jaso dugun babes eta maitasun guztiagatik. Benetan hunkituta gaude. Eskerrik asko, baita ere, gure aitarekin egon zareten mediku eta erizainei.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean. Oñatin, 2025eko urtarrilaren 17an.

ESKER ONA



Joseba Zubiria Biain



2025eko urtarrilaren 12an hil zen, 54 urte zituela.

Bihotz-bihotzez mila esker guregana gerturatu eta jaso dugun maitasunagatik.

Joxebaren familia. Eibarren-Oñatin, 2025eko urtarrilaren 17an.

OROIGARRIA

Asier Sagastizabal Insausti



2025eko urtarrilaren 13an hil zen.

Beti egongo haiz aitzondotarron bihotzetan.

Aitzondoko lagunak. Oñatin, 2025eko urtarrilaren 17an.

OROIGARRIA



Asier Sagastizabal Insausti



2025eko urtarrilaren 13an hil zen.

Zure indarra, gure eredu. Betirako gurekin!

Ametseko langileak eta lagunak. Oñatin, 2025eko urtarrilaren 17an.

OROIGARRIA

Asier Sagastizabal Insausti



2025eko urtarrilaren 13an hil zen, 48 urte zituela.

Eskerrik asko, Asier, Aloña Mendixaren alde egin dozun lan danagatik. Beti goguan izango zaugu, Sagas.



ALOÑA MENDI KE.
Oñatin, 2025eko urtarrilaren 17an.

OROIGARRIA



Ziortza Martin Muñoz



Goienako langilea
2025eko urtarrilaren 16an hil zen, 51 urte zituela

Denbora beharko dugu gure lankide estimatua bezeroekin telefonoari itsatsita ez dugula berriz ikusiko onartzeko. Ziortza, ez dugu zure gertutasuna, ekina, euskaltzaletasuna eta zintotasuna sekula ahaztuko.



goiena™
KOMUNIKAZIO TALDEA

Goiena Komunikazio Taldea. Arrasaten, 2025eko urtarrilaren 17an.

ESKELA



Ziortza Martin Muñoz



2025eko urtarrilaren 16an hil zen, 51 urte zituela

Haren gurasoak: Eduardo eta Mari Carmen (†); bikotekidea: Jaime Acedo; semea: Ion; osaba-izebak, lehengusuak eta lagunak.

Mila esker babesa erakusten ari zareten guztioi.

Familiak Bergarako Oroilore beilatokian hartuko zaituzte, bihar, larunbata, 11:00etatik aurrera. Agurra zapatu arratsaldean egingo zaio Oroiloren.

Bergaran, 2025eko urtarrilaren 17an.

URTEURRENA



Pilar Mugica Arregui



Ignacio Arambururen alarguna
2024ko urtarrilaren 13an hil zen, 95 urte zituela.

Urteurrenako meza domekan izango da, urtarrilaren 19an, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2025eko urtarrilaren 17an.

URTEURRENA

Maria Asun Zubimendi Zabala




2024ko urtarrilaren 9an hil zen.

Urteurrenako meza domekan izango da, urtarrilaren 19an, 12:30ean, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2025eko urtarrilaren 17an.

URTEURRENA

Elo Altzelai Ugarte



2024ko urtarrilaren 18an hil zen.

Elo, gure bihotzean beti, iraganean, orain, etengabe. Zure irribarrea, argi bat, gure oroitzapenetan, beti bat.

Zure izana, haizean dantzan, maitasunaren oihartzun, kantuan. Egun triste honetan, zu joan izanak, ez dizkigu kenduko, zurekin ginenak.

Ugarte familia. Oñatin, 2025eko urtarrilaren 17an.

URTEURRENA

Pepita Ugarte Zubialdea



2024ko urtarrilaren 19an hil zen, 93 urte zituela.

Urteurrenako meza domekan izango da, urtarrilaren 19an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2025eko urtarrilaren 17an.

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**SALTOKIEN EGOERA AZTERGAI**

Datuetatik tiraka, saltokiek bizi duten egoerara hurbilduko da Txomin Madina, hainbat saltzailerekin berba eginda.

'Datuetatik tiraka'

Egubakoitza, 20:00 eta 22:00

**ASTEBURUKO KIROLAREN ERREPASOA**

Gizonezkoen errugbia, emakumezkoen pilota eta gizonezkoen futbola izango ditu berba Xabi Urzelaik.

'Harmailatik'

Astelehena, 20:00 eta 22:00

**GALDER GONZALEZI ELKARRIZKETA**

Euskal Wikilariak kultura elkarteko zuzendariari egingo dio elkarrizketa Idoia Torregarai.

'Elkarrizketa'

Martitzena, 20:00 eta 22:00

**IRLANDA EZAGUTZEN**

Irlandan bizi den Sara Nuñez arrasatearrekin egingo du berba Eneko Azurmendik, *Mundutik* saioan.

'Mundutik' Martitzena, 19:30 eta 21:30

**ELKARRIZKETA DANBAKAKO HIRU SARITUEI**

Seigarren musika lehiaketa hiru sarituak gonbidatuko ditu platora Jokin Bereziartuak, azken saioan.

'Danbakast'

Eguena, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 17**OÑATI Odola emateko eguna**

Urteko lehena. Aurrez hartu behar da ordua: 943-00 78 84.

Enpresagintzan, 16:30etan.

ARRASATE Grafiti-margotzea

Gaztetxeak faxismoaren aurka leloarekin.

Gaztetxean, 17:30etan.

ESKORIATZA Bertso afaria**Apotzagan**

Maidar Arregi eta Andoni Rekondo bertsolariarekin.

Apotzagako auzo etxean, 21:00etan.

BERGARA Danbaka: finala

Del Val, Rebel Noise eta Malko taldeak igoko dira oholtzara Danbakako seigarren edizioaren finalean.

Seminarixoa, 21:30etan.

OÑATI 'Beer pong' jolasa

Tabernako barra 20:00etatik aurrera egongo da zabalik.

Gaztetxean, 22:00etan.

ESKORIATZA Txerrikumeak taldea

Aretxabaletako punk-rock taldearen zuzeneko.

Inkernu tabernan, 22:00etan.

ZAPATUA 18**OÑATI Oñatiko Emakumion**

Etxia: saio irekia

Orain arte egindako lana bateratu, eta sortutako taldeek euren asmo eta erronkak azalduko dituzte.

Eltzian, 10:00etan.

ARRASATE 'Gaztetxeak faxismoaren aurka' egitaraua

10:30etan, Aitor Zabaletaren dokumentala ikusi, eta ondoren, solasaldia; eta 12:00etan, boxeo entrenamendua.

Gaztetxean.

ARETXABALETA Kanuto Deunaren 25. urteurrena

11:30etan, bola-txapelketa; 15:00etan, bazkaria; 19:00etan, Kanutoren omenezko kalejira,

Orkestra Elektrotuna taldearekin; eta ostean, Oihu eta Akulu taldeen emanaldiak.

Aretxabaletan.

BERGARA Transgenikoen tailerra

EHUko ikerlarien gidaritzapean.

Prezioa: bost euro.

Laboratoriumen, 11:30etan.

BERGARA San Bixente jaiak**Partaitia auzoan**

12:00etan, meza, eta ostean, luntxa eta buruhandiak; eta 13:00etan, lago magoaren saioa.

Partaitia auzoan.

OÑATI Inauterietako entsegua

Martxoaren 1ean ospatuko den Oñatiko Inauteria prestatzen hasteko entsegua.

Eltzian, 12:00etan.

OÑATI Txarrana Eguna

12:00etan, bigarren eskuko azoka eta Pineapple Sweets; eta 20:00etan, Txakurrak eta Nick Linbött taldeak. Sarrerak: arruntak bost euro eta murriztuak hiru.

Gaztetxean.

ARRASATE Urban jaiak

Grafitiak, musika... gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA Kontzertuak

Pixi, Yonkistegieta Sound System eta Joseba, Inazio eta Guille taldeak.

Kartzela zaharrea, 19:00etan.

ESKORIATZA 'Bendita locura' antzezlan

Ausartak taldeko sei kideak oholtzara igoko dira sei emakume gorpuztera eta haien bizipenak umoretik kontatzera. Sarrerak, bost euro.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

DOMEKA 19**OÑATI Monteurrara irteera**

Aloña Mendikoeke urteko lehenengo ibilaldia egingo dute. Horren ostean, bazkaria egingo dute Iratxeko kanpian.

Postetxeko geltokian, 07:00etan.

BERGARA Musika Bandaren kontzertua

Enrike Txurrukak gidatuta.

San Pedro elizan, 12:30etan.

ESKORIATZA 'Denok plazara!' ikuskizuna

Pontx pailazoaren eskutik, kantuan eta dantzan egiteko ikuskizuna.

Sarrerak, hiru euro.

Zaldibar antzokian, 17:00etan.

ARRASATE 'Familia jolasean'

0-8 urte arteko haurrak dituzten familiek elkar ezagutzeko eta elkarrekin jolasteko aukera.

Okendoko ludotekan, 17:30etan.

OÑATI Kaskezur eta Naxker taldeak

Burrunda Faktoriaren eskutik.

Sarrerak: arruntak zortzi euro eta murriztuak hiru.

Gaztetxean, 18:00etan.

ARRASATE Zirku tailerra

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 19:30etan.

ARRASATE 'Itzulera' antzezlan

Dejabu taldearen lana. Konpainia bateko hiru kideek Mexikora eginiko bidaia kontatzen du antzezlanak.

Sarrerak, hamar euro.

Amaja antzokian, 19:30etan.

ASTELEHENA 20**DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea eta sinadura bilketa**

Oñatin, Antzuolan, Arrasaten eta Bergaran eskatuko dituzte pentsio duinak, eta Herri Ekimen Legegilea babesteko sinadurak batuko dituzte.

Herri horietan, 12:00etan.

ARETXABALETA Zeramika ikastaroa

15:00etan helduak eta 17:30etan haurrak.

Arkupen.

OÑATI Haurren Irakurketa Kluba

Aurretik izena eman duten LHko 4. eta 5. mailako neska-mutikoendako, Peru Magdalenak gidatuta.

Liburutegian, 17:00etan.

MARTITZENA 21**ARRASATE** Literatura solasaldia, ingelesez

Breakfast at Tiffany's liburuaren gaineko saioa, John Costelloarekin. *Kulturaten, 18:00etan.*

BERGARA 'Zer ari da gertatzen pentsioekin?' hitzaldia

Jexux Soubies-ek egingo du berba. *Seminarixoa, 18:30etan.*

ARRASATE 'Oh, Canada' pelikula

Martitzenetako emanaldia. *Amaia antzokian, 19:30etan.*

OÑATI Malen Osarekin solasaldia

Aloña Mendiko mendi sailak antolatuta, *Gailurretan egon gaitun* erakusketaren baitan. *Zinema-aretoa, 19:00etan.*

OÑATI Inauterietako entsegua

Martxoaren 1ean egingo den Oñatiko Inauteria prestatzeko. *Eltzian, 19:00etan.*

ELGETA Kantsatzeke: urteko batzarra

Urte berrirako plangintzaren berri emango dute. *Kultura etxean, 20:00etan.*

EGUAZTENA 22**ARAMAIO** Ibilaldia Aramaioko Lagunkoiaokoe

Ibarra-Sorgin Zubí-Azkoaga-Zabaldú baserria-Zabola-Azkoaga-Ibarra ibilaldia egingo dute. *Erretiratuaren elkartean, 10:00etan.*

BERGARA 'El microrrelato: claves para disfrutar de su lectura' hitzaldia

Jose Domingok egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta. *Seminarixoa, 10:00etan.*

ARETXABALETA 18. Huhezinema jaialdia

11:30ean, *Andrak erramutan* dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia; 17:00etan, Bideoklip Sailaren proiektzioa; eta 19:45ean, Lemak taldearen kontzertua. *Arkupen.*



DEJABU TALDEA

ARRASATE 'Itzulera' antzezlan

Dejabu taldearen lana. Konpainia bateko hiru kideek Mexikora eginiko bidaia kontatzen du antzezlanak –Ainara Gurrutxaga, Miren Alcala eta Urko Redondo–. Sarrerak, hamar euro. *Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30etan.*

BERGARA Odol-ateratzeak

Ordua hatzeko: *Gotatanta.eus. San Joxepe elkartean, 16:30etan.*

BERGARA Eguaztenak**Oxirondon**

Baserritarren azoka eta sukaldaritza zuzenean, Elikaeneak gidatuta. *Oxirondo azokan, 17:30etan.*

ARRASATE Literatura solasaldia, gazteleraz

Merce Redoredaren *La plaza del diamante* liburuaren gaineko saioa, Ana Rodriguez Callealtak gidatuta. *Kulturaten, 18:00etan.*

BERGARA Literatura Solasaldiak

Ni ez naiz Mikel Laboa liburuarekin gaineko saioa, Mikel Antzarekin. *Irizar jauregian, 18:30etan.*

ARRASATE Santa Agenda bezperako entsegua

Otsailaren 4ko eskea prestatzeko bigarren entsegua. *JAMEko Goikobaluren egoitzan, 19:00etan.*

BERGARA 'The room next door' pelikula

Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpigituluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoa, 20:00etan.*

EGUENA 23**ARRASATE** Sasoibide

Bixi-bizi tailerra egingo dute. *Ferixalekuan, 10:00etan.*

ARETXABALETA 18. Huhezinema jaialdia: Ikasle Saila

11:30ean, Aitzol Saratxagarekin saioa; 16:00etan, Ikasle Sailaren proiektzioa (1); 17:30ean, Ikasle Sailaren proiektzioa (2); eta 19:00etan, solasaldia. *Arkupen.*

ARRASATE 'Ipuin lotsatiak' kontakizuna

Odei Arregiren eskutik, 4 urtetik gorakoendako. Aurrez eman behar da izena, Bibliotekan. *Kulturaten, 18:00etan.*

ESKORIATZA Literatura solasaldia

Nelly Leyson idazlearen Esnearen kolorekoa liburuaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta. *Bibliotekan, 18:00etan.*

OÑATI Ipuin kontaketa

Oihana Etxagibeekin, HHko 4. eta 5. mailetako umeendako. Gonbidapenarekin. *Liburutegian, 18:00etan.*

OÑATI 'La luz que imaginamos' filma

Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpigituluekin. Sarrerak, 5,5 euro. *Zinema-aretoa, 19:30etan.*

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Pi LT

1992an sortutako Bizkaiko taldea bueltan da, rock eta metal doinuekin. Sarrerak, zapzi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

EGUBAKOITZA 24**ARETXABALETA 18.** Huhezinema jaialdia: Sail Ofiziala

16:00etan eta 17:40an, Sail Ofizialeko lanen proiektzioak; 19:30ean, sari banaketa; eta 20:30ean, luntxa. *Arkupen.*

BERGARA 'El país del atardecer dorado' liburuaren aurkezpena

Celia Santos egilea egongo da ekitaldian. *Udal liburutegian, 18:30etan.*

ARRASATE San Baleixo jaiak

19:30ean, jaiak hasteko, pintxo-dastatzea; eta 22:30ean, mus txapelketa. *Meatzerreka auzoan.*

OÑATI Karaokea

Tabernako barra 20:00etatik aurrera egongo da zabalik. *Gaztetxean, 22:00etan.*

BERGARA La Txama taldea

Mexikar jatorriko korridoekin girotuko du gaztetxea. Sarrerak, zortzi euro. *Kartzela zaharrean, 22:30etan.*

ZAPATUA 25**BERGARA** Laboratoriumeko bisita gidatua

Debalde. *Laboratoriumen, 11:00etan.*

OÑATI Inauterietako entsegua

Martxoaren 1ean egingo den Oñatiko Inauteria prestatzeko entsegua. *Eltzian, 12:00etan.*

ARRASATE San Baleixo jaiak

14:30ean, bazkaria; 17:00etan, poneyak; 18:30ean, txokolate-jana, umeendako eta gaztetxoendako; eta 21:00etan, Txakurak eta 112 taldeak. *Meatzerreka auzoan.*

BERGARA Kantari karaokea

Bergarako, Elgetako eta Antzuolako ikasleek parte hartuko dute gaurko ikuskizunean. *Seminarixoa, 16:30etan.*

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA****Conclave**

Zapatua eta astelehena: 19:30.

Klara eta hazi magikoaren misterioa

Zapatua: 19:30.

BERGARA**SEMINARIXOA****Here**

Domeka eta astelehena: 19:30.

Sonic 3

Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA****Desmontando un elefante**

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka eta astelehena: 19:30.

Sonic 3

Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA**ARKUPE****Emilia Perez**

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua eta domeka: 19:30.

Astelehena: 16:00.

Mufasa

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**FLORIDA****A real pain**

Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 20:30, 22:30.

Domeka: 12:00, 16:30, 20:15.

Astelehenetik eguenera: 16:30, 20:00.

Baby girl

Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:10.

Domeka: 20:30.

Astelehenetik eguenera: 19:45.

Conclave

Egubakoitza, zapatua, astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00, 19:30.

Domeka: 12:00, 17:00, 19:30.

Martitzena: 16:30, 19:45.

Desmontando un elefante

Egubakoitza, zapatua eta astelehenetik eguenera: 16:30, 18:15.

Domeka: 12:00, 16:30, 18:30.

Emilia Perez

Egubakoitza eta zapatua: 19:00. Domeka: 12:00, 17:00.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

La luz que imaginamos

Egubakoitza eta domeka: 20:15. Zapatua: 20:15, 22:30.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

La semilla de la hoguera sagrada

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 21:45.

Domeka: 19:15.

Astelehena, eguaztena eta eguena: 16:30, 19:15.

Martitzena: 16:30.

Las vidas de Sing Sing

Egubakoitza eta zapatua: 21:45.

Domeka: 19:30.

Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00.

Martitzena: 16:30.



AZKEN BERBA

IZAR ODRIOZOLA

Hilma Af Klint

Karrera utzi nuen egunean ezagutu nuen Hilma Af Klint pintore suediarren obra abstraktua. *La puta ama* iruditu zitzaidan, bere garairako erabat infrabalaratua. Gradu berrian tatuatu nuen bere koadroetako bat besoan. Egoerari epika gehiago gehitzeko, lagunei esan nien koadroa ezagutzen zuenak *nirebizitzakoamodioa* izan behar zuela. Errekonozitu zuen norbaitek, bai, baina lagun baten bikotekidea zen. Eta marikoia. Ups.

Af Klint 1862an jaiotako emakumea zen, eta ez zituen bere koadroak argitara atera bizirik zegoen bitartean. Are, ilobari utzi zizkion. "Erakutsi munduari ni hil eta 20 urte igarotzen direnean, mundua oraindik ez baitago prest nire lana ulertzeko", esan zion, "emakumearen lan artistikoak ikusezin bihurtzen dituen gizarte patriarkalean bizi gara" esatea ausartegia zelako. Gizarte androzentristak bere lanak ondo bete eta Vasili Kandinski izendatu zuen arte abstraktuaren aitzindari.

Gaur egun, Bilboko museo ezagunenean ikus daitezke bere artelanak. Poztu eta urduritu egiten nau, aldi berean: poztu, historiaren narratibak ezabatutako emakumeari behingoz merezi duen lekua ematen ari zaiolako; baina urduritu ere bai: zenbat nire-bizitzako-amodio izango ditut orain?

GAZTE GARA GAZTE

"Ekoiztetxeak sen artistikoa ateratzeko aukera ematen dit"

ZIHARA ETXEBARRIA

IKASLEA ETA PERYFERYKA EKOIZTETXEKO KIDEA

Julen Murua Mesonero ARAMAIO

Donostian bizi da gaur egun Zihara Etxebarria (Aramaio, 2006); izan ere, duela bi urte hasi zen han Psikologiako gradua ikasten. Azterketa garaia da harentzat, baina hartu du tarte bat GOIENArekin egoteko. Ikasketez ez ezik, arlo akademikotik kanpo egiten duenaz ere mintzatu da Etxebarria; izan ere, Peryferyka ekoiztetxeiko kideetako bat da.

Azterketa garaian harrapatu zaitugu; zer moduz doaz Psikologia graduko ikasketak?

Primeran! Dagoeneko graduko bigarren urtean nago, eta, poliki-poliki, geroz eta sakonago ari gara psikologiaren alor askotan murgiltzen. Oraingoz, esango nuke nortasunaren eta garapenaren psikologia direla nire interesgune nagusiak, baina, edozelan ere, psikologiaren adar gehiago ezagutzeko irrikaz nago.

Espektatibak betetzen ari dira?

Gutziz! Eta ez bete bakarrik, baita gainditu ere. Gradua aukeratzeko orduan zalantzak eduki nituen arren, orain oso harro nago hartutako erabakiaz, bai unibertsitatean bertan, baina baita fakultatetik kanpo ere;

lagunen artean sortu dugun giroa ez nuke ezerekin aldatuko. **Etxetik datorkizu Psikologia ikasteko grina, ezta?**

Bai, hori da. Familian bertan psikologo lan egiten duen jendea edukitzeak eta haiekin gaiaz hitz egiteak piztu zidan Psikologiako gradua ikasteko grina. Gainera, ikasketa horiek egiteko hautua egin nuenean ere haien babesak izan nuen momentu oro, eta hori eskertzekoa da. **Peryferyka ekoiztetxeiko kide zara; zertan oinarritzen da egiten duzuen lana?**

Gaur egun, ikus-entzunezkoen ekoizpenean ari gara lanean, eta, batik bat, film laburrak egiten ditugu. Hala ere, etorkizun hurbilera begira, badugu beste proiektu batzuetan lanean has-teko asmoa. Ekoiztetxearen baitan, Arianak eta biok sarritan dihardugu kamera aurrean antzeten; Danik, aldiz, postprodukzioan egiten du lan.

Hortaz, sormenerako tokia ere baduzu zure egunerokoan.

Hala da, bai. Ekoiztetxeak sen artistikoa ateratzeko aukera ematen dit. Esan beharra daukat antzetzeta ez ezik idaztea ere oso gustuko dudala, eta hainbatetan gure film laburren gidioak idaz-



Zihara Etxebarria aramaioarra. Z.E.

MOTZEAN

Janari gustukoena?

Amonaren intxaur-saltsa.

Mendia ala hondartza?

Mendia.

Parranda ala Netflix?

Parranda.

Patata-tortilla, tipularekin ala barik?

Tipularekin.

Abesti bat?

Suneren *Muxu bana*.

Bidaiatzeko toki bat?

Islandia.

teko ardura ere hartu izan dut, sormenari bidea zabaltzeko.

Zaletasun bezala ikusten duzu ala etorkizuna horri bideratuta irudikatzen duzu?

Ikus-entzunezkoen mundua nire zaletasun nagusietako bat da, eta, hala izaten jarraitzen duen bitartean, beti egingo diot tokia etorkizunean. Edozelan ere, baliteke denbora aurrera joan ahala zaletasun hutsa izan ordez nire bizitzako atal handi bat hura izatea, eta, egia esatearren, ez dut aukera hori baztertzen.

KOMERTZIOEN EGOERA AZTERGAI

'DATUETATIK TIRAKA'

URTARRILAREN 17AN, EGUBAKOITZA, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN
TXOMIN MADINAK AURKEZTUTAKO SAIOA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

